



ttipi-ttapa



EZKONTZA GEHIGARRIA / 29



BETI GAZTE MUNDUKO TXAPELDUN

Ipar Irlandako Munduko Sokatira Txapelketan izan da Lesakako Beti Gazte sokatira taldea eta bederatzia domina lortuta bueltatu da. Klub artekoan bortz domina jantzi ditu, horietako bat urrezkoa, eta nazioartekoan lau, tartean Euskal Herriarentzako lehenbiziko urrezko domina txapelketa mistoan. / 50

ANA ERRANDONEA

Itzuliaren bigarren etapa Leitzan


Apirilaren 4an egingen dute Itzuliaren bigarren etapa. Vianan hasi eta Leitzan bukatuko da. / 36

SINADURAK



Ia 30 urtez Bortzirietako pediatra izan da Belen Compains / 8

Berako Asier Gogorzaren hariztia bere sormen laborategi / 12



Iñaki Zelaieta izanen da hurrengo bi urtetan Anizko alkate / 45

Doneztebe Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide / 23



ZOKKETA / 60

BERA
LESAKA

Agenda
2023

MARTXOA
APIRILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

<p>MARTXOA</p> <p>24 LIBURU AURKEZPENA EN LA SANGRE SUSANA RODRIGUEZ LEZAUN <small>19:30 Seregi Liburutegian Antolatzaileak: Euzko Kultur Batzardea eta Igonek Liburu-Ordea</small></p> <p style="text-align: right;">BERA</p>	<p>30 KONTZERTUA WILLIS DRUMMOND <small>ORTEZEGUNA 20:00 Kataloa Sarrena 10E</small></p> <p style="text-align: right;">BERA</p>	<p>15 DOKUMENTALA EIDEAK ARITZ GANBOAREN SOLASALDIA <small>19:00 Kultur Etxea Antolatzailea Martiale</small></p> <p style="text-align: right;">BERA</p>
<p>25 MERKATUA MERKATU TTIKIA <small>LARUNBATA 10:30 Iñaki Plaza</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>	<p>1 TOPAKETA HAUR KANTARIEN TOPAKETA <small>LARUNBATA 18:30 Herrerioa Kultur Etxea</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>	<p>15 BERTSO SAIOA ARRANO <small>LARUNBATA</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>
<p>25 DANTZARI HELDUEN IKUSKIZUNA TANTIRUMAJRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA <small>LARUNBATA Herrerioa Kultur Etxea</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>	<p>LITERATURA GERALDIAK NOLA IRUZKINDU LIBURU BAT <small>10:00 Arnoa Elkartea</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>	<p>16 BERAKO MENDI MARATOI ERDIA <small>IGANDEA Info + www.maratloi.com Antolatzailea Martiale</small></p> <p style="text-align: right;">BERA</p>
<p>25 KONTZERTUA GUDA ETA BAKEA OIASSO KAMERATA <small>LARUNBATA 19:30 Kultur Etxea Sarrena: 5E Antolatzaileak: Berako Kultur Batzardea eta Berako Udala Laguntzailea: Berako Antzerki Sarea</small></p> <p style="text-align: right;">BERA</p>	<p>2 UDABERRIKO KONTZERTUA LESAKAKO MUSIKA BANDA <small>IGANDEA 12:30 Plaza Zabarrin</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>	<p>16 ZINEMA HARRIONDOAN <small>IGANDEA 17:00 Herrerioa Kultur Etxea Antolatzaileak: Inaki Etxe eta Tantiromajru Ikasteko gurasak</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>
<p>26 ANTZERKIA HIRU KORTSE, AZUKRE ASKO ETA BRANDY GEHIEGI <small>IGANDEA 18:30 Herrerioa Kultur Etxea Sarrena: www.lesaka.eus</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>	<p>5 MUSIKA ESKOLA KONTZERTUA LESAKAKO MUSIKA ESKOLA <small>ASTAZKENA Herrerioa Kultur Etxea</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>	<p>16 KONTZERTUA AMORANTE <small>IGANDEA 12:00 Kataloa</small></p> <p style="text-align: right;">BERA</p>
	<p>8 BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA <small>LARUNBATA 10:30-11:30 Berakobetan</small></p> <p style="text-align: right;">BERA</p>	<p>20 IPUINKONTALARIA <small>ORTEZEGUNA Lesakako Liburutegia</small></p> <p style="text-align: right;">LESAKA</p>

UXUE
PRESIDENTA

GEROABAI

LA NAVARRA DE TODOS LAS
GUZTION NAVARRA

Gobernu ausarta
merezi dugu

Prest gaude!



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Klima larrialdia eta turismoa

Turismoa indarra hartzen ari da gure eskualdean. Urte askotan ez da izan turistentzat oso leku erakargarria. Inguru honetako klima euritsuak berme gutxi ematen zuen eguzkitan kolorea hartu eta putzuan gustura sartzeko moduko oporrak pasatzeko. Gauzak, ordea, klima larrialdiarekin, azkar aldatzen ari dira. Joan al daiteke Madrilera edo Sevillara udan? Bai, aire girotua piztu eta itzalean ezkutatzeko. Gure etxearen pareko nekazaritza turismoan urteak dira Valentziako eta Andaluziako turistak etortzen direla euri esperantzian. Lainoa nahi dute udan, eta gaueko freskura euren etxean egin ez dezaketean hori egiteko, alegia, atxon edo deskantsatzeko.

Klimak berotzen eta lehortzen jarraitzen badu, oso litekeena da etorkizunean hegoaldeko turisten oldea izatea gure herrietan. Alde ona badu, noski, baina baita kezkatzen duen beste alde bat ere. Mediterraneo aldea etxe zakarrez, porlanez eta urbanismo aldetik negar egiteko moduko eraikinez bete dute. Gai ote gara gurean beste zeozer egiteko? Eta gai ote gara lehendik nahi adinako indarrak ez duen hizkuntzari eusteko? Hala nahi!!

«GAUZAK KLIMA LARRIALDIAREKIN AZKAR ALDATZEN ARI DIRA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Urrezko neska-mutilak

Duela hemeretzi urte ere han ziren Glasgown Karmelo, Joxe Angel, Beñardo, Oskar, Gerardo, Paxkual... Dozena bat urtez utzi, baina sokaren harrak berriz zizta egin eta izen klasikoek urrerako bidera eraman dituzte Ander, Beñat, Iñigo, Unai, Julen... Horretaz gain, sokarako grina piztu diete podiunerako bidea ongi ikasi duten hainbat emakumeri. Mundialak zarete!

NABARMENTZEKOAK



ALAITZ
REKONDO
GAI JARTZAILEA



ANDER
MITXELENA
MUNDUKO TXAPELDUN

Azken 12 urteetan Nafarroako Bertsozale Elkartearen lehendakari izan ondotik, otsail bukaeran utzi zuen kargua Alaitz Rekondo Ferrero lesakarrak.

18 urte bertzerik ez dituen Lesakako tiralaria urrezko bi dominarekin bueltatu da sokatira mundialetik: klub artekoan 560 kiloko taldearekin eta Euskal Herriaren izenean mistoan.

GIBELERA BEGIRA



2013-03-14 · TTIPI-TTAPA · 586 zk.

Korrikaz Estebe Apeztxerekin

Korrikaren arduradun Estebe Apeztxerekin mintzatu zen TTIPI-TTAPA duela hamar urte. Korrikaren 18. edizioa antolatzen buru belarri ari ziren orduan. «Euskararen oinarritutako elkarbizitza aldarrikatzen du leloak. Aitzineko eta gibekeko hitza euskaraz eginen duen bizikidetzan», azaldu zuen. «Elkarrekin solastatzeko, elkar entzuteko eta ulertzeko hizkuntza izan behar du euskarak. Hizkuntzak guztiok behar baikaitu: euskara zahar eta berriak, dakitenak eta ez dakitenak, elkarrekin. Kohesiorako lehengai eta tresna izan behar du euskarak». AEKren egoeraz ere mintzatu zen: «Nafarroako dirulaguntzak urtetik urtera tikiagoak dira. Hain dira tikiak, kasi ez direla existitzen erran litekeela».



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 45€
eta Malerrekako 36€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€



KOLABORAZIOAK

NEREA ZABALETA LASARTE

Min ezkutua

Irudikatu bi korrikalari maratoi bat egiten. Bata korrika egiteko arropa eta zapatila onekin, korrika egiteko banda buruan duela, lau orduko markan helmugara iristen, neka-neka egina. Bestea ekipamendu berdinarekin baina hanka protesiko batekin, sei orduko markan helmugara iristen, nekatur eta mindua. Zer pentsatu duzu bi kirolari horiei buruz? Biek meritu ederra dute, agian hanka bakarria duenak gehiago, nahiz eta bere marka hain ona ez izan. Seguruena ez duzu pentsatu izanen: «bigarren kirolariak marka txarra egin du. Ahultasuna erakutsi du. Ez da gai izan bere mugei aurre egiteko. Nola da posible ez erreakzionatu izana eta ez gehiago saiatu izana?». Ez dut uste inork horrela pentsatuko lukeenik. Eta esanen banizueke pertsona horrek, errena izan beharrean, osasun mentalarekin arazo bat duela, eta maratoi bat izan beharrean eguneroko bizia dela? Pertsona horrek ere meritu asko duela pentsatuko zenuke? Edo agian beste pentsamendu negatiboak eta ez lagungarriak edukiko zenituzke?

Gaurkoan gaixotasun mentalei tarte bat egin nahiko nieke, askotan ikusezinak eta ez ulertuak baitira. Orokorrean, pentsatzen dugu arazo mentalak aukeratu egiten direla, eta nolabait gaixoak boterea duela hobeki sentitzeko. Zenbat aldiz entzun izan du antsietatea daukan pertsonak «lasai egon» eta

«MIN EZKUTUAK EXISTITZEN DIRELA OHARTU BEHAR DUGU»

ulertzea zer ari zaien pasatzen. Baina bestalde, askotan exigentzia handia daukagu pertsona horiekin: lanean jarraitu behar dute, aurpegi ona izan, eguneroko lanak eta aktibitateak egin, ez kexatu, eta abar luze bat. Oso onargarria da sukarraren ondorioz jaiegun bat hartzea, baina ez dugu hain erraz ulertzen antsietate atake batengatik etxean gelditzea. Ohartu behar dugu min ezkutua existitzen direla, termometro edo odol analitikekin neurtu ezin direnak, eta askotan min hori pairatzen duten pertsonen ezin dutela ezer egin min horien kontra.

Arazo eta gaixotasun mentalak anitzak dira eta hainbat gradutako larritasuna dute, beste edozein gaixotasun edo min bezala. Batzuetan denboraldi batez gurekin egoten dira eta ez digute uzten gu izaten eta bizitza normala egiten, gripe luze bat bezala. Besteetan hor gelditzen dira eta agian min horrekin bizitzen ikasi beharra dugu, belauneko arazo kronikoak edukitzean bezala. Eta beste kasu batzuetan, larrietasun, heriotzara eraman dezakete, minbizia bezala. Gaixotasun eta min mentalentzako tratamendua daude, beste gaixotasunentzako bezala. Diferentzia handiena da min mentalak onartzea beste min batzuk onartzea baino denbora gehiago daramala, bai pairatzen duenarentzat baita bere inguruko pertsonentzat ere. Beraz, ireki begiak eta belarriak, ikusi eta entzun zure ingurukoak, norbait minez egon liteke eta zure laguntza eta ulerpena behar lezake.

depresioa duen pertsonak «alaitu, bizitza motza da»? Askokostatzen zaigu arazo horiek dituzten pertsonak ulertzea eta beraiekin enpatia izatea. Heine batean normala da, arazo hauek pairatzen dituzten pertsonen ere kostatzen zaie



GORKA LAURNAGA PEÑA

Abartan fotovoltaikoa

Bertzerik gabe... Nik proposatzen dut Abartan osoa parke fotovoltaiko bat bilakatzea. Zein da bertzela plana? Ez dakit, baina aldaketa klimatikoaren aferarekin ere zerbait egin behar dugu. Edo zer? Erregai fosilak utzi behar dira... Ados, orduan, plana: energia berriztagarriekin trantsizio energetikoa egitea eta ekonomia deskarbonizatzea eta digitalizatzea! Tatxaaaan!

Planazoa: badugu haizearen edo eguzkiaren energia mugagabea, katxarro teknologiko batzuk paratzen ditugu horiek hartzeko eta listo, energia berdea gure auto elektrikoentzat! Iupi!

Zaude-zaude... Baina non paratuko ditugu panelak eta aerosorgailuak? A beno, nire etxe ondoan ez... Azken urtean oihartzun handia hartu du berriztagarrien makroproiektuen kontrako borrokak. Beren leloa: berriztagarriak bai, baina horrela ez. Proposatzen dutena: neurri handiko berriztagarriekin (parke fotovoltaiko eta eolikoekin) ingurumenean, paisaian eta laborantza lurretan inpaktuak dituztenez, eta gainera kapital handiaren esku daudenez, deszentralizatu behar dira eta eredu komunitario bat bultzatu, eta panelak eta turbinak eremu artifizializatueta bakarrik paratu: teiltatueta, utzitako harrobietan, Nafarroako kanalaren estalpe gisa... Ba, listo, ez? Txantxatxan! Badugu konponbidea!

Zaude-zaude. Baina zenbat energia ematen du eredu horrek?

«BADAKIZU EGUNGO ENERGIAREN % 10 NOIZ KONTSUMITZEN ZEN? 1920AN»

fotovoltaikoak paratuz (Iruñea panel FVko erraldoi bilakatuz, finean)... Iruñeko kontsumoan herenea edo erdia lortuko genuke. Baina, noski, hori, gainera, ezinezkoa da! Energiaren % 15, beraz... Zer erran nahi du horrek? Ideia bat egiteko, munduko egungo energiaren % 10 badakizu noiz kontsumitzen zen? 1920an. Urte horietara itzultzea bezalatsu izanen zen. Beno, hori ere ez, garai hartan populazioa hiru aldiz ttipiagoa baitzen!

Hiru aukera ditugu nire ustez: 1. Egungo hiperkontsumo fosilarekin segitu. 2. Gure hiperkontsumoa energia berriztagarriekin ordezkatzeko saiatu. 3. Berriztagarriekin zerbait ordezkatzeko eta gure kontsumoa aunitz jaitea. Lehendabiziko aukerak mundua suzko bola bat bihurtuko du. Bigarrena nahi badugu, Baztango lurra energia harrapatzeko mega-parke bihurtu behar dira. Bakoitzak gure txaleta eta egunero kotxean lanera joan nahi dugula? Orduan Abartan fotovoltaikoak estali. Nahi adina arropa nahi dugula eta pizzak ortziralero izateko eskubidea? Orduan Saioako lepoa turbinaz bete. Aske izan nahi dugula neoliberalismoaren zentzu merkantilistan? Orduan prestatu lurra industrializatzen. Zeren mugitzen den eta egiten den orok behar du energia.

Zein da idatzi honen mezua? Bi:

1. Gurean ere berriztagarriak jartzea pentsatzen hasi behar dugu.
2. Ez baduzu nahi Abartan fotovoltaiko bat, utzi kotxea!

11 GALDERA LABUR

DANIEL SANZ AZPIROZ ZIGAKO GAZTEA

«Ikasteko erraza eta dibertigarria da Kenpo kaia»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Pertsona langilea naizela erranen nuke, beti gauza berriak ikasteko gogoarekin.

Zein dira zure zaletasunak?

Kenpo kain aritzen naiz. Entrenamenduetan, ahal dudan guztia ematen saiatzen naiz, hortaz, urteekin aunitz hobetu dut. Gainera, arras lehiakorra naiz eta nire akatsak hobetzen saiatzen naiz, hurrengoan hobe egiteko.

Noiz hasi zinen Kenpo kaiarekin?

2015ean hasi nintzen. Zigan klaseak ematen hasi zirelaokoz apuntatu nintzen, eta aunitz gustatu zitzaidalako segituen.

Zertan datza kirol hau?

Arte martzial japoniarra da. Ez da arlo zehatz bakarrean

nabarmetzen, aunitz lantzen baitira: defentsa pertsonala, katak, konbatea... hortaz, arras arte matzial polita da, bikaina.

Non entrenatzen zara?

Elizondon entrenatzen naiz, Lanbide Eskolan. Astean behin elkartzen gara, larunbatetan. Batzuetan aste tartzet Berara ere joaten naiz.

Zein teknika mota lantzen dira?

Kanpo kaiean teknika aunitz lantzen dira. Hasieran errazak dira, baina gero zailtzen dira. Zinturoi beltzan armak erabiltzen dira, katana adibidez.

Irakasten ere aritzen zara, ezta?

Bai, irakaslea ere banaiz. Orain Urdazubin irakasten ari naiz, talde bakarrearekin.

Kirol erraza da ikasteko? Eta irakasteko?



Ikasteko erraza eta dibertigarria da, adinak berdin duelakoz. Irakasteko zailagoa da, batez ere adin eta maila ugarioko taldeak direlaokoz eta horretarako gauza aunitz jakin behar direlaokoz. Baina irakastea ere arras polita eta dibertigarria da.

Tunisian jokatu den munduko txapelketara joanen zara irailan. Gogotsu?

Bai, arras gogotsu, nire lehenbiziko aldia izanen delakoz mundu mailako txapelketa

batean parte hartzen. Baina batez ere, entrenatzen naizen lagunekin joanen naizelakoz, eta ilusio handia daukat beraiekin esperientzia hau partekatzeke.

Zure asmoak epe motzera?

Ahal dudan guztia entrenatzea eta hobetzea, munduko txapelketan emaitza onak lortzeko.

Eta epe luzera?

Ahal dudan guztia ikastea, batez ere arlo teknikoan, baina txapelketen arloa utzi gabe.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Utopia bide

JOSEBA SAGASTIBELTZA LASARTE

Aupa Joseba. Niri polita iruditu zaidana da horrelako aldizkari batean hain gai beharrezko bati buruz eztabaida pixka bat egotea. Horregatik idatzi nizun, erantzun bila, hain zorrotz. Gizarte hau aldatzeko gogo, ilusio eta grina usaindu nezakeen irakurri nizun maiatzeko testuan baina nire ustetan kontzeptuak nahasten zenituen, erantzun egin nizun.

Jakinduria eguneroko bizitzak ematen duela diozu eta ez ikasketek: «ikusi, ikasi eta ondo entzun». Nire ustez biak elkar elikatzen dira. Gomendatzen dizut irakur dezazun zuk zeuk aipaturiko Marx eta Engels-en *Manifestu komunista* eta horri buruz hitz egin dezazun karrikan den edozeinekin, agian ezagutuko du eta –ez dezagun jendea tontotzat hartu–, edo agian interesatuko zaio.

Langileria (edo langile klasea) diogunean ez gara langile eta alferrez ari. Motz-motzean: langileria da bere soldatetik (edo soldata ezetik) bizirauteko eta ez askoz gehiagorako duen oro. Ikasle langilea, langabea, pensio xumeduna... Autonomoa zarela diozu. 50 bat langile eta hilero 5 mila euroko soldatarik ez baduzu langileriaren parte zara noski. Dena den, ez da hain garrantzitsua kasu konkretuegi aztertzea, langileriaren eta burgesiaren arteko hierarkian eskailera mordo dago eta. Berririo diot, *Manifestu komunista* irakurtzea gomendatzen dizuet denoi, 1848. urtean argitaratua izanagatik gaurkotasan handikoa.

Inolaz ere ez zintudan etikarik gabekoen zakuan sartu. Bigarrenean bai, baina ez zen hori ezjakinena baizik eta nire hitzetan: «komunismoaren inguruko ezagutza okerra» dutenena. Beharrezkoa iruditzen zait zapalkuntzarik gabeko gizartearen (komunismoaren) eraikuntzan jardutea gaurdanik, beraz, beharrezkoa iruditzen zait gauza bakoitzari bere izenez deitzea. Sozialismoari ere aldatu diote batzuk esanahia: gobernuaren gestio ezkertiarra omen da, aberastasunaren banaketa justu bat. Ba ez, ez da hori. Sozialismoa langileriak langileriaren mesedera eraikitako instituzio multzoa, antolaketa eredu, da. Aberastasunaren ekoizpen eta banaketa justu bat –eta horrek dakarren guztia–. Zapalkuntza guztien kontrako borroka. Den-denok arazo eta poz berak izateko aukera izan dezagun, eta batzuen arazoak ez daitezun gerra, gosea, estalpe falta... izan.

«Eta orain zer?». Ados zurekin, kalea nahiko hotz dago azken urtetan. Aldaketarako indarra ezin konpara daiteke hamarkada batzuk lehenago zegoenarekin. Berotasuna pixkanaka zabaltzen da, ordea, eta utopiak laguntzen digu norabidea finko mantentzen. Utopiak ematen du aukera gainera berotasuna handitzen joateko, mundu berria eraikitzen joateko zaharrari su eman bitartean.

Euskal Herriak Danimarkaren antza izateko proposamen politikoak dena hozten du. Sozialismoaren eraikuntzak utopiarantz abiatzeko ilusioa pizten du. Ea bidean ikusten garen.

BOTA BERTSOA



JOSU SANJURJO ALZURI
LESAKAKO BERTSOLARIA

Beti Gazte sokatira taldeari ongietorria

Doinua: Habanera

*Maleta bat bete amets
Lesakatik Irlandara
Prestakuntzaren ostean
Txanxarrik ez zegoen jada
Urduritasuna pisu
Estra bat da beharbada
Nahiz Glasgowko gau hartatik
Pasatu bi hamarkada
Aurten lortu duzuen
Hura bezain ederra da
Parekidetasunean
Emandako besarkada
Orain goza ezazue
Herri goxo honen gaba
Gu abentura berriak
Espetzen egonen gara.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

* Izartxoak dutenak eta arrosaz daudenak gaizki daude.

Zein da zuzena?

Zein da 'zenbaki' hitzaren laburdura?

Laburdura batzuk ekarri ditugu aldi honetan Euskararen Txokora, hitza osatzen duten letrak murriztuz sortutakoak.

Laburdura erabilienak: adib. (adibidez), or. (orrialdea), fra. (faktura), koop. (kooperatiba), tel. (telefonoa), etab. (eta abar), zk. (zenbakia), k.k. (kontu korrantea), zm. (zentimo), k. (kale, karrika), lab. (laburdura), esk. (eskuin), ezker (ezk.), z.g. (zenbakirik gabea), pl. (plaza), jn. (jauna), and. (andrea)...

Asteko egunak: al. (astelehena), as. (asteartea), az. (asteazkena), og. (osteguna), or. (ostirala), lr. (larunbata), ig. (igandea).

Hilabeteak: urt. (urtarrila), ots. (otsaila), mar. (martxoa), api. (apirila), mai. (maiatza), eka. (ekaina), uzt. (uztaila), abu. (abuztua), ira. (iraila), urr. (urria), aza. (azaroa), abe. (abendua).

Laburduren harira, hauek dira Euskaltzaindiak emandako zeinbat ohar:


- **Letra arruntez** idazten dira, eta **bukaeran puntua** daramate (siglek, akronimoek eta sinboloek ez bezala). Salbuespena vs da —alegia, versus ('aurka, kontra')—; laburdura horrek ez darama punturik.
- **Laburdura guti** erabiltzen da **idazki arruntetan**, helbideetan izan ezik.
- Testu berezietan izan ezik (hiztegietan eta), **hitz laburrak ez dira laburtu ohi**. Ez da egokia, adibidez, ikus hitza laburturik idaztea (**ik.*) testu arruntetan.
- Laburdura **gehienak letra xehez** idazten dira, **baina ez den-denak**. Badira letra larriz idazten direnak ere: P.D. (post data), G.B. (goian bego), O.E. (ontzat emana)... Baita letra larriz eta xehez idazten direnak ere: K.a. (Kristo aurreko), K.o. (Kristo ondorengo)...
- Laburdurari **ez zaio atzizkirik erantsi behar**; ezta marratxorik ere, testu berezietan izan ezik. Hortaz, **alkate and.-k*, **27. or.-ko*, **etab.-etan*... idatzi beharrean, osorik idazten dira hitzak: alkate jaunak, 27. orrialdeko, eta abarretan.

Osatu erran zaharra

MARTXOKO



BERROGEI



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak,
proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Traba aunitz paratu dizkidate baina harro nago egin dudanarekin»

BELEN COMPAINS BEAUMONT 30 URTEZ BORTZIRIETAKO PEDIATRA IZAN DENA

Joan den abenduaren 21ean hartu zuen erretiroa hiru hamarkadatan Bortzirieta-ko haurren pediatra izan denak. Urteotako lorpenak eta trabak aipatu ditu bere ibilbidearen erreposo honetan

G. PIKABEA LESAKA

Ia hiru hamarkada egin ditu Belen Compains Beaumontek (Iruñea, 1959) Bortzirieta-ko pediatra lanetan. Ekainaren 1ean beteko lituzke 30 urte, baina lehenagotik hartu du erretiroa, 63 urterekin, «jubilatze-ko beharra sentitu dudalako». Hainbertze urtez bere eguneroko martxa izan dena alde batera utzita, «kostatzen» ari omen zaio egoerara jartzea, «% 150 lanean aritzetik hutsera bat-batean pasatzea» ez baita erraza. Iruindarra da sortzez, eta «familiarentzat eguneroko ogia ziurtatzeko» etorri zen Lesakara, erabat ezezaguna zuen ingurura. Bertan osatu du habia. 30 urteotako bidea «gogorra eta oztopoz bete» izan dela aitortu du, baita «umiliatua» sentitu dela eta «betoa jarri» izan diotela ere, baina «kontent» dago egin duen lanarekin, eta «aunitz disfrutatu» duela dio. Bertzeak bertze, arreta goiztiarraren zerbitzua martxan paratu izana eta desgaitasunak dituzten haurren alde egindako lana nabarmendu du.

Zergatik erabaki zenuen medikuntza ikastea?

Ez naiz medikuen familia batekoa eta ez nuen bokaziorik. Zientzia alorrekoa nintzen, eta pertsonen garapena eta harremanak gustatzen zitzaizkidan. Psikologia egitea pentsatu nuen, baina Iruñean bizi ginenez, eta Nafarroako Unibertsitatean medikuntza ikas daitekeenez, familiako kide batek medikun-

tza egitea proposatu zidan, gerora, nahi izanez gero psikiatria eginen nuela. Horrela hasi nintzen.

Eta gustatu zitzaizun...

Karrera luzea da eta ikasketen erdialdean krisialdi bat izan nuen. Garai zaila tokatu zitzaizgun. Baina ikastea beti gustatu izan zait eta aitzinera egin nuen. Sei urteko karrera eta lau urteko espezialitatea egin nuen. Psikiatria eta buruko patologia ez zitzaizkidalako gustatzen ohar-tu nintzen, harremanak eta bereziki pediatria nituela gustuko. Haurrak beti gustatu izan zaizkit, ez dago haur bat hazten ikuste baina gauza ederragorik, eta pediatrian espezializatu nintzen. Ez zen erraza izan, baina ez naiz damutu.

Lehen Mailako Arreta aukeratu zenuen...

Bai, ospitalean espezializatu nintzen, baina ez zitzaidan gustatu hurrekin nola lan egiten duten, eta Lehen Mailako Arreta aukeratu nuen. Hasi-erata hartan, Iruñeko Udalaren haur eskoletako pediatra izan nintzen lanaldi erdian, eta bertze erdian Garesen pediatra. Bi lanak hagitik diferenteak ziren, baina biak gustatu zitzaizkidan. Miseria bat irabazten nuen, ordea,

«DENBORA BAINO LEHEN JOAN NAIZELA ONARTZEA GOGORRA DA»

eta oposizioak gainditu eta Lesakako lanpostua hartu nuen. Ezagutzen ez nuen inguru batera etorri nintzen familiarekin. **Eta horrela ia 30 urte. Nolako balorazioa eginen zenuke?**

Ekainaren 1ean egin izanen nituen 30 urte. Lanagatik eta familiaren eguneroko ogia ziurtatzeko etorri nintzen, baina aunitz saiatu naiz eta aunitz disfrutatu dut. Gogorra izan da, eta gehien kostatzen ari zaidana denbora baino lehenagotik zergatik joan naizen onartzea izaten ari da, baina gainditu egin naute, ezin izan dut gehiago. Milaka istoriotara egokitu behar izan dut, bertzeak bertze, honat etorri eta inoren babesik gabe seme-alabak hazi ditugu eta pediatriaren bakardadea sentitu dut; dena hutsetik egin behar izan dut. Lorpenak haundiak eta urte politak izan dira, baina azken urteotan denak gibelerak egin du eta Lehen Mailako Arreta zer bihurtu den ikuste gogorra izan da. Onerako eta txarrerako, funtzionarioek tokatzen zaiguna egin behar izaten dugu, baina Lehen Mailako Arreta mota hau ez datorbat nirekin. Gainezka egin nuen aldi horietako batean erabaki nuen erretiroa hartzea.

«OSASUN ARAZO NAGUSIAK ASMA ETA OBESITATEA DIRA HEMEN»

Noiz izan zen?

60-61 urte nituenean erretiroa-rena begiratzen hasi nintzen eta bi urteren buruan jubilatzeko ahal nintzela ikusi nuenean, bi urte hala edo honela aguantatuko nituela pentsatu nuen. Baina orain pena sentitzen dut. Nire lana gustatzen zait, eta 63 urterekin, dakidan eta ikasten ari naizen guztiarekin, eta egiten ahal den guztiarekin, ez nagoela erretiratzeko sentitzen dut. Bat-batean gelditzea eta bidea nik gelditu dudala onartzea gogorra egiten ari zait. Behin, batek, sekula ez etsitze-ko erran zidan, aitzinera egin behar dela. Hemen krisi aunitz izan ditugu eta aunitzetan egin dut aitzinera, baina nire lanari eta betoa jarri diote, horrek haurrei emandako zerbitzuan eragina izan du, eta nekatu naiz. Beti izan naiz polemikoa eta borrokalaria, eta horrek badu ondorioa. Ez dut pena eman nahi, lanean gozatu dudala argi utzi nahi dut, aunitz ikasi dut eta kontent gelditu naiz egin dudanarekin. Familia aunitzekin sortu dudana harremana ere zoragarria izan da. Ez dut behin ere ulertu pediatrik zergatik ez duten etorri nahi izaten honat, lan polita baita.

Nolakoa izan zen Lesakan hasiera?

Deus baino lehen, jendearengana hurbildu behar izan nuen. Ez nintzen hemengo lehenbizi-ko pediatra izan, zerbitzua lauzpabortz urte lehenagotik hasia zen, baina aitzineko biak denbora laburrean aritu ziren. Hasi nintzenean, oroitzen naiz goizak hagitik luzeak egiten zitzaizkidalako, hiru, bortz edo zazpi haur bakarrik etortzen ziren. Jendeak pediatra pribatuengana joateko ohitura zuen, batzuk Irunera eta bertzeak Elizondora, baina poliki-poliki hurbiltzen hasi ziren. Etorri nintzenean pediatriako adina hamar urtetan zegoen, eta igotzen hasi zirenez, herritar gehiago artatzea tokatu zitzaidan. **Urte hauetan zein izan dira zure kezkek eta lehentasunak?**

Lesakan hasi nintzenean, asma kasu aunitz ikusi nituen. Gare-

sen bat edo bertze izan nituen, eta han obesitatea eta eskola porrota lantzeko programak garatu nituen, pediatria prebentzioa eta promozioa dela uste baitut. Baina hemen asmarekin hasi nintzen. Gainera, Iruñean ikasitakoa nintzen, nire erreferentziako profesionalak Iruñean zeuden, baina hemengo haurrak Gipuzkoara joaten zirenez, Irungo Korta medikuarekin harremanetan jarri nintzen. Asmaren inguruko ikerketa lan bat egiten hasi nintzen eta hasierako denboraldia horri dedikatu nion. Intentsioa izan zen. Hala ere, bertzelako programak ere martxan paratu nituen, bertzeak bertze, obesitatea lantzeko programa. Obesitate kasu aunitz ikusi nituen. Nafarroako edo bertze herrialdeetako datuekin konparatuz, hemengo osasun arazo nagusiak obesitatea eta asma dira. Gero konturatu nintzen obesitatea asmarekin eta alergiekin lotua zegoela. Nutrizioa lantzen ere hasi ginen. Lesakara etorri nintzenean, bularra ematen ez zioten ama aunitz aurkitu nituen, ez zerbaitek huts egin zuelako, hasiera-hasieratik ez ematea erabakitzen zutenak baizik. Pediatraren kontrola falta zen. Ordaintzen ahal zutenak Irunera edo Elizondora joaten ziren, baina ezin zutenek, beldurratik, bularrik ez ematea erabakitzen zuten. Hori berreskuratu beharra zegoen.

Desgaitasunaren gaia ere esku artean hartu zenuen...

Ikastetxeetara jo nuen eta denak harrিতuta gelditu ziren pediatria haurren garapenaz arduratu zela ikusita. Begi onez hartu zuten eta eskola porrota lantzeko programarekin hasi ginen. Lanean hasi ginenean, desgaitasunak zituzten haurrak ikusten hasi ginen. Ni etorri eta urte bat eta erdiko denboran, osasun arazo larriekin hiru haur jaio ziren. Iruñera joan bertze aukerarik ez zuten; baina alde batetik, hemendik urruti eta bertzetik, hizkuntza bertze trabak. Gaztelan ez zekiten haurrak eta familiak aurkitu nituen,



Belen Compains ia 30 urtez bere lantoki izan den Lesakako Osasun Zentroaren atarian. TTPI-TTAPA

eta Iruñera arreta goiztiarrera joan ahal izateko minusbalio-tasun balorazio bat egin behar izaten zen, eta gaztelan jakin gabe, ezin deus egin. Horregatik pentsatu nuen zerbait egitea. Hasiera hartan, beharra zuten haurrak Gipuzkoara bideratu nituen, han arreta goiztiarra Aspaceren esku zegoen. Baina bortsu kasu onartu zizkidaten. Borzgarrenean ikuskariak ez zutela finantzatu erran zidan, 0 eta 3 urte bitartekoak Iruñera Gizarte Ongizatera joan behar zutelako, eta hiru urtetik aitzinerakoak eskolara. Iruñeko haur eskoletan lanean aritu nintzenean, hango hurrek ospitalean, Gizarte Ongizatearen bidez arreta goiztiarrean, haur eskoletan... denetan estimulazioa

lantzeko aukera zuten, eta hemen ez zegoen deus. Arreta goiztiarraren zerbitzua hemen eman behargenuela planteatzea otu zitzaidan, edo Gipuzkoan egiten zuten bezala kontzertatuta egitea, baina orduan hartu nuen nire lehenbiziko kolpea. Protagonismo nahia eta hiri-buruko handinahikeriarekin heldu nintzela leporatu zidaten. Oraindik ere zaila egiten zait ententitzea. Desgaitasunaren gaia arazo handia da, Iruñean

«ARRETA GOIZTIARRA LORTZEA PAUSO HAUNDIA IZAN ZEN»

haundia baldin bada, hemen oraindik haundiagoa. Hemen desgaitasuna zuten haurrak etxean gelditzen ziren edo ez ziren etxetik ateratzen, eta batzuetan baldintza gogorretan edukitzen zituzten, lotuta. Ez zituzten eskolara eramaten... Zerbait egin nahian Anfasekin harremanetan jarri nintzen, eta hori ere aurpegiratu zidaten. Baina ongi lan egin genuen, eta bulego bulego ibili ondotik, arreta goiztiarraren zerbitzua lortu genuen. Pauso handia izan zen, beharbada egin dugun lorpenik haundiena.

Nola hasi zineten?

Arreta goiztiarrekoak Iruñetik haurren balorazioa egitera etortzen hasi ziren, eta ondotik, Anfas kontratatzen zuten tra-

→ tamenduaz arduratzeko. Horretarako espazioa bilatzea ere ez zen erraza izan. Osasun zentroko gela bat proposatu nuen, baina osasun zentroak ez du sekula ulertu arreta goiztiarraren beharra. Eta saltsa horren erdian, Lesakako Udalaren erabilera anitzeko aretoa lortu genuen, eta osasun zentroan gelarik gabe gelditu ginen. Lesakako Udalak aretoa utzi izan ez baligu, zerbitzua Donezteben izanen litzateke. Niri Lesakan ez didate sekula onartu, baina Doneztebeko Osasun Zentroan bada horretarako lokala. Argi dago elkarlanean, eta nahi izanez gero, gauzak lortzen direla; bertzela ez. Eta bertze kontu bat; baliabideak lortzea aunitz kostatzen da, baina mantentzea ere bai.

Gaur egun zertan da zerbitzua?

Gaur egun zerbitzua eskaintzen segitzen dute. Haurrek balorazioa egitera Doneztebera joan behar dute, nahiz eta ahal badute Iruñera bideratzen dituzten. Urteekin bertzelako zerbitzuak ere lortu dira, estimulatzailea, logopeda, fisioterapeuta... Bada zerbitzua, baina aldatu da. Azken zortzi urteotan arreta goiztiarraz Anfaz arduratzen da, baina zerbitzua inguru naturalean lantzearen aldeko apustua egin du eta etxeetara joaten dira.

Adin tartea zabaltzen saiatu zinen...

0 eta 3 urte bitartekoez arduratzeko arreta goiztiarra lortuta, sei urtera bitartekoekin lanean hasi nahi izan nuen, baina arazoak izan genituen. Ikasle guttiko garaiak ziren, ikastetxeak ikasleak lortzeko gerran... Ikastetxeetako ordezkariak lantaldetik atera ziren euren ikastetxeetan desgaitasuna zuten haurrik ez zutela erranez. Horixe bazituztela, izen-abizenak erran izanen nitzkien, baina ez zuten nahi. Garai hartan, desgaitasunari buruzko jardunaldi batzuk antolatu nituen, eta desgaitasun moderatua eta larria zuten 42 haur zenbatu nituen, desgaitasun arina zutenak kontuan hartu gabe.

Eta zer gertatu zen?



Urteotan hainbat jardunaldi antolatu ditu Compainsek, baita parte hartu ere. Argazkia 2018an EHuren udako ikastaroetan hartua da.

Lantaldea horrela gelditzea kolpea izan zen, baina lanean segitu genuen. Babesa nahi zuten gurasoak nituen inguruan, eta ate bat eta bertzea joz, lanak banatzeko adostasun batera ailegatu ginen Anfasekin eta Aspacerekin. Anfaz desgaitasun kasuez arduratuko zen, eta Anfasek dinamizatutako familia talde bat ere sortu zuten. Aspacetik, berriz, aisialdirako programa bat proposatu zuten. 2017 aldera arte iraun zuten, krisiarekin programa alde batera gelditu zen. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin lanean hasi ginenean, gizarte zerbitzuek gurasoen bertze talde bat sortu nahi izan zuten. Ordurako bertze patologia batzuk zituzten haurren belaunaldi bat zegoelako eta familiak, gizarte zerbitzuetako ordezkariak eta osasun arloko ordezkariak hilabeteetan behin biltzekotan gelditu ginen, familiei nola lagundu ikusteko. Gaiari ikusgarritasuna ematearen garrantzia lantzen hasi gi-

nenean jaio zen Enaitz Iparragirre, eta bere gurasoek babes handia hartu zuten Berako Labiaga Ikastolan. Salto handia eman zuten eta gizartearengana hurbildu ziren. Horrek gaia mahai gainean paratu zuen eta hortik abiatuta, Berako Ricardo Baroja eskolan behar berezikoentzako gela bat sortu genuen, arazoak zituzten haur gehienak ikastetxe horretan baitzeuden. Baina hor ere arazoak izan genituen: integrazioa, inklusioa... Ama batek erran zidan bezala, hau oztopoen lasterketa bat da, bat gainditu orduko bertzea dator, baina aitzinera egin behar da.

Oztopo aunitz izan dituzula erraten ari zara. Azalduko zenuke?

Bai, oztopo eta saltsa aunitz. Lana polita da eta horrek bete izan nau, baina hagitz gogorra da. Ni bertze pediatrek egiten zutena egitera mugatzea nahi zuten, eta lan aunitzekin egon garenean egin izan dut, baina hori ez da lan egiteko modua. Haurrak behar bezala artatuak

ez badira, arazo aunitzez ez gara ohartzen. Pena da, baina inguruan haurtzaroz duten kontzeptua ez da nik dudana.

Umiliatua sentitu zarela erran izan duzu...

Bukaeran umiliatua sentitu naiz. Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta osasun zentroan bertan gure eztabaidak izan ditugu... Haurren garapenerako zentroa sortzeko bidea hasi genuen, baina gizarte zerbitzuetan proiektua ambiziozuegia zela erran zidaten. Eta hara non, garapeneko zentro horren ideia hartuta eurek nahi zutena egin zuten... Eta desgaitasuna gogorra baldin bada, zer erranik ez tratatu txarren gaiarekin. Aunitzetan tokatu zait aurpegia ematea eta epaketetan ere ibili naiz. Ni ere hemengo herritar bat naiz, eta gogorra izan da tratatu txarren kontu horrengatik jendea gibelatik izan baitut. Sarean lan egitea proposatzen nuen, baina ez ginen ados jarri. Gauza bat eta bertze, gizarte zerbitzuetan ez zuten nirekin lanean segitu nahi izan. Atera kontuak, pediatrarik gabeko haurren sarea sortu zuten. Kasualitatez enteratu nintzen, baina garbi adierazi zuten ez zutela nahi ni joatea. Nireganako gaitzespena argia zen. Arazoa ez zen pediatra, arazoa

«BALIABIDEAK LORTZEA KOSTA EGITEN DA, BAITA MANTENTZEA ERE»

«LEHEN MAILAKO ARRETA HAGITZ IZORRATUA IKUSTEN DUT»

Belen Compains zen. Eta hala-ko hainbat kasu izan ditut. Edoskitze programan, adibidez, pediatria kanpoan utzi izan dute. Lesakara etorri nintzenean edoskitzea arront utzia zegoen, baina urteekin Nafarroa mailan lehenbiziko postura pasatu ginen. Azken boladan, berriz, haur pila bat egunez eta gauez tititik zintzilika ikusi ditut, baina grafikoetako kurbetatik beheiti. Niretzat hori desnutrizioa da, eta gurasoei, behar denean, biberioa emateko erran behar zaie, hasierako etapetan izandako alterazioak ez baitute bueltarik. Handiketa hementik trabak paratu dizkirate, baina harro nago egin dudana-ekin, eta krisialdi horiekin neure burua gehiago maitatzen ikasi dut. Lankideek Lan Osasunera ere eraman izan naute, baina onartuko dizut, morala igotzeko balio izan dit, pediatria bezala denek ongi baloratzen nautela ikusi dut.

Zer diozu Lehen Mailako Arretaz?

Beti bazterrean gelditu izan da eta gaur egun nahiko izorratua ikusten dut, hondoa jota eta desagertzekotan. Gero eta erizain gehiago paratu dituzte, baina medikuekin kexu dira. Haur ez da nik ezagutu nuen Lehen Mailako Arreta. Erizaintzaren aldeko apustu haundia egin dute Nafarroan, sistemak gaizki funtzionatzen du eta medikuak joaten ari dira.

Erizainei ematen ari diren garrantzia kritikatu izan duzu. Zergatik?

Diotenez, erizainak erabat presatatuak daude. Lau urteko ikasketak egin dituzte, eta gure maila eskatzen ari dira. Guk sei urteko ikasketak eta bertze lau urteko espezialitatea egin dugu, eta aunitzetan pediatriak izan gara eurei formazioa eman diegunak. Lehenbiziko jatera eman eta gero ausiki... Badira hagitz ongi lan egiten duten erizainak, baina bi edo bertz orduko saio bat hartuta ez dira adituak bihurtzen. Erizainak poliki-poliki indartzen joan dira. Eta hala etorri zen hobekuntza plana, eta horrekin erizainak sarrerako atea bihurtu dira. Hamabortz



Oztopoak izan dituela dioen arren, lanean aunitz gozatu duela eta aunitz ikasi duela aitortu du Compainsek. TTIPI-TTAPA

urte daramatzate horretan eta ez dute demostratu. Hori agerian gelditu zen abenduan, mediku faltagatik Bortzirietan neurriak hartu zituztenean. Herritarrek osasun zentrora deitzen zutenean lehenbizi administrariak galbahetzen zuen deia, pazienteari lehen-tasuna emanez edo ez gauzak gaizki egiteko arriskua bere gain hartuz. Hurrengo galbahea erizainak pasatzen zuen, eta azkena, beharrezkoa zela ikusiz gero, medikuak. Zer gertatu zen? Ezin izan zutela zaurgarriengana eta gaixo kronikoen-gana ailegatu. Agerian gelditu da ez administrariak, ez erizainek ez dituztela arazoak detektatu eta lehengora bueltatu dira. Erizainak ez dira medikuak eta ez daude prestatuak ardura hori hartzeko. Medikuari medikatzaileria eman nahi digute, industria farmazeutikoekin elkar hartuta bageunde bezala, eta irudi du erizainak osasun sistema humanizatzerako etorri direla.

Abenduaren 21ean jubilatutako zinen. Nola sentitu zinen?

Beti bezala, ezeztatua, bigarren planoan... Pediatriako kontuak ez dira inoiz garrantzitsuak izan.

Eta geroztik?

1.400 haur artatzera ailegatu naiz, 107 jaioberrirekin. Hori Nafarroan edo Gipuzkoan ez du inork egin. % 150 lanean ari nintzen, lana poliki-poliki utzi nahi nuen eta helburu horrekin hainbat ate jo ditut. Erretiro aktiboaren aukera ikusi nuen, baina 65 urtetan jubilatuta bakarrik posible dela erranzidaten. Erretiro partziala ere aipatu zidaten eta astean bi aldiz paziente kronikoak eta azterketak eginez lanean segitzea proposatu nuen. Osasun Departamentuan Gizarte Segurantzian

«ERIZAINAK EZ DIRA MEDIKUAK, EZ DIRA PRESTATUAK HORRETARAKO»

bueltaka ibili ondotik, oraindik ez didate erantzun. Abenduaren 29an, jubilatutako medikuak kontratatzeari buruzko dekretu bat onartu zuten Madrilen, eta hor espresuki ageri da 63 urterekin ezin dela. Aktiboen-engoenean, bazuten kontratatze-ko aukera, baina ez zuten egin. Horrekin batera, jubilatuen artean ikerketan eta irakaskuntzan aritzeko foru agindu bat atera zuten, eta horretarako aukera onartu didate. Hala ere, sortu dudana sare horren parte izaten segitzeko aukerarik ez dudala izanen ikusteak pena ematen dit.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Haurtzaroz gehiago arduratu beharko genuke, eta batez ere, desgaitasuna duten haurrei erreparatu beharko genieke. Haurren garapenerako zentro publikoa beharrezkoa ikusten dut. Badira pribatuak, baina ez daude denen eskura, eta ezin dugu aberatsen eta pobreen medikuntza onartu. Argi dago lan egin beharra dagoela.

Hariztia, munduari begiratzeko leihoa

Berako Erentzungo lepoan harizti bat landatu du Asier Gogortza argazkilariak. Berako eta Urruñako udalek sustatu dute proiektua, eta orain, hariztia sortu bitarteko prozesu guztia argazki liburu batean bildu du. «Sormen laborategitzat» dauka hariztia Gogortzak

A. LARRETxea BERA

Ikuspuntu bat, munduari begiratzeko leiho bat. Horixe da Erentzungo lepoan Asier Gogortza argazkilariak sorturiko hariztia. Hori bakarrik, eta hori dena aldi berean. «Bizitza guztirako proiektu bat izaten ahal da», dio. «Horrek modu batean beldurra ematen ahal dizu, baina zerbaitetan aritu behar duzu zure bizitza guztian». Erentzungo lepoan, Urruña eta Bera arteko mugan elkartu da Gogortza TTIPI-TTAParekin, 2021eko irailetik hariztia landatua duen lekuan. Bista paregabeak ditu alde guztietara parajeak: Iparraldera itsasoa ikusten da, Donibane Lohizuneko badia, Miarritze, Baiona eta eguraldi garbia delarik baita Landakere; ekialdera Larhun; hegoaldera Bera eta inguruko mendi tontorrak eta mendebaldera Mandolepoko gaina eta haren azpian Ibardingo bentak.

2019an abiatu zuen proiektua ustekabeen. Aunitzetan egiten zuen garaian Bera eta Biriatu arteko bidea bizikletaz, tartean Ibardin eta Urruña pasata. «Itzuliaren zati politena Tomaseneko bidea da niretzat, Urruñako lurretan. Larhun mendiaren begiradapean zozela, Beñatbaita baserriaren ondoan, hantxe agertzen dira bi haritz dotore horiek, inguruko lurralde guztiaren jaun eta jabe. Bertatik pasatzen nintzen aldiro miresten nituen». Egun batean, gelditu eta bizpahiru ezkur hartu zituen. Etxera ailegatzeko bi erabaki hartu zituen: «ezkur gehiago biltzea, eta landareak nola

sortzen diren ikustea». Urtea bukatzerako 100 baino gehiago zituen etxean. «Banuen susmo edo ideia bat: 100 haritz badituzu etxean hori bada paisaia potentzial bat».

Udaberriaren eraldia

Etxeko konfinamendu betean konturatu zen etxean zituen ezkurak banaka-banaka erretzen hasi zirela, eta landare sortu berriei izenak paratzen hasi zen. Izena pintza batean paratu, *Berria* egunkariko orrialdeetan bildu, eta landatutako ezkur horiei argazkiak egiten hasi zen. Horrela sortu ziren, gerora haritz bihurtzeko prozesuan diren Wuhan, Pangolin, Artze, Vernungungen edo Tripoli. Aldi berean, hasi zen eraldutako ezkur horiekin argazki lanak ere sortzen.



Haritzekin sortutako lana. A. GOGORTZA

**2019 URTE
BUKAERARAKO 100
EZKUR ALE BILDU
ZITUEN**

Udaberriarekin bat, eraldutako ezkurak gero eta handiagoak zirela, horiek landatzeko ordua zela pentsatu zuen, eta Berako Udalera jo zuen. Ezkurak herri lurretan landatzeko baimenarekin, eta herriko mapa batekin atera zen bertatik. Berehala hautatu zuen Bera eta Urruña arteko Erentzungo lepoa landaketarako. Berako Udalarekin lan egiteaz harago, Urruña ere inplikatzeko ekarri zuen erabaki hark. Hasieratik ongi hartu zuten urruñarrek enbidioa, eta geroztik elkarlanean aritu dira: «Mugaren marra pasatzen da hariztiaren erdi erditik, erdia Urruñakoa da, eta bertze erdia Berakoa. Hariztia elkarrekin harremanak izateko aitzakia ere bada, eta erraza izan da biak inplikatzeko».



Haritzen collagea. A. GOGORTZA

**HASIERATIK
INPLIKATU DIRA BI
UDALAK
PROIEKTUAN**

Geroztik, hariztiak landatu, eta hainbat esku hartze egin dituzte bertan, tartean haritzak babesteko babeslekuak paratzea, eta ondotik, baita zerrakurak paratzea ere, betiere bi herrien arteko elkarlana oinarri. Tartean haritz batzuk kendu behar izan dituzte hilik zirelako, eta berriak landatu.

Berriki, hariztiaren prozesu guztia biltzen duen argazki liburu kaleratu du Gogortzak, hau ere bi udalekin elkarlanean, eta etorkizunean ere «urtero beharbada ez, baina bi edo hiru urterik behin» liburuxka berri bat egiteko proiektua dute. «Argazki liburu bat da, edukiontzia bat nire burutazioak hor sartzeko. Gehiago interesatzen zait hori, hemendik 15 urtera nire begirada nolakoa izanen den, eta ez hariztia nola egonen den».

Liburuaren 200 ale bakarrik egin ditu, eta bera izan da edizio prozesu osoaren ardura-duna: «Hagitik kontent egin dut, astia hartu dut, eta noski bi udalen babesa izateak eman dit aukera edizio txukun bat egiteko». Euskaraz eta ingelesez kaleratu du liburuak, bi hizkuntzatan liburuak ikuspegi lokalaz gain ikuspegi unibertsala duela iruditzen zaiolako. Ingelesarena nahita hartutako erabakia izan da, gainera. «Ingelesa hartuta gaztelaniaren eta frantsesaren gainetik salto egiten duzu, eta uste dut gehiagotan hasi beharko genukeela hori egiten, gure barreneko itzultzaile automatiko hori itzaltzen», azaldu du.

Geruza aunitz

«Jendearen interesa piztu du proiektuak, eta erranen nuke hainbat mailatan», aitortu du Gogortzak. Interesa, alde diferentetarik sumatu du: «Aunitzek tokiarengatik, bertze batzuk oihangintzaren aldetik, lurraldetasunarengatik bertzeek, eta arte proiektuari ematen diote garrantzia bertzeek». Hala, «geruza» aunitzeko proiektua dela dio, eta «geruza berriak deskubritzen dituela aldiro».



Hariztira joan aldiro enkoadraketa berarekin ateratzen du argazkia. Argazki horiekien osaturiko muntaia da hau. A. GOGORTZA

Gainera, argazkilaritzaz kanpoko gauzak ikasteko ere balio izan dio: haritzak hazteko zenbat denbora behar duten, bortz urteren buruan krisi garaia izaten dutela, kontrara dituzten elementuak... «Orain kontzientzateago naiz horretaz», azaldu du.

Sona, gainera, ez du herrian bakarrik lortu, baita kanpoan ere. Proiektua ezagutarazteko Twitterreko hariak egin izan ditu tarteka, eta horrek ekarri du jende gehiagorengana, eta baita prentsarengana ere zabaltzea. Eta orain liburuarekin ere nabaritu du hori «Euskal Herriko eta kanpoko oihartzunak» jasotzen ari baita. Harrearekin «pozik» dagoela dio, «bide polita» egiten ari dela iruditzen zaio, baita kanpoan ere. «Proiektuaren politena da etorkizunera begira ez dakidala zer bide hartuko duen. Segitu beharko dut erabakiak hartzen, eta horrek eramanen du hariztia toki batera edo bertzera».

Nahiago du, etorkizunera baino gehiago, orainera begira bizi, horregatik ez du gehiegi pentsatu etorkizunean hariztiak izan den forman. Hariztia gauza aunitz izaten



Vernungunen harizta. ASIER GOGORTZA

**HARIZTIA
«ORAINKO»
PROIEKTU BAT
GOGORTZARENTZAT**

ahal dela dio «geometrikoki borobil bat ikusten da eta borobilak batzarleku antzeko bat sortzen du, begiratoki bat ere izaten ahal da». Egunaren araber, gauza bat edo bertzea



Gogortza Vernungunegenekin.

**MUGARI BURUZ
HAUSNARTZEA DA
ARTISTAREN
ASMOETAKO BAT**

irudikatzen du, baina, nahiago du sobera urruti ez pentsatu: «ez da erraza planak egitea bi urtera, ba pentsa 20 urtera egitea zer den, horrek frustrazio handi batsortzen ahal dizu». Horregatik dio «oraineko» proiektu bat ere badela: «Proiektua bere fruituak ematen hasi da, ez dakit haritzak handituko diren, baina sortu diren interakzioak, harremanak, liburu eta arte emaitzak hor daude eta hor geldituko dira».

Izenarena bada proiektuak duen bertze berezitasunetako bat, landatuta dauden haritz bakoitzak duelako bere izena. Lehendabiziko argazkia egin aitzinetik, *Berria* egunkari orri batekin biltzen zituen, eta bertatik ateratzen zuen haritz bakoitzaren izena. Nahiz eta hariztian bakoitzaren izena ez paratu, apuntatua du bakoitzarena. «Kuriosoa da, hemendik 20 urtera ikusten ahalko delako zein hitz ziren 2020an, nolabait emanen dute 2020 horren berri hemendik 50 edo 100 urtera, eta bada memoria ariketa bat ere».

Hariztia sormen laborategia

Gogortzarentzat hariztia «aitzakia» da, bere argazkilaria lana egiteko. «Laborategi bezala erabiltzen dut, eta beti egiten ditut argazkiak». Duela urtebetetik, adibidez, hariztira joan aldiro egiten du argazki bera, enkoadraketa berarekin. Horrek paisaia nola aldatzen den ikusteko balio dio, eta baita «esperimentaziorako» ere. «Hariztia paisaiaren laborategia da, eta argazkilaritza aldi berean bada aitzakia paisaiari buruz, lurraldeari buruz eta horrelako gaiiei buruz solastatzeko». Aldi berean, mugaren auzia bada hariztiaren, eta argazkilaritzaren bidez landu asmo duen gaietako bat. «Hariztira begiratzen baduzu hemen ez da muga ageri, lehenengo muga gure buruetan dago, eta gure esku dago horren kontra ere egitea, eta horri buruz hausnartzeko tokia eta proiektua ere bada».



Proiektuaren parte diren erakundeetako ordezkariak. NAFARROAKO GOBERNUA

Mugaz gaindiko Larhun-E proiektua aurkeztu dute

Denera 2,6 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute proiektua garatu ahal izateko

A. LARRETXEA

Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoen Departamentuak Larhun mendiaren ingurua elkargune gisa biziberritzeko mugaz gaindiko proiektua landu dute. Bi erakunde horiekin batera, Berako, Sarako, Urruñako eta Azkaineako udalek, Euskal Hirigune Elkaragoak eta Nasuvinsa dira proiektuaren parte. Martxoaren 14an udalean egindako aurkezpenean jakinarazi zituzten proiektuaren nondik norakoak.

Denera 2,6 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute proiektua garatzeko, POCTEFA

mugaz gaindiko lankidetzarako Europako programan aurkeztuko dute finantziazioa lortu asmoz. Proiektu orokorra hiru urterako pentsatua da.

Proiektua hainbat fasetan gauzatu dute. Lehenengo fasean inguruan auden azpiegitura eta sareen azterlana egingen dute, tartean ur horni-

PROIEKTUAREN ASMOA EZ DA BISITARI GEHIAGO ERAKARTZEA

dura, saneamendua, hondakinen kudeaketa eta lehen mailako zerbitzuak aztertuko dituzte.

Bigarren fasea, espazioaren salbuespeneko ondare natural eta kulturalaren balorizazioari buruzkoa izanen da. Larhun Natura 2000 eremuaren barne dago, eta naturagune zabaldu eta ezagutaraztea izanen da asmoa. Horretarako, hainbat mendi bide berreskuratuko dituzte, memoria historikoa berreskuratzeke ekintzak egingea aurreikusten dute, baita trenaren inguruko historia ezagutaraztea ere. Azken atal bat gunearen mugaz gaindiko errekonozimenduari buruzkoa izanen da, hau da Larhun mugaz gaindiko errealitate ukazina aitortzea.

«Bisitari gehiago ez»

Aitor Elexpuru herriko alkatearentzat naturagune ederra den Larhongo gailurra babes- tu eta balioa emateko bidea irekiko du proiektu honek. «Euskal Herriaren historiaren parte garrantzitsua da Larhun, duen mugako izaeragatik. Elkargunea izatea nahi dugu, bertako paisaia ederrez eta ondareaz gozatzeko jarraitu dezagun guk, eta ondorengo belaunaldiek». Elexpuruk argi utzi du proiektuaren helburua ez dela «bisitari kopurua handitzea», baizik eta bisitari horiei zein Larhun parte diren bentetako langileei edota artzainei, erraterako, azpiegitura hobek eskaintzea.

'En la sangre' liburuaren aurkezpena 24an

Igone liburu dendak antolatuta, *En la sangre* liburuaren aurkezpena izanen dute ortziraletan, hilaren 24an 18:00etan liburutegian. Beran girotutako liburua da, eta Susana Rodriguez idazleak berak parte hartuko du aurkezpenean.

Agerra Mendi Taldearen irteera igandean

Igandean, martxoaren 26an aurtengo hirugarren irteera egingen du Agerra Mendi Taldeak. Oraingoan, Ibardinen abiatu eta Xoldokogaina mendiarantz itzulia egingen diote. Ondotik, bazkaria izanen dute Mendiko sagardotegian. Aitzinetik eman behar da izena.

Willis Drummond kontzertua 30ean Katakun

Harreman estua du Lapurdiko Willis Drummond taldeak Berarekin, eta berriki abiatu duten *Gure Tokiak* biraren barrenean kontzertua emanen dute hilaren 30ean Katakun ostatuan 20:00etan. Sarrera aitzinetik erosi behar da eta 10 euroko prezioa du.

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIAL
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legla, 23 - BERA

KATEA BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa.
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MERIDA
BERGAMONT BH coluer LOOK

Energia komunitatea sortzeko prozesua martxan

Berako Udalak sustatu du parte hartze prozesua. Hilaren 30ean bilera egingen dute nondik norakoak azaltzeko

A. LARRETXXEA

Energia ereduari buruz hausnartu eta burujabetza energetikorantz urratsak eman nahi dituzte herrian ere, eta horretarako, udalak sustatuta partaidetza prozesu bat hasiko dute Energia Berriztagarrien Komunitate bat sortzeko. Herriarren, eragile publikoen eta enpresen interesa piztu nahi dute Energia Komunitate bat sortzeko partaidetza prozesua hasteko.

Energia Komunitateasortzeak ondorio positiboak ditu sustatzaileen hitzetan: energia oinarrizko eskubidea dela aldarrikatzen du; energia eta klima krisiari aurre egiteko benetako aukera da; subiranotasun energetikoaren norabidean egingen den urratsa da; energia berriztagarriak sustatzen ditu, eta ondorioz, energia fosilen erabilera murrizten laguntzen du; Berako energia beharrei erantzuten laguntzen du, bere baliabideak erabiliz eta tokiko konponbideak eskainiz; herrian ekioitzitako energia kontsumitzeko aukera ematen du; tokiko ekonomia

sustatzen du; energiaren kontsumo arduratsua eta iraunkorra sustatzen du, kontsumo ohituretan eraginez eta, beraz, argiaren faktura murriztuz; pobrezia energetikoari aurre egiteko ekimenak susta ditzake eta beratarren beharrak eta interesakontuan hartuko ditu.

Bilerak Goienerren eskutik

Energia komunitate bat zer den ezagutarazteko, martxoaren 16an faktura eletrikoa uler-tu eta murrizteko tailerra egin zuten Goinerreko teknikariek. Heldu den ortzegunean, hilaren 30ean, aldiz, Energia Komunitate bat zer den ezagutarazteko tailerra egin nahi dute. *Zer da Komunitate Energetiko bat?* izena du solasaldiak, eta 19:00etan egingen dute Beralandetan.

Solasaldien helburua da, energia oinarrizko eskubidea dela gogoraztea eta subiranotasun energetikorako aukera ezagutaraztea; komunitate energetiko bat zer den ikustaraztea eta herritarra energia komunitate bat sortzera sustatzea.



Ricardo Baroja eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak landaketak egiten. UTZITAKOAK

Bertako 80 haritz landatu dituzte Ricardo Baroja eskolako ikasleek

TTIPI-TTAPA

Ricardo Baroja eskola publikoak, udalak eta Rural Kutzak elkarlanean mendiaren inguruko jardunaldiak egin dituzte. Udalak urtero egiten dituzte zuhaitz landaketak, eta aurten Rural Kutzaren dirulaguntzarekin, eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek eta irakasleek

80 haritz landatu dituzte Arregi parajea.

Lehenik eskolan Mikel Baztan adituarekin zuhaitzen eta beren funtzioen inguruko ikastaroa egin zuten, eta biharramunean landatu zituzten bertako 80 haritzak. Landa-ketan izan ziren udaleko eta Rural Kutzako ordezkariak.

Zaintza sistema jopuntuan martxoaren 8an

Dozenaka emakume bildu ziren Emakumearen Nazioarteko Egunean Goldatz talde feministak egindako kontzentrazioa. «Zaintza sistema komunitarioa» eraikitzeke aldarria egin zuten.



JARONE-GOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Alzate, 21 • BERA

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
- Sagardo ekologikoa
- Sagardotegiko menua
- Asteartetik larunbatera afariak, ostiralean, larunbatean eta igandean bazkariak

LABE ZAR
Astelohenetik ortziralera: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

zelaín
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria astelohenetik ortziralera
Zelaín Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelaín.info

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

192.000 euroko aurrekontua izanen du Beti Gaztek

Martxoaren 4ko batzarrean aipatu zenez, inoizko bazkide kopururik handiena du elkarteak, 1.545 lagun

AITOR AROTZENA

Beti Gazte elkarteak martxoaren 4an egin zuen urteko batzar orokorra. 192.000 euroko aurrekontua onartu du aurtengorako eta inoizko bazkide kopururik handiena du, 1.545 bazkide.

Joan den urteko ekitaldi berdintsuak eginen dituzte aurtenera. Bazkide kuotak eguneratzearen eta igotzearen alde ziren bazkide batzuk, baina gehiengo mantentzearen alde agertu zenez, iazko kuota bera ordaindu beharko dute. Gainerako puntu guztiak ahobatez onartu ziren.

Zuzendaritza batzordean ere izan dira aldaketa batzuk. Honela, idazkaritzan, Xabier Iribarren Telletxea eta Alberto Muruzabal Lorea sartuko dira, Modesto Maia eta Lourdes Danborienaren orde eta Paola Oskoz Mazizior izanen da komunikazio arduradun berria, Olaia Otxotekoren orde. Lehengo talderik lanean segituko dute Ander Abuin Yepes lehendakariak, Nora Eneterreaga Etxepare lehendakari orde eta instalazio eta



Beti Gazte elkartearen batzarra.

material arduradunak, Idoia Sunsundegi Irigoien diruzainak, Argiñe Ordoki Urkixo kirol koordinatzaileak, eta Amaia Telletxea Mendigutxia eta Alaia Altzugarai Legazkue kultur koordinatzaileak.

Ipar martxa ikastaroa

Bertze aldetik, San Fermin jubilatuen elkarteak, udalaren laguntzat, ipar martxa hastapen ikastaroa antolatu du martxoaren 25ean, larunbatean 10:00etatik 13:00etara Harriondoan. Txartela erosteko azken eguna martxoaren 22a da eta San Fermin elkarteak bazkideek 15 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 35 euro.



IRANTZU PASTOR

Egungo zaintza sistema iraultzeko eguna

Martxoaren 8a borroka eguna dela oroitarazi zuen Xulufriak Lesakako Sare Feministak emakumearen egunaren harira antolatutako hitzorduetan; «eta ez politikari batzuek erraten duten bezala, besta egiteko egun bat». Zaintza lanen inguruko tertulia eta elkarretaratzea egin zuten plazan.



BETI GAZTE

Osasun holistikoaz solasaldia

Neli Yancik, osasun holistikoan adituak, *Gaixotzen gaituzten emozioak; ezagutzen ahal dituzu? Ikasi nola kudeatu solasaldia eman zuen martxoaren 11n liburutegian. Jende aunitz bildu zen Beti Gaztek, Argi-leku bioskolaren eta udalaren laguntzarekin antolatutako hitzaldi arrakastatsuan.*

Edoskitze tailerrak eginen dituzte martxotik ekainera

A. AROTZENA

Lesakako Osasun Zentroak jakinarazi duenez, edoskitzearen inguruko bostz tailer eginen dituzte martxotik ekainera bitarte. Silvia Martinez Duque Osasun Zentroko pediatriako erizainak eta Marilen Telletxea Bertiz erizain komu-

nitarioak eta emaginak zuzenduko dituzte saioak.

Tailerrak martxoaren 23an, apirilaren 27an, maiatzaren 25ean, ekainaren 1ean eta ekainaren 15ean emanen dituzte, udalaren erabilera antzetzeko gelan, 12:00etatik 13:30era.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA


Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12



Beti Gazteko tiralariak, futbolariak egindako pasilloan. A. AROTZENA



Ander Mitxelena, txapeldun gazteena.

Ongietorri hunkigarri eta beroa egin diote sokatira taldeari

Munduko sokatira txapelketatik bederatzi dominarekin bueltatu diren Beti Gazteko tiralariak harrera ederra izan zuten

A. AROTZENA

Ipar Irlandan jokaturako Munduko sokatira txapelketan inoizko domina uzta handiena lortu ondotik Lesakara bueltan ongietorri beroa izan dute Beti Gazteko tiralariak martxoaren 12an.

Autobusetik jautsi eta Mastegi futbol zelairako bidea herritarrek egindako pasilloan, musika bandaren laguntzaz egin zuten tiralariak. Mastegin, ligako partida bukatu berria zuten futbol talde nagusiko jokalariek egin zieten zelai erdira bitarteko pasilloa eta han, elkarteak emandako oroi-

garriak (zapiak, lore-sorta...) hartu zuten, mundialetik ekarritako dominak harro erakusten zituzten bitartean. Josu Sanjurkok bertso ederra bota zien eta gero, berdez apaindutako traktorera igo eta herriaren barna ibili ziren tiralariak, herritarren txalo zaparradaren artean.

Bederatzi domina

Ongietorria handia izan zen, baina Beti Gazteko Ipar Irlandako mundialean lortutakoa ikaragarria eta, seguruenik, errepikaezina da. Kirol orrialdeetan informazio zabalagoa

duzue, baina aipagarrienak aipatuz, klub arteko txapelketan urrezko domina lortu zuen gizonezkoen 560 kiloko taldeak, hemeretzi urte beranduago berriz ere munduko txapeldun izatea lortuz. Orduan oraindik jaio gabe zegoen Ander Mitxelena, 18 urteko tiralariak, orduan ere txapeldun izan ziren Karmelo aitarekin eta Joxe Angel osabarekin lortu du urrezko domina. Klub artekoan zilarrezko bertze lau domina lortu dituzte. Baina nazioartekoan ere, Euskal Herriarentzat lehen urrezko domina lortu dute Beti Gaztekoek, txapelketa mistoan. Hemen ere Karmelo eta Ander Mitxelena aita-semeak aritu dira, Beñat Ordoki eta Beñardo Iantzirekin batera eta lehen aldiz munduko txapeldun izan diren lau emakume: Irantzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Ainhoa Etxegarai (Bera) eta Maria Iantzi (Igantzi). Zilarrezko bi domina eta brontzeko bat lortu zuten nazioartekoan.

Tantirumairuko helduen dantza ikuskizuna

Joan den larunbateko Tanti-rudantza jaialdiaren ondotik, Tantirumairu Euskal Folklore Taldeko helduen dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du martxoaren 25ean, larunbatean 19:00etan Harriondoan. Sarrerak 2 eurotan salgai daude Xagun eta Telletxean.

Antzerki emanaldia igandean ikusgai Harriondoan

Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi antzerki emanaldia eskainiko du Kamikaz Kolektiboak eta Ttak Teatroak martxoaren 26an, igandean 18:30ean Harriondoa kultur etxean. Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola eta Iraia Elias ariko dira taula gainean.

'Nola iruzkindu liburu bat' apirilaren 1ean

Literatura geraldien barnean, Lesakan izanen da Bortzirietako lehenbiziko saioa. Apirilaren 1ean, larunbatean 10:00etan, Mikel Ayerbe EHUko irakasle eta kultur kritikariak gidatuko du tailerra: *Nola iruzkindu liburu bat*. Arrano Elkartearen izanen da.

Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pensioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

Sute Elkartearen ez ohiko batzarrea larunbatean

Kultur Etxean 10:00etan egingen den bileran eztabaidatuko da zein izanen diren eman beharreko hurrengo pausoak

IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko Sute Elkartea duela urte aunitz, herria eta herritarren bizimodua bertzelakoak zirenean sortu zen. Garai haietan, etxeek normalki ez zuten sute aseguru eta egoera honi erantzuteko herritarren elkartasunetik sortu zen elkarte.

Gaur egun, etxe gehienek badute aseguru, eta sute batean elkartetik lortzen den dirua laguntza bat bertzerik ez da. Hala ere aipatzekoa da, modu eraginkorrean denbora gutiz lortzen ahal den laguntza dela, suteak eragindako galeretan

lehen gastuei aurre egiteko baliagarria izaten ahal dena. Urteen joanarekin, gero eta zailago egiten ari da Sute Elkarteko ordezkarietarako bazkideen partaidetza lortzea. Auzoetako ordezkariak ez dira azken urtetan berriro eta lehendakari eta idazkari postuak ere berriro beharrean daude. Ordezkarietza posturen bat hartu nahi duten boluntarioak agertzea da elkartearen nahia. Inor ez bada prest agertzen, bileran eztabaidatuko dira hurrengo pausoak. Batzarra martxoaren 25ean izanen da kultur etxean, 10:00etan.

Etxalarko Usategietara XIII. Igoera larunbatean

Martxoaren 25an izanen da usategietara igoera. Etxalarko gaztik eta Malerreka Motorsportek elkarlanean antolatutako proban parte hartzaile eta ikusle aunitz espero dira. 13:30ean itxiko da errepidea eta 14:30ean aterako da lehenengo txanda.

26 pilotarirekin Udaberriko XI. pilota txapelketa abiatu da

Martxoaren 15ean hasi eta ekainaren erdialdera arte jokatuko da Etxalarko haurren arteko udaberriko pilota txapelketa. Guztira 26 pilotarik hartuko dute parte, lau taldeetan banatuta (ttikiak, benjaminak eta bi talde infantiletan). Asteazkenetan ariko dira.



USOA
Nekazari kooperatiba



T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR



Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36



IRUNE ELIZAGOIEN

Emakumearen Eguneko elkarretaratzea

50 lagun elkartu ziren martxoaren 8ko plazako elkarretaratzean, *Zuk zer egin duzu berdintasunagatik?* galdetzen zuten pankartaren gibelean. Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldiak arrakastatsuek izan dira aurten ere eta jende aunitz mugitu dute.



JAVIER IRIARTE

Altxataren urteko batzar orokorra

Altxata elkarteak urteko batzarra egin zuen martxoaren 11n. 30 bazkide baino gehiago elkartu ziren eta azkeneko batzar nagusiko akta onartu, 2022ko kontuak erreparatu, eta aurtengo egitasmoen berri eman zuten: mendi itzulia, gasna feria, usategietako igandea, dantza eta pilota ikastaroak...

Jaberik gabeko ahuntzak agertu dira Lurritziederran

Lurritziederra auzoan jabe ezagunik gabeko ahuntzak agertu direla eta, horiek menditik erretiratzeko martxoaren 29ra bitarteko epea eman du udalak. Epe hori bukatutakoan, abere horiek animalia basatztat hartuko dira eta ehizatzen ahalko dira.

Turismo Bulegoan langilea Aste Santu eta udarako

Turismo Bulegoan 2023ko Aste Santuan (apirilaren 6tik 10era) eta udan (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra) aritzeko langilea behar da. Bisita gidatuak ere egin beharko ditu. Interesatuak curriculuma aurkeztu beharko dute herriko etxean martxoaren 27ra bitarte.

Maria Iantzi eta Oskar Telletxea munduko txapeldun


Munduko sokatira txapelketan, klub artekoan, urrea lortu zuen beteranoak eta Euskal Herriarekin txapelketa mistoa gazteak

ANA ETA ITZIAR

Ipar Irlandan jokaturako Munduko sokatira txapelketan igantziarrak ere tartean ziren, Beti Gazte taldearen partaide gisa. Oskar Telletxea Martiarena eta Maria Iantzi Irigoien gogotik aritu ziren lanean eta biek munduko txapeldun bueltatu zaizkigu.

Mariak eta Oskarrek aipatu digutenez, «Euskal Herrian zazpi txapelketatik sei irabazita gogotsu» joan ziren Ipar Irlandara eta han lortutakoa izugarria izan da. Oskar Telletxeak lehendik ere bazekien zer den munduko txapeldun izatea, baina azkeneko duela 19 urte lortu zuen Glasgown (Eskozia). Aurten, berriz ere klub artekoan lortu du urreko domina, gizonezkoen 560 kiloko kategorian. 600 kilokoan zilarra lortu zuen. Maria Iantzi, berriz, duela hiru urte Letterkennyn (Irlanda) arituz lehena izan zen munduko batean, eta orduan zilarra eta brontzea lortu zituen. Aurten, berriz, zilarra lortu du bi kategoriatan.

Hori klub artekoari dagokionez, baina nazioarteko txapel-



Telletxea eta Iantzi. BIDASO ETXARTE

ketan Basque Country ordezkatzuz urrezko domina lortu zuen Mariak txapelketa mistoan, sekula Euskal Herriak lortutako garaipen handiena. Gainera, emakumeen pisu ttikian ere zilarra lortu zuen Euskal Herriarekin. Oskarrek, berriz, 600 kilotan zilarra eta 640 kilotan brontzea lortu zuen.

Parte hartu duten txapelketa guztietan podiumera igozteko lortu dute eta egindako lanarekin harro bueltatu dira.



ANA ETA ITZIAR

Martxoaren 8ko elkarretaratzeak

Emakumearen eguna zela eta, martxoaren 8an egindako elkarretaratzeetan eta kalejiran jende aunitz bildu zen, emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapenetan. Eguerdian eskolak deituta, herriko etxeko arkupean izan zen lehenbizikoa eta bigarrena, berriz, Lorzazi Emakumeen Taldeak deituta.



ANA ETA ITZIAR

Baratzondoko jubilatuen bazkaria

Baratzondo jubilatuen elkarteak beste egun berezia antolatu zuten martxoaren 11n. Eguerdian, hildako bazkideen omenez egindako meza elizan aditu ondotik, giro ederrean pasatu zuten eguna, elkarren konpainiaz eta dantza-giroaz gozatuz.

Lu's Ibarra

**Zurekin
DISEINUAK**

SUKALDEAK, LURRAK, ARMAIRUAK, ATEAK, TEILATUAK, EGUR LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA GURE DENDA BERRIANI!

Kanttonberri, 3 BERA | Tef: 722 52 14 71

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Iturrubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)

Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es

@liderahortzklínika

DensoQuality

Certificado de Gestión de Calidad

ARANTZA

Jakoba Errekondoren solasaldia apirilaren 1ean

Udalak gonbidatuta, apirileko lehenbiziko larunbatean liburutegian hitzaldia emanen du

NEREA ALZURI

Gure herrietan baratze ederrak egiten dituzte. Ez dago dudarik, norberak bere barazkiak, lekaleak eta bertze landatuz, haziz eta zainduz, etxeko uzta izatea osasungarria eta gozagarria dela. Jakingarri aunitz daude baratzearen inguruan eta hainbat arlotan bezala, egunero gauza berriak ikas daitezke.

Apirilaren 1ean, udalak antolatuta, Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista ezaguna, baratzeetan, landareetan, zuhaitzetan eta loreetan

aditua dena, herrian izanen da baratzearen gaineko azalpenak eman eta zalantzak argitzen.

Hainbat hedabidetan bere tarteak izaten ditu, *Argian* eta Euskadi Irratian erraterako, eta aldi berean, www.bizibaratzea.eus webguneko arduraduna da. Liburuak ere idatzi ditu.

Aldi honetan, bertatik bertara bere solasaldia aditzeko modua izanen da apirilaren 1ean, larunbatean. Hitzordua 17:00etan liburutegian egin dute.

Gorapeko Pilota Txapelketa apirilaren 1ean

Joan den urteko arrakasta ikusita, aurten ere Gorapeko Pilota Txapelketa antolatu du Ekaitza Elkartek. Apirilaren 1ean izanen da, 16:00etatik aitzinera herriko etxeko gorapean. Ondotik, elkartearen merienda emanen diete pilotariei. Izena martxoaren 24rako eman behar da.

Mendi lasterketan izena emateko epea zabalik

Martxo hasieran ireki zuten Ekaitza Elkartek antolatuta apirilaren 23an egingen den mendi lasterketako izen ematea. Eta geroztik ederki mugitzen ari da jendea. Apirilaren 18ra arte apuntatzen ahal izanen da, inscripciones.na-farmendi.org atarian.



JOSE RAMON AMOROS

Martxoaren 8a egunero da

Herritar andana bildu zen martxoaren 8an, emakumearen egunean, plazan egin zuten elkarretaratzean. Martxoaren 12an, berriz, 50 bat lagunek parte hartu zuten Bortzirietako Emakumeen XIII. Itzulian. Ekaitza Elkartekoek salda eta pintxoak banatu zizkieten eta ondotik, Burlada jatetxean bazkaldu zuten.



AINZANE ITURRIA

Herriko futbolari gaztetxoak

Talde gorritxoaren arropak jantzita, ortziralero-ortziralero neska-mutiko kuadrilla honek –argazkian ez dira denak ageri– Osasunaren eskutik futbol eskola izaten du frontoian. Gaztetxoek lehenbizi eta kozkorragoak gero, Lesakako Joel Gil entrenatzailearekin biltzen dira.

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauzena@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak
Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
K-STRETCH
Etorri eta probatu debalde!
San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN
Centro Prim • [regina.tolosaechebare](http://regina.tolosaechebare.com)

Baztan-Bidasoko XXXVI. bertsopaper lehiaketa abian

Sariketarako bertsoak apirilaren 24tik maiatzaren 5era bitartean aurkeztu behar dira

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Baztan-Bidasoko XXXVI. bertsopaper lehiaketa antolatu dute. Lehiaketara Baztan-Bidasoa inguruan bizi diren bertsolariak aurkeztu daitezke. Euskarazko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak onartuko dira bakarrik eta norberak aukeratu du gaia, doinua eta neurria. Bertsoak apirilaren 24tik maiatzaren 5era bitartean aurkeztuko beharko dira,

eta sari banaketa maiatzaren 26an egingen dute Berako Kultur Etxean. Sari banaketa saridunek beren bertsoak kantatuko dituzte.

Lau maila

Parte hartzaileak lau mailatan banatuko dira. **A mailan**, 2012an edo ondotik jaiotako haurrek parte hartuko dute, eta gutxienez bertso bat edo koplak osatu beharko dituzte. Bi sari izanen dira. Lehen sariak garaikurra eta 50 euro jasoko ditu eta bigarrenak garaikurra eta 30 euro.

B mailan, 2011tik 2009ra sortutako gazteak sarituko dituzte eta kasu horretan gutxienez bi bertso edo lau koplak osatu beharko dituzte. Sariak dagokionez, lehen sariak garaikurra eta 100 euro jasoko ditu eta bigarrenak trofeo eta 70 euro.

C mailan, 2008tik 2005era jaiotako gazteak sarituko dituzte eta gutxienez lau bertsoak sorta egin beharko dute. Bertze kategorietan bezala bi sari izanen dira. Lehenengoak 150 euro eta garaikurra jasoko ditu eta bigarrenak 120 euro eta garaikurra.

D maila edo maila nagusian aldiz, 2004an edo lehenago sortutakoek hartuko dute parte eta gutxienez zortzi bertsoz osaturiko sorta aurkeztu beharko dute. Bi sari izanen dira maila honetan ere. Lehen saridunak garaikurra eta 200 euro hartuko ditu, eta bigarrenak, garaikurra eta 150 euro.

Bertso sortak aurkezteko bi manera daude. Paperean bidali nahi dituenak ondoko helbidera bidali beharko ditu: Berako Kultur etxea, Eztegarra pasealekua, 11, 31 780 Bera, Nafarroa.

Emailaz bidaltzeko aukera ere izanen da. Kasu horretan, kultura@bera.eus helbidera bidali behar dira bertsoak. Mezuaren gorputzean ondoko datuak paratu beharko dira: Izen-abizenak, maila, adina, bertsoaren izenburua eta telefonoa. Bertsoak, al-diz, atxikitako PDF artxibo batean bidali beharko dira eta bertan bertsoez gain izenburua eta maila paratu beharko dira, baina ez egilearen izena eta abizena.

Epaimahaia Bortzirietako Bertso Eskolak izendatuko du, eta bere erabakia ezin izanen da gibelera bota. Epaimahaia sariak hutsik uzten ahalko ditu edo baita aipamen bereziak eman ere.



Albaitaritza eta maskotak



LARRIALDI ZERBITZUA +

 265 egun
 24 ordu gure bezeroentzat

ALBAITARITZA ZERBITZU INTEGRALA 

- Kontsultak
- Ebakuntza gelak

ILEAPAINDEGI ZERBITZUA 

MASKOTENTZAT EGOITZA 

DENDA ... 



Egin bezero txartela eta probestu abantailez

 Kontsultak eta hitzorduak: **943 620 230**

 Larrialdiak: **618 893 420**

 Whatsapp: **676 852 459**

 Colón Ibilbidea 27, behea. IRUN (Parkingetik sarbide zuzena)

Ekitaldiz betetako Asteburu Kulturala antolatu dute

Ortziraleko haur jokoekin hasi, igandean mendi buelta Zumalekura eta erraldoi eta gaiteroekin poteoa izanen da

MAIDER PETRIRENA

Sunbillako Udalak, Ulibeltzak elkarteak, Guraso elkarteak eta Antrotoki herriko gazte taldeak antolatua, hainbat jarduera izanen dituzte ortziraletik igandera.

Martxoak 24, ortziralea: 16:30ean haur jokoak izanen dira plazan eta 19:00etan *Gure aldetara. Nafarroako emakume bertsolariak* aurkeztuko dute Ulibeltzak elkarteak. 19:30ean bokatak izanen dira plazan eta 21:00etan afari autogestionatua egingen dute Ulibeltzak elkarteak.

Martxoak 25, larunbata: Puzgarriak plazan goiz eta arratsaldean. 11:00etan mus txapelketa Ulibeltzak elkarteak eta 19:00etan herri kirol desafioa frontoian. 21:00etan afaria egingen dute Bustiz ostatuan eta 00:00etatik 04:30era DJ Infernuk musika paratuko du Ulibeltzak elkarteak.

Martxoak 26, igandea: 09:00etan mendi buelta Zumalekura eta kalejira-poteoa 12:00etan erraldoi eta gaiteroekin. Eguraldi txarrarekin haurren ekitaldiak frontoian egingen lirarteke.

Emakumearen Eguna eskolan eta mahaiaren inguruan

Martxoaren 8ko Emakumearen Egunari seinale egin zaio Sunbillan ere. Eskolan, bai goitiko bai beheko patioan elkartu ziren ikasleak eta irakasleak, globo moreekin. Argazkian ageri denez, bertalde, emakume kuadrilla batek afari ederra egin zuen.



Emakumeen afaria. INES EIZAGIRRE



LOREA BABACE

Nahia Bertiz txapelkun Zizurren

Zizurreko lau eta erdiko pilota txapelketaren hogeita zazpigarren edizioko finalak martxoaren 11n jokatu zituzten. Nahia Bertiz Babace herritarrek Alice Sagardui goizuetarraren kontra jokatu zuen. Argazkian ikusi daitekeen bezala, txapela herrira ekarri du.



AITOR IBARRA

Arkupeak elkarteko herriko besta

Arkupeak Elkarteko herriko besta martxoaren 5ean ospatu zuten. Musean txapelkun Estefani eta Gregorio Agesta anai-arrebak suertatu ziren. Bigarren, Pako Errandonea-Luis Manterola, hirugarren Francisco Apeztegia-Francisco Arretxea eta laugarren Migel Anzizar-Jose Vicente Alzuri.



Miguelena
SUKALDEAK

Etxetresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak



☎ 948 450 925 ☎ 624 47 57 25
Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.com



Lizun
GAZTANDEGIA



Sunbilla - Tel: 948 450 862



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Doneztebe UEMAKo kidea izanen da hemendik aitzinera

Martxoaren 25eko ezohiko batzarrean onartuko dute Doneztebe mankomunitateko kide gisa Arruazarekin batera

OIER ZULAIKA

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea izanen da martxoaren 25etik aitzinera Doneztebe. Egun horretan egingen du UEMAK *Ehun udal eta hamaika gehi*-go ekimena, eta bertan egingen duten ez ohiko batzarrean sartuko da mankomunitatean Doneztebe. Aitzinetik, albistearen berri emateko eta eguna aurkezteko ekitaldia egin zuten Arruazun (Nafarroa).

Eskualdeko 10 herri

Donezteberekin batera berzte hiru herri sartuko dira UEMAn, eta hori horrela 101 herri izanen dira UEMAREN parte, denera 305.000 biztanle baino gehiago. Eskualdeko hamar herri izanen dira UEMAREN parte direnak:



Azpeitiko ekitaldiaren aurkezpena.

Arantza, Areso, Baztan, Bera, Doneztebe, Etxalar, Goizuetta, Igantzi, Leitza eta Lesaka. «Udalerri euskaldunen garrantzia eta herri honek oztopoen gainetik euskarari eusteko egin duen bidea goraiatzeko» antolatuko dute ekitaldia Azpeitian. 09:45ean egingen dute ez ohiko batzarra, bertan onartuko dute Doneztebe mankomunitatearen kide eta ondotik egingen dute ospakizun ekitaldia.



UTZITAKOAK

Martxoaren 8an karrikara atera dira

Martxoaren 8an dozenaka izan ziren karrikara atera ziren emakumeak. Arratsaldean eskolako aterpean elkartu ziren, ondotik batukada feminista izan zuten karrikaz karrika, eta bukatzeko elkarretaratzea egin zuten, zaintza aldarri hartuta.

Kontzertua, antzerkia eta solasaldia martxoko azken astean

OIER ZULAIKA

Martxoaren 26an, igandea, bi kultur hitzordu izanen dira. Mendi Ttiki abesbatzak eta Elizondoko Koro Ttikik kontzertua emanen dute 18:00etan elizan. Ondotik, 19:30ean Zineman, *Terapia* antzezlanak ikusteko aukera izanen da.

Martxoaren 30ean, berriz, Malerrekako Euskarazko Irakurle Taldearen txanda izanen da. Arantxa Urretabizkaia idazlearen bisita izanen dute, eta 3 *mariak* liburuari buruz solastatuko dira. 19:00etan elkartuko dira liburutegian, eta bilera irekia izanen da.



UTZITAKOAK

Errekako judoek bi domina lortu dituzte

Urrezko dominak lortu dituzte Gaxuxa Zelaieta eta Andrea Mindegia Errekako judoek. Nafarroako Junior txapeleketan 57 kiloz azpiko kategorian urrezko domina lortu du Zelaietak, eta Espainiako finalerako lehian sartuta dago. Mindegia, aldiz, judo egokituko txapelketa irabazi du.

MUGARKI

ESKALATZEKO ZENTROA BAZTANEN

315 m2ko EREMUA

- Boulder gunea, biokako eskalada egiteko
- 4,5 metroko altuera
- Zentzualtzeko 18 gunea eta bi autoaseguratzailerak dituen eremua
- Beroketak, arkita zehatzak eta bertzelako jokoak eta jolasak egiteko gunea

Hainbat jarduera aukeran, beti lantaldearen arretarekin eta aholkularitzapean

Haurrendako, gazteendako eta helduendako urteko ikastaroak
Astean egun bateko edo biko ikastaroak
Eskaladako bataio talerak edo hastapen ikastaroak
Eguneko sarrerarekin eskalatzeko aukera
Abonatu gero, edozein momentutan eskalatzeko aukera

622 90 30 55 • kaixo@mugarki.com • @mugarki_

Ordoki poligonoa. ARIZKUN



Pulunpako ikasleak Uxo Bertiz futbolariarekin. ESKOLAK UTZIA

Emakumearen Egunean hainbat ekitaldi egin dira

Malerrekako eskola ttikiak elkarrekin kantatu eta dantzatu zuten eta Uxo Bertiz futbolaria Pulunpa eskolan izan zen

ARKAITZ MINDEGIA

Martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan ekitaldi ugari parte hartu zuten herritarrek. Lehenik, Pulunpa eskolakoei dagokienez, Malerrekako eskolako ikasleek Kantu kolore taldearen *Nire gorputza* abestia kantatu eta dantzatu zuten. Eskola bakoitzeko ikasleek beraien eskola edo herriko xoko batean grabatu zuten, gero muntaia egiteko. Gure ttikiak, Saldias, Legasa, Doneztebe eta Sunbilako ikasleekin, artista handiak eginak direla erakutsi dute. Pulunpan,

Uxo Bertiz futbolariaren bisita ere izan zuten. Baztandar kirolari honek bere bizipenak kontatu zituen. Ikasleen galderak erantzun ondotik, kamisetak eta berak ekarritako argazkiak sinatzen akitu zuen eskolako egonaldia. Malerrek mailan, Donezteben egingako kalejira-manifestazioan ere izan ziren herritarrak. Akitzeko, martxoaren 10ean Aurtizko Ostatuan emakumeak afari baten bueltan elkartu ziren eta biharamunean, berriz, Iturengo Herriko ostatuan bertze horrenbertze egin zuten bertako emakumeek.

Agintaldiaren balorazioa egin du udal taldeak

Martxoko bigarren asteburuan Iturengo EH Bilduk bilera egin zuen herriko etxeko ganbaran. Agintaldiaren balorazioa egin eta aitzinera begirako intencioak aurkeztu zituen. Maiztzeke udal hauteskundeei begira, bilera gehiago deituko ditu, udal taldea osatu nahian.

Alazne Untxako 'Gure aldetara' bertso saioan

Nafarroako emakume bertsolariak 2021ean argitaratutako Gure aldetara disko-liburua oinarri, Sunbillako Ulibeltzak elkartearen kantari ariko dira martxoaren 24an, ortziralean, 19:00etan Alazne Untxalo herritarra, Maddi Ane Txopereña eta Saioa Alkaiza.

English Week-en parte hartzen ari dira Lekarozen

Pulunpa eskolako seigarren mailako ikasleak martxoaren 20tik martxoaren 24ra bitarte Lekarozen dabilta English Week programan. Beraien ingeles maila indartzeko asmoarekin antolatzen dira honelako asteko planak, baina gainera ederki pasatzen dute.

Herriko pilotariak han eta hemen jokatzen dabilta

Herriko neska-mutiko pilotariak han eta hemen dabilta: Nafarroako Kirol Jokoak, Josetxo Ezkurra memoriale, Baztango txapelketa... Ados piota taldearekin ari diren neskak (Irati-Iraide eta Janitz-Dunixe) Ezkioko txapelketan ariko dira.

Joaldunak Elgorriagako aurkezpenean


Euskal Jai Berri erremonte fundazioak Elgorriagako bainuetxean aurkeztu zituen aurtengo egitasmoak eta erremonte enpresako erremontisten plantilla berria martxoaren 13an. Ekitaldian Iturengo joaldunak ere beraien joare soinuak zabaldu zituzten.



Joaldunak Elgorriagan. UTZITAKOIA




BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industriaidea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



ANELAN
LAN BERTIKALAK

948 031 174
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabaden konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.



EDERKI tailerra



CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea - DONEZTEBE - 948 450 525

Festetako haurren eguna prestatzeko lehen bilera egina

Martxoaren 11n bildu ziren eskolan udal ordezkariak eta gurasoak, ekitaldiak lotzen hasteko

FERMIN ETXEKOLONEA

Abuztua urrun da oraindik, baina festak prestatzen hasteko lehen bileratan hasiak dira. Matxoaren 10ean eskolan elkartu ziren udal ordezkariak eta gurasoak, haurren eguneko ekitaldiak lotzen hasteko. Beranduagorako utzi gabe, musika taldeak ere lotzen ari da udala.

Ondotik, argindarraren faktura hobeki ulertzeko eta ahal den neurrian murrizteko aholkuak eman zituzten, udalak eta Cederna Garalur garapen agentziak antolatutako hitzaldian.

Mus txapelketa

Martxoaren 11n jokatu zen Nafarroako txapelketa. Bi partida irabazi bazituzten ere, Leire Mariezkurrenak eta Isabel Elizalde ez zuten mar-



Festak buruan dagoeneko.

txoaren 25eko Euskal Herriko finalera pasatzerik izan.

Saint Patrick eguna

Zubietako Herriko Ostatuako arduraduna jatorriz irlandarra izanik, bere herrialdeko egun handiena, San Patrizio edo San Patrick eguna seinala eginez, ospakizuna antolatu zuen martxoaren 17an. Gasteizko Krisketa folk musika taldeak jo zuen eta hango jan-edariak izan zituzten.



ARANTXI DIEZ

Giro bikaina Emakumearen Egunean

Apuntatuak gehiago baldin baziren ere, azkenean berrogei bat emakume elkartu ziren martxoaren 8ko Emakumearen Egunaren harira Errandonea ostatuan martxoaren 11n, larunbatarekin, egindako afarian. Giro eta umore ederrean ospatu zuten beraien eguna.



Erremontistak, joaldunak, agintariak eta babesleak Elgorriagan. UTZITAKOIA

Erremonte Fundazioaren egitasmoen aurkezpena Elgorriagako bainuetxean

TTIPI-TTAPA

Elgorriagako bainuetxea aukeratu du Erremonte Fundazioak 2023rako dituen jarduerak eta Erremonte Iruña taldeko erremontista plantilla aurkezteko. Martxoaren 13an egindako ekitaldian, Iturengo joaldunek ere parte hartu zuten.

Ohiko txapelketekin batera, Donezteben, Agoitzen, Lekunberrin, Esteribarren, Altsasun eta Atarrabian dituzten erremonte eskolekin segituko dute. Aipatzekoa da profesionaletan debutatu berri dutela Xuban Iturregi eta Jon Sagaseta iruritarrek eta Markel Leatxe eta Dabid Mitxeo doneztebarrek.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net ☎ **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Urteroko ateraldia izaten dute elkarteko bazkideek Xabierrekoa. WIKIMEDIA

Xabierreara irteera egin dute elkarteko 105 bazkidek

Martxoaren 7an Xabierreara joan ziren bazkideak, eta bertan meza aditzeaz gain, otordu ederra egin zuten

TTIPI-TTAPA

Urteroko ohitura betez, martxoaren 7an 105 bazkide joan ziren Xabierko gaztelura. Bi autobusetan joan ziren bertara, bat Baztandik abiatu zen, eta bertzea Doneztebetik. Xabierreara ailegatzeko meza izan zuten lehendabizi eta ondotik Xabier jatetxean bazkaldu zuten. Bazkari oparoa egin ondotik, mahai inguruan gelditu ziren batzuk eta bertzeak aldiz, graziako bederatziurrena aditzera joan ziren. Egun eder eta pasata, 18:30ean hartu zuten etxera itzultzeko autobusa.

Kantabriarako bidaia

Apirilaren 17tik 20ra Kantabriara joateko bidaia antolatu du elkarteak. Sekulako arrakasta izan du bidaiak eta denera eta 157 lagun apuntatu dira. Jende kopuru handiagatik, bidaia aitzinera ateratzeko, ordea, hainbat aldaketa egin behar izan dituzte. Apuntatutako bidaiari guztientzako lortu dute lekua, baina, bi hotel desberdinetan banatuta. Autobus bat buletinean publikatutako Palacio Mar hotelera joanen da, eta bertze bi autobus

Santanderren dagoen Santemar hotelera. Bidaia ahalik eta erosoa izan dadin, saiaturko dira aldi berean bi autobus baino gehiago ez elkartzen.

Lau egunez Kantabriako hainbat txoko bisitatuko dituzte elkarteko bazkideak: Santander, Santoña, Laredo, Isla, Santillana del Mar, Comillas, Picos de Europa, Liebana monasterioa, Potes, Santa Catalina, La Hermida eta baita Cabarceno ere.

Aralarko bidaian aldaketak

Uztailaren 26an, asteazkena, atautxi-amatxien eguna ospatzeko, urteroko irteera egingen dute Aralarko santutegira. 12:00etan meza izanen dute, eta ondotik bazkaria egiteko zuten Orikaingo Ezkabarte erretegia.

Kontratutako jatetxearekin, ordea, arazoren bat izan da eta bazkaria Gorraiz hotelera lekualdatu behar izan dute azkenean. Xehetasun gehiago jakinaraziko dituzte elkartearen hurrengo buletinean. Irteera horretarako izen ematea ekainaren 19an, 20an eta 21ean egin beharko da.



Leitzara joan da otsaileko saria. UTZITAKOIA

Maria Dolores Juantorena leitzararentzat izan da otsaileko saria

TTIPI-TTAPA

Otsaileko sariak ere badu irabazlea. *Inguruko zein he-dabidek bete ditu berriki 25 urte?* zen galdera. Aunitz izan dira erantzuna Xaloe Telebista dela asmatu dutenak, eta denen artean saria Leitzako Maria Dolores Juantorentzat izan da. Zorionak!

Horrekin batera, hurrengo galdera zabaltzeko ordua ere ailegatu da: *Zein aizkolarik egingen dute erakustaldia elkarteko soinketa eta herri kirol egunean?*

Erantzunak 618 56 78 37 mugikor zenbakira bidali behar dira, WhatsApp bidez bakarrik.

Omenduak jakinarazteko azken eguna martxoaren 30a izanen da

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak urteroko omentzen ditu data seinalatu bat betetzen duten bazkideak: 60 urte eta 50 urte ezkondurik betetzen dituztenak, 100 urte betetzen dituztenak eta baita 85 urte betetzen dituztenak ere. Omenaldia

egiten zaie horiei, eta elkartean banatzen duen buletinean ere agertzen dira.

Omenaldia aitzinerago izanen da, baina buletinean agertu nahi dutenen kasuan, martxoaren 30a arteko epea izanen dute beren datuak delegatuari emateko.

Pili Urroz da elkartearen Oizko delegatu berria

TTIPI-TTAPA

Urte berriarekin batera, urte aunitzez Oizko delegatu izan den Maria Jesus Arozenak delegatu izateari utzi zion, eta geroztik delegatu berria bilatzeko deialdia zabaldua zuen elkarteak. Bada, Pili Urroz aurkeztu da lan horretarako,

eta beraz, bera izanen da delegatu berria. Elkartetik Urrozi ongi etorria eta eskerrak eman dizkiote.

Bertzalde, oraindik hutsik daude Arizkungo eta Irungo delegatu postuak, eta interesa duenak bulegora deitu behar du bere burua aurkezteko.

Bertzelako turismoa posible da helmuga jasangarrietan

Bertzen egindako topaketan Bidasoko trenbide zaharreko bizikleta bidezko mugikortasun jasangarria nabarmendu dute

TTIPI-TTAPA

Mikel Irujo Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresariako kontseilariak Bertzelako Turismoa bira bukatu du Baztan-Bidasoa eta Erriberagoitiko helmuga jasangarrietara egindako bisitarekin. Baztan-Bidasoko Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Plana 2023-2025 al-dian kokatzen da, eta 4.740.000 euroko aurrekontua du.

Baztan-Bidasorako etapan, kontseilariak mugikortasun iraunkorra baloratu du lurraldearen ardatz egituratzaile nagusi gisa, eta Bidasoko trenbide zaharraren trazadura berreskuratu du, 15,3 kilometro inguruko luzera duena, Donezteben, Bertizaranan eta Baztanen barna. Gainera, Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planak bertze jardue-



Bertzen egindako topaketa.

ra-ildo osagarri batzuk ere jasotzen ditu, hala nola turismoaren kudeaketa hobetzeko teknologia berriak ezartzea, marketin digitaleko plana garatzea eta produktu turistikoa digitalizatzea, eta Baztan-Bidasoa eskaintza turistikoa berria sortzea.

Bertizko Jaurreriko Natur Parkean martxoaren 13an egin zuten topaketan Baztan-Bidasorako Jasangarritasun Turistikoko Plana aurkeztu zuten.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAITE BERTZ

Emakumearen Eguna bikain Narbarten

Giro ederrean ospatu zuten Emakumearen Eguna Narbarten. Hogeita hamar emakume inguru elkartu ziren mahai inguruan afari goxoa dastatzeko, irri ederrak egin zituzten eta umore ezin hobean akitu zuten eguna. Ospakizunak eta aldarrikapenak bat egin zuten berriz ere.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ANA MARIEZKURRENA/ MARI JOSE MITXELENA

Emakumeen bazkaria Eratsunen

Martxoaren 8ko Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren bueltan, emakumeen bazkaria egin zuten hilaren 11n Eratsunen ere. 57 emakume bildu ziren eta giro ederra izan zuten. Bazkalondoan bingoan aritu ziren eta zozketak izan zituzten, egun ederra borobiltzeko.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA ITURRALDE

Emakumearen Eguna Beintza-Labaienen

Nazioarteko emakumeen eguna ospatu zuten Beintza-Labaiengo emakumeek martxoaren 11n Herriko Ostatuan egindako afariarekin. Bilkura hau giro ederrean ospatu zuten eta afariaren ondotik, festarekin jarraitzeko aukera paregabea izan zuten, musika eta dantzaldiarekin.



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / UINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultiarak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507

Ezkontza Gehigarria



Gizartea etengabe aldatzen ari da; ohiturak, jendea, pentsamoldeak... baita ezkontzak ere. Zeremonia tradizionalak alde batera utzi eta ezkongaien gustura antolatutako ospakizunak dira nagusi gaur egun. Azken finean, bi pertsonen arteko maitasuna ospatzeko eguna bertzerik ez da.

Hala ere, dena ongi ateratzea nahi badugu, ezinbertzekoa da prestaketak denborarekin hastea. Hainbat gauza hartu beharra ditugu kontuan: lekua, arropak, orrazkera, janaria, argazkilaritza, musika, loreak... Zerrenda amaigabea da, baina eskualdean eskaintza zabala daukagu, zure ametsetako ezkontza izan dezazun.



Zaldúa argazkilariak Elizondo
948 580 491



MERCE MODA NOVIOS

ROBERTO VICENTI
CEREMONIA

JAVIER CABÁN
ETIEM

RAMON SANJURJO



Serapio Múgica, 11 • 20302 IRUN • T 943 612 626 • www.capelettimercheirun.com •

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALK ETIA ARTIFIZIALAK

ZU lore denda
dekorazioa
osagarriak



Alzate, 33
31780 BERA

zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786

Zeremonia intimoak, ospakizun haundiak, besta tematikoak, ezkontza eleganteak... egun berezi hau antolatzeko, argi izan behar dugu nolako ezkontza nahi dugun, eta horretarako interesgarria da azken joerak ezagutzea.

Loreak ezinbertzeko elementuak dira edozein ospakizunetan, eta garrantzia handia hartzen dute dekorazioan. Aurten, lore-sorta natural eta xumeak nabarmendu dira tendentzien artean; zehatz-mehatz

zainduak eta prestatuak badaude ere, menditik bikdu berriak diradite. Hostoen eta kolore berdearen nagusitasuna da sorta hauen ezaugarri nagusia.

Estilo biziagoa bilatzen duten ezkon-gaiantzako, lore-sorta haundiak eta koloretsuak ere modan daude. Arrosa izanen da kolore protagonista, baita gorria, morea, bioleta eta purpura ere. Gainera, kolore hauek jantziarekin konbinatu daitezke, oinetakoekin edo burukoarekin, adibidez.

*Ezkontza
bakoitza...*



*...berezia da
guretzat*

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO




endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com
bodasyeventos@endanea.com

Ezkontzekotan zara?

Zure egun handirako loreak eskurik onenetan, esperientzia handiko lantaldea zu laguntzeko prest.

- Ezkontza pertsonalizatuak.
- Kalitatea, esperientzia eta aholkularitza.
- Era guztietako lore lanak: elizarako loreak, mahai zentroak, lore-sortak, buruan jartzekoak eta abar.




Ezkontza-zentroa
Zuri
Ezkontza eta teknologia



Estetika aurreratua, aurpegiko eta gorputzeko bioterapiak, HI-FU, Empitsu metodoa, BBGLOW, radiofrequentzia, presoterapia, manikura, pedikura eta askoz ere tratamendu pertsonalizatu gehiago eskaintzen dizkizugul.

Santiago, 59 behea - Elizondo - Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 81



«Egun berezi honetan, jantziak norberaren neurrira»

Arantxa Ochandorena
Moda diseinatzailea

Ama josten ikusten hazi zen Arantxa Ochandorena moda diseinatzailea; «titiketik ezagutu dut josteko makinaren soinua, eta hari, aitzur eta oihalen artean hezi nintzen. Gozamina zen, gustatzen zitzaigun guztia egiten bai baitzigun».

Ogibidea ikasi zuen alaba bakarra izan zen Ochandorena; «etxean hasi nintzen, eta beranduago, aukera izan nuenean, profesional onenekin trebatu nintzen Iruñean eta Donostian».

Esperientzia denon eskura

25 urteko esperientzia dauka modaren munduan, eta ikasitakoa partekatzeko prest dago, «emakume guztiak dutelako koketeria puntu hori eta denok gustuko dugulako emakume sentitzea, eta zergatik ez, paregabeak».

Horregatik, bere esperientzia eta ezagutza guztiak «janztearen artean eskura» paratzen ditu. Bezeroak lagundu eta aholkatzen ditu edozein ekitaldirako; «ezkongaien soineko eta trajeak, amabitxiak, bestako jantziak... egun berezi horretan arropak bakarrak eta bereziak izan daitezten, pertsona bakoitzaren gustu eta neu-

rrira eginak». Izan ere, «aparteko ekitaldia izanen da, eta protagonis- tek erdigun- nean behar dute».

Zure jantzi perfektua

Arropen diseinua «sormen handiko lana» da, eta «ezkongaiak pausoz pausoz sortzen dute haien jantzia, askatasun osoz eta prozesuko urrats guztietan probak eginez. Xehetasun guztiak kontuan hartzen ditugu eta iritziak partekatzen ditugu, emaitzak bezeroa guztiz asebetetzeko».

Azaldu duenez, «neurrira egindako jantzien prozesua ez da arropa denda batera joan eta dagoeneko eginda dagoen jantzi bat erostearen modukoak, baina emaitza ere nekez izanen da berdina. Eskuz egindako jantziaren neurri guztiak zehatz-mehatz hartuak dira bezeroaren gorputzera egokitze- ko. Berdin dio zure gorputzera eta proportzioek, zuretzako bereziki egindako jantzia izanen bai- ta».



 **Karma**
ESTETIKA

- Aurpegerako tratamenduak
- Erretzerako tratamenduak
- Estetikoko masajeak
- Depilazioak
- Manicura
- Makillajeak



Altzate 33 BERA · Tel.: 948 63 09 04



ao arantxa ochandorena

Ez kongaitzen zure neurrira egindako jantziak
Jostuntza amabitxi, aitabitxi eta gonbidatuentzat.
Eskuz egindako burukoak eta osagarriak

Joste-tailerrak
partikularrentzat eta taldeentzat (patroiak neurritan...)

Arreta pertsonalizatua. Eskatu ordua:
Tel: 691 483 256 - aochandorena@gmail.com - www.arantxaochandorena.com - Iruñea





HEMEN DAGO ZUEN AMETSETAKO BIDAIA



bidaiak

Eztegara pasealekua, 30 A
31780 BERA (Nafarroa)
Tels.: 948 630 451 / 948 630 641
info@takatukabidaiak.com
www.takatukabidaiak.com



Belaunaldi berriei erakusten

Egiten duena maite du Ochandorenak; «zorionsu naiz nire ogibidean, baina ezin ukatu ahanzturan galtzen ari dela, belaunaldi berriek beztitzeko eta erosteko bertze modu bat daukatelako». Horregatik, joskintza klaseak ematen dizkie «nik bezala josten disfrutatzen duten pertsonetara». Jantziei ukitu pertsonala ematen, konponketak egiten eta arropak hobe izateko moldaketak egiten ikasten dute. Joskintza gustuko baduzu, ez dago aitzakiarik, adin guztiak onak baitira ikasten hasateko».

Ikastaroak partikularrentzako, familiarentzako, 10 urtetik goitiko neska-mutilentzako eta lagun taldeen zentzako ematen ditu, eta jantziak ez ezik, etxerako gortinak, oihalak, kuxinak, mandarrak, edredoiak zorroak eta bertzelakoak sortzen ikasteko aukera ematen du.

Zure jantzi propioak

Joskintza tailerrez gain, patroiak egiteko ikastaroak ere eskaintzen ditu Ochandorenak, «emakume, gizon, haur eta denentzat, norberak bere jantziak egiten ikas dezan. Arras erraza da, aski dira bi neurri eta formula magikoa... eta 10 minututan zure patroia lortuko duzu».

Ikastaroak «arras politak» dira; «talde txikietan elkartzen gara, giro atsegina eta ezin hobean aritzeko. Aukera ederra da ikasten duzun bitartean erlaxatzeko».

Horregatik, taller hau opari aukera ederra da, «zure lagun eta familiako kideei edo zeure buruari oparitzeko. Astean behin bakarrik elkartuta, josten eta moztzen ikastea gogobetegarria da eta... nork daki? Etorkizunean, beharbada, hau zure ogibidea ere bihurtu daiteke».

ZURE EZKONTZA GONBIDAPENA PERTSONALIZATUA!!

Une berezi horretarako, ezkontza gonbidapen berezia lortu ezazu pertsonalizatutako gonbidapenak aurkeratuz, zure argazki eta testuarekin.

Hitzordua hartzeko
NARBARTE



686 74 77 13
648 84 71 67

Mailposta 
publizitate banaketak inprimategia

«Musika aldetik bikotea lasai egotea dugu helburu»

Aitor Saenz de Benito
Endara DJ's

2001ean hasi zen Aitor Saenz de Benito lesakarra DJ lanean: «Galesera joan nintzen eta hango diskoteketan DJ aunitz ikusi nituen. Jakin-mina sartu zitzaidan eta orduan hasi nintzen». Hasieran, diskoteketan jartzen zuen musika afizioz, «baina 2008an, krisiarekin, bizimodua ateratzeko bertze modu bat bilatu behar izan nuen eta ezkontzen munduan sartzeko aukera izan nuen. Aunitz gustatu zitzaidan eta hemen segitzen dut».

Endara DJ's

Gaur egun, Endara DJ's-ek «zerbitzu integrala» eskaintzen du ezkontzetan, «momentu guztietan paratzen dugu musika; zeremonian, koktelean, bazkalondoan, tarta banatzean... eta ondoko dantzaldian,

noski». 10 DJ inguruko lan-taldea dauka, eta «elkarlanean aritzen gara Oihan Vega eta Joxeina Etxeberriarekin ere».

Euskal Herri osoan egiten dute lan, «baina hemendik kanpo ere Kantabriari, Burgosen eta Asturiasen aritu izan gara. Leku aunitzetan lan egiteak aberasten gaitu, ez baita berdina ezkontza Burgosen edo Iruñean egitea; jendeak eskatzen dituen abestiak guztiz desberdinak dira».

Bikoteak disfrutatzea helburu

Ezkontza batean aritzeko prozesua ezkongalekin hasten da: «gurekin harremanetan jartzen direnean ezkontzak nola prestatzen ditugun eta lana nola egiten dugun azaltzen diegu. Tratu pertsonalari garrantzia



Itxi begiak eta amestu zure ezkontza.

Irrisari
LAND



IRRISARRI LAND
BODAS

restaurante@irrisarriland.com

haundia ematen diogu eta dena lotua uzten dugu, egunean bertan bikotea lasai egoteko musika alde-tik».

Horretarako «elkarrizketak egiten ditugu pertsonalki edo bideodei bidez, eta orri bat bidaltzen diegu betetzeko. Orrian ospakizunaren une bakoitzean nahiko duten abestia zehaztu dezakete, baita dantzaldian eskaintzaren bat egin nahi duten ere. Normalean ezkontza baino urtebete lehenago hasten gara prestaketekin, eta urte horretan orria landu ondotik, ospakizuna baino aste bat lehenago bigarren elkarrizketa egiten dugu dena erre-pasatzeko. Inportanteena ezkontza egunean bikoteak disfrutatzea da».

Ezkontza bakoltzara egokituak

Ezkontza guztiak desberdinak dira, beraz, «moldatu behar izaten gara. Ezkontza euskaldun batek ez du zerikusirik atzerriko ezkongaiak dituen ezkontza batekin, adibidez. Herrialde aunitzetako jendearekin egiten dugu lan».

Gainera, gonbidatuek ere abestiak eskatzen dituzte dantzaldian, «horregatik, gonbidatuen gustu musikalak lehenagotik ezagutzen saiatzen gara, horren arabera emanaldia estilo batekoa edo bertzekoa egiteko. Dantzaldiak 4-5 ordukoak izan ohi dira, eta musika mota ugari paratzen ditugu jendea ez aspertzeko eta denak kontent egoteko; pop, rock, reggaetoia...». Gehien eskatzen den musika «irratian aditzen dena» izaten da, «modan dagoena». Aunitzek reggae-

toia eskatzen dute, «baina bertze aunitzek argi uzten dute hasieratik ez dutela reggaetoirik nahi».

Baina Endara DJ's-en zerbitzuak ez du musika soilik eskaintzen; «Berako Kaskabel Soinua enpresarekin egiten dugu lan, ekitaldietan soinu eta argiztapenarekin aritzen direnak. Horri esker, proiektoreak, argiztapen bereziak, pantailak... ditugu eskuragarri».

Boda Natural

Honez gain, aurrean berrikuntza bat sortu dute; Boda Natural ataria (bodanatural.com). «Bizpahiru urtez izan dut ideia buruan eta berriki jarri dugu martxan. 15 urte baino gehiago daramatzagu ezkontzetan lan egiten eta Euskal Herri mailan hornitzaile aunitz ezagutzen ditugu. Horregatik, zerbitzu hauetako buruzko informazioa ematen dugu bertan; argazkilariak, *wedding planner*ak, jatetxeak...».

Izan ere, «gaur egun ezkontzei buruzko atariek ahalik eta iragarki gehien sartzea dute helburu, ezkongaiak kontuan hartu gabe, eta guk horren falta nabaritu genuen. Boda Naturaleko hornitzaileak guk ezagutzen eta gomendatzen ditugunak dira, eta ez diegu kobratzen iragarkiengatik. Kalitatezko zerbitzuak bakarrik eskaintzen ditugu, bikoteak aukeratzen duena aukeratzen duela, arazorik izan ez dutela bermatzeko. Jatetxeetan, adibidez, Euskal Herri mailan gehienak ezagutzen ditugu eta horietatik aukeraketa bat egiten ari gara. Oraingoz oinarritzko hornitzaileak ditugu, eta lanean ari gara eskaintza zabaltzeko».



- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...

- 160 lagunendako jangela •
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera •
- Auto eta autobusendako aparkalekua •
- Haurrendako jolasparkea •
- Koktelarako leku aproposa •

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

T. 948 625 472 | Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com



3 jantoki
menu desberdinak eta pertsonalizatuak
2 aparkaleku

Zuen egun berezia ospatzeko leku berezia

Nagusia, 13 - ALMANDOZ | 948 585 300
www.beola.com





Aukeratutako sortzaileetako batzuk eta udaletako ordezkariak Beran egindako aurkezpenean. TTIPI-TTAPA

Geuretik Sortuak proiektuaren bigarren aldia

Eskualdeko hainbat herritan eginen dituzte egonaldiak sortzaileek: Beran, Lesakan, Leitza eta Saran

TTIPI-TTAPA BERA

Martxoaren 3an egin zuten Beran Udabiltzak antolatutako Geuretik Sortuak egitasmoaren bigarren edizioaren aurkezpena. Lehenengo edizioarekin alderatuz, ez dago aldaketa nabarmenik: lau modalitateko sortzaileek egonaldiak eginen dituzte aldeztinetik aukeratutako herrietan, eta ondotik egonaldi bakoitzean sorturiko lanekin kultur zirkuitua osatuko dute.

Lehenengo edizioaren helburu berbera du bigarren deialdi honek ere: euskara hutsean egindako artea eta

kulturaren sormena, ekoizpena eta hedapena sustatzea.

22 sortzaile aukeratuak

Iazko urrian zabaldu zuten beka deialdia lau modalitateetan: literatura, zinegintza, antzerkigintza, eta komikigintza. 60 proposamen jaso dituzte, eta 22 izan dira aukeratutakoak. Aurten ere, bi, hiru, lau eta bost udalerritako multzoak egonen direla azaldu dute, euren kabuz parte hartzea erabaki dutenez gain. Eskualdeari dagokionez, Berak, Lesakan, Sarak eta Urruñak elkarrekin hartuko dute parte

proiektuan, eta Leitza, aldiz Gipuzkoako Berastegirekin aurkeztu da. Eskualdeko sortzaileei dagokionez, Jon Abril Olaetxea beratarren eta Gaizka Sarasola Iartzabal lesakarraren proiektuak aukeratu dituzte. Abrilek Atharratzen (Zuberoa) eginen du egonaldia eta eta Sarasolak Larrabetzun (Bizkaia). Biek ipuin bana sortu beharko dute.

Hauek dira aukeratutako sortzaileak, eta bakoitzari egokitutako herria:

Literaturan, Edorta Jimenez, Ainhoa Urien, Idoia Etxeberria, Maddi Arozena, **Jon Abril**, Lutxo Egia, Maitane Perez, Saioa Alkaiza, Maite Aizpurua eta **Gaizka Sarasola** izan dira aukeratuak eta egonaldiak ondoko herrietan egiten dituzte. Mutriku; Lodosa, Sartaguda, Mendabia, Andosilla eta Sesma; Zaldibia eta Ataun; Zioztza-Bolibar; Atharratze; Segura; Errigoiti, Ajangiz eta Muxika; Berriatua; Araitz, Betelu eta Larraun, eta Larrabetzu.

Antzerkiari dagokionez bi konpainia eta norbanako bat saritu dituzte. Goitibera konpainiak Hernanin eginen du egonaldia; Antzerki Aroak-Zinealdiak Zumaian eta Jon Ander Urresti Ugaldek Aulestin, Munitibarren eta Amoroton.

Zinegintzari dagokionez, lau beka emanen dituzte. Pello Etxeberria Antzuolan eta Aiheran ariko da; Arriguri eta Aitor Gametxo Uhartan; Alba Lozano Oiartzunen eta Aitzol Saratxaga Legutian.

Azkenik, komikigintzan bost dira aukeratuak: Inaki Martiarena *Mattin* Usurbilen izanen da; **Aritz Ibarra Saran, Urruñan, Beran eta Lesakan;** Kote Camacho Bergaran; **Unai Gaztelumendi Leitza eta Berastegin eta Eñaut Aiertzaguena Bravo:** Amasa-Villabonan.

Udalerriri horietan hiru aste- bitarteko egonaldiak eginen dituzte aurten, eta sorkuntza lana bukatu ondotik, 2024an kultur zirkuitua osatuko dute. Ipuinak eta komikiak bilduma banatan argitaratuko dira, film laburrekin muntaia orokor bat eginen dute, eta antzezlanak euren kabuz aurkeztuko dituzte.

GAIZKA SARASOLA ETA JON ABRIL IDAZLEAK SARITU DITUZTE

Hilaren bukaera arte ematen ahal da izena Salto! udalekuan

TTIPI-TTAPA

Udalerriri euskaldunetako gazteentzako udalekuak antolatu ditu aurten ere UEMAK eta ekainaren 26tik uztailearen 4ra izango dira. Aurten ere ibiltaria izango da eta Orozkotik Dimarako (Bizkaia) bidea egingo dute udalekuan

parte hartuko duten 120 lagunek. Udalerriri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentibilizatzea, kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da udalekuen helburua.

Lau herritatik pasatuko da udalekua. Herri bakoitzean

bi gau pasatuko dituzte, eta herri batetik bertara oinez mugituko dira. Lehen bi egunak Orozkon pasako dituzte, hurrengo biak Areatzan, hurrengoak Otxandion eta azkenak Diman. Herriz herriko ibilaldiez gain kultur ekitaldiak, tailerrak eta solasaldiak izanen dituzte, eta euskaldun gisa kontzientziazteko, indartzeko eta ahalduntzeko gunea izanen dira udalekuak.

Aurten, 2005 eta 2008 urteen artean jaiotako gazteek izango dute udalekuan parte hartzeko aukera. Izena emateko hiru modu daude: uema.eus webgunean sartuta bertako galdetegiaren bidez, 943 81 66 99 telefonora deituz, edota inskripzio datuak arnaseguneak@uema.eus helbidera bidaltuz. Hilaren amaiera arte eman ahal izanen da izena.

Futbol eta multikirol campusa antolatu du Aurrerak apirilean

Apirilaren 11tik 14ra egingen dute eta lau eta hamahiru urte bitarteko neska-mutilentzat izanen da

TTIPI-TTAPA

Oporraldian orain arte egin diren futbol campusek izandako arrakastari segida emanaz, Aurrera Kirol Elkartek beste eskaintza bat egin du neska-mutikoen apirileko jaiegunetarako: futbol eta multikirol campusa antolatu du. Apirilaren 11n, 12an, 13an eta 14an egingen dute, 09:00etatik 14:00etara. Lau eta hamahiru urte bitarteko neska-mutilentzat izanen da.

Izena emateko azken eguna apirilaren 10a izanen da. Horretarako aurrerakanpusa@gmail.com helbidera edo Whatsappez 690 01 96 58ra idatzi behar da. Taldea aurrera ateratzeko gutxieneko kopurua ere zehaztu dute: talde bakoitzeko hamabi haur. Lau egunetarako apuntatuz gero, 80 euro ordaindu beharko dira,



Aurreraren campuseko irudi bat.

eta egun solteetan eginez gero, 25 euro. Bigarren senideak izena ematen badu % 20ko deskontua aplikatuko dute. Prezioan gosaria, aseguru eta oparia sartuko dira.

Itzuliaren etaparik luzeena izanen da Leitzan bukatuko dena

TTIPI-TTAPA

Aspaldi iragarri zuten, baina eguna hurbiltzen ari da: apirilaren 4an Itzulia Leitzan bukatuko da. Horren harira, martxoaren 9an, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Mikel Zabaleta alkateak, Eneko Andueza kirol zinegotziak eta Julian Eraso OCETAko presidentek. Itzuliaren etaparik luzeena izanen da Vianan hasi eta 193,8 kilometroren ondoren Leitzan bukatuko dena. Uitzaldi aldetik sartuko dira txirindulariak Leitzara azken 65 bat kilometroak falta direla, eta Arkiskilen barrena, Ezkuratik Saldias aldera joanen dira; Beintza-Labaien, Urroz, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubietan eta Ezkurra atzean utzita, berriz Arkiskilen barrena, herrira sartuko dira. Gutxi gorabeherako ordutegiak ere zehaztu dituzte. Aurreneko aldiz Leitzara 15:45-16:00 aldera hurbilduko dira eta helmuga 17:15-17:45 aldera aurreikusitako dute.

Karlos III.aren Gurutzea hartuko du Iñaki Perurenak

Zazpi lagunek hartuko dute Nafarroako Gobernuak emandako Karlos III.aren Gurutzea eta tartean, Iñaki Perurena harri jasotzaileak; «herri kirolak mantendu eta zabaltzeko egindako lanagatik, baita Peru-Harri museoan eta beste zenbait lanetan islatzen den euskal kulturaren zabalpenagatik».



Iñaki Perurena.

Jose Luis Barberia 'Zili' bertsolaria zendu da

Martxoaren 13an zendu zen Jose Luis Barberia Villabona Zili. Herritik kanpo hainbat bertsolari txapelketetan ibilitakoa zen: Nafarroako Bertsolari Txapelketan, Mariano Izeta eta Xaltoa sariketetan, Bardoak Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketan... Bere heriotzak samin handia eragin du.



Txapelketetan ibilitakoa zen Zili.



AURRERA DANTZA TALDEA

Aurrerakoien dantza erakustaldi ederra

Arrotzetik izeneko ikuskizun berezia sortu eta jendaurrean erakutsi zuten Aurrera Dantza Taldeko kideek martxoaren 10ean eta 11n Herri Aretoan. Berriz ere dantzari bikainak direla erakutsi zuten Aurrerakoek.

Bertso bazkaria eta hainbat kultur hitzordu aukeran

Sarek antolatuta, larunbat honetan bertso bazkaria egingen dute Atekabeltzen

TTIPI-TTAPA

Xabat Illarregi eta Aitor Mendiluze bertso bazkaria egingen dute larunbat honetan, martxoaren 25ean. Sarek antolatu du hitzordua eta Atekabeltzen bilduko dira bazkaltzeko, 14:30ean. Txartelak Maimurren eta Torrean eros daitezke 30 eurotan, eta langabeen kasuan 20 eurotan.

Ez da eguneko hitzordu bakarra izanen. Aurretik, Aralar Musika Eskolakoek *Kasumitarrak* antzerki musikatua egingen dute Herri Aretoan, 11:30ean. Gonbidapenak info@aralar.org atarian eskatu behar dira.



Xabat Illarregi eta Aitor Mendiluze.

Apirileko zinema saioak

Apiril hasierako film emanaldiak ere zehaztu dituzte. Apirilaren 1ean eta 2an 16:30eko saioan *Maridos* ikusteko aukera izanen da eta 19:00etako saioan *Los*

Reyes del mundo. Apirilaren 10ean, *Led Silhouette* talde lesakarrak *Creepy Crawly* dantza saioa aurkeztuko du 19:00-etan Herri Aretoan. Sarrerak *leitza.eus* atarian eros daitezke.

Haurrentzako masaje tailerra aste honetan eta hurrengoan

TTIPI-TTAPA

Umeei masajeak egiten ikasi eta bide batez, beraien zainketari eta heziketari buruzko gaiak, zalantzak eta kezak partekatzeko asmoz, 0 eta 12 hilabete bitarteko haurrentzako masaje tailerra antolatu du Leitza, Areso, Goizueta eta

Aranoko Adin Txikikoen Tratu Onen Sareak. Familia txokoaren baitan antolatu du eta martxoaren 24an, 29an, 30ean eta 31n udaletxeko aurreneko solairuan bilduko dira, 10:00etatik 11:00etara.

Tailerrak dohainik izanen dira.



ENERITZ IRAOLA

Merkatarien stock azoka

Amazabal frontoia Kaxkabeltza elkarteko merkatarien bilgune bihurtu zen martxoaren 4an eta 5ean. Larunbatean egun osoan eta igande goizean hainbat eskaintza egin zituzten merkatariak, eta bisitariak ez zuten aukera galdu nahi izan.

Martxoaren 8a borobiltzeko autodefentsa feminista tailerra

JM BARRIOLA

Urtero bezala, herritar askok bat egin zuen mugimendu feministak deituta Emakumearen Nazioarteko Egunean egin zen manifestazioarekin. Lañaidek neska gazteen taldearen arabera, «ehun bat lagun» bildu ziren eta «denon bizitzak erdigunean» jartzeko eskatu zuten.

Emakumearen eguneko ekitaldiak bukatzeko, Lañaidek taldeak autodefentsa feminista tailerraren bi saio antolatu ditu. Aurrenekoa martxoaren 3an egin zuten eta bigarrena hilaren 31n egingen dute, 16:30ean.

Inkestaren emaitzak

Indarkeria sexistari lotuta, ingurukoneskek* eta emakumeek* izan dituzten bizipenak biltzeko galdetegia ere egin du Leitza eta Aresoko Berdintasun Batzordeak. Horietatik abiatuta, «erasotzaileak batzuetan hurbileko gizonak direla» ondorioztatu du, «eta horrek emakumeari egoera zailtzen diela». Erasoa gertatzen diren espazioei dagokienez, «askotariko espazioetan» izaten direla baieztatu du, «ez festa giroan bakarrik». Horrez gain, «eraso gehienak intentsitate baxukoak»



Ehun bat lagun bildu ziren martxoaren 8ko manifestazioan. LAÑAIDEK

direla gaineratu du, «inguruko enpresa arreta deitzen ez dutenak. Horrek eraso jasan duena bere burua zalantzan jartzera eraman izan du». Egoera horren aurrean, «prebentzio sistema indartzea»

ren» garrantzia nabarmendu du berdintasun batzordeak, baita «heziketaxual efektibo» egin behar dela ere. Eta «ezinbestekotzat» jo du «gizonen inplikazioa».

Erabilera anitzeko gunearen prestaketak aurrera

Hezkuntza Departamentua hasia da beharrezko altzari eta ekipamenduak bidaltzen

ENERITZ IRAOLA

Garai batean irakasleen etxebizitza zena moldatu eta erabilera anitzeko gune bat sortu dute Nazabal Eskolako goiko solairuan. Berritze lanak bukatuta, espazioa nola hornitu lortzea zen hurrengo erronka. Hezkuntza Departamentuak baiezkoa eman dio eskolaren eskaerari eta altzariak eta ekipamenduak bidaltzea onartu dute. Materialaren zati bat dagoeneko eskolan dago: mahaiak, aulkiak, apalak, kortxoak... eta falta direnak datozen asteetan jasotzekoak dituzte. Guztia txukun jarri, eskolako gauzak igo, egokitu... eta espazioa erabiltzen hasteko gogotsu daudela aitortu du Susana Lasarte zuzendariak: «espazio honek amasa emango dio eskolari eta asko lagunduko digu, tokiz oso estu gertatzen zela».

Eskoletxeko goiko solairuan sei gela bereizi dituzte: liburutegia, ikus-entzunezko gela, komuna, irakasle gela, biltegia eta bilera gela. Gela horietako batzuetarako sarbidea irakasleei mugatua egongo da eta eskola orduetan eskolakizango du beti lehentasuna. Baina eskola orduetatik kanpo herri osoari zabaldu nahi zaio gunea. Horregatik, udalak herriko eragileekin biltzeko asmoa du espazioaren erabileraren inguruan egon daitezkeen aukerak aztertzeko.

Idazkaririk gabe

Martxo hasieran utzi zuen Garazi Lopez Villanuevak idazkari kargua eta ordezkaria bilatzen ari dira. Udaleko zereginenez gain, Gizarte Zerbitzuetako eta Mendi aldeko Mankomunitateko idazkari lanak ere bere gain hartuko ditu ordezkariak.



NAZABAL ESKOLA

Elurretan gozatzeko aukera

Inguruak txuri zeudela aprobetxatuz, ikasgeletatik atera eta elurretan gozatzeko tarte hartu zuten Nazabal eskolako ikasleek eta irakasleek. Dударik gabe, eguneroko martxatik atera eta otsailari bukaera emateko modu paregabea izan zen!

Aresoarrak sokatirako mundu mailako txapelketan

Aresoko taldea desagertu bazen ere, badira oraindik kirol honi loturik segitzen duten herritarrik. Irlandan jokatu den munduko txapelketan parte hartu dute Jabier Oterminen eta Iñaki Galarragak Ibarra taldearekin.



UTZITAKOA



BAKARTXO ANIZ

Martxoaren 8ko ekitaldiak

Eskolan lanketa berezia egin zuten haurrek: jantzi moreak soinean jantzi, dantzak, eskulanak, etxeko emakumeei aitortza egin eta eskola atarian murala ere margotu zuten. Iluntzean, Udalak deituta elkarretaratzea egin zuten plaza zaharrean.



JUAN ANTONIO GARAIKOETXEA

Emakumezkoen eskubaloiaz goatzera

Aresoar kuadrilla ederra joan zen martxoaren 11n Donostiara Beti Onak eta Bera Bera eskubaloi taldeen arteko partida ikustera. Beti Onak taldeko Aileen Riparen bisita izan zuten eskolan duela gutxi eta ordainetan aresoarren animoak izan zituen Atarrabiako taldeak azken partidari.



Gobernu eta udal ordezkariak aurkezpenean. NAFARROAKO GOBERNUA

425.000 euro Ornoz-Mugairiko biribilgunea egiteko

Biribilgunea akituta, Almandozerrainoko errepide tarteko lanen lizitazioa 14 milioi eurotan iragarri dute

TTIPI-TTAPA

Hilabete pasa lanean aritu ondotik, Oronoz-Mugairi eta N-121-A errepidea lotzen dituen biribilgunea berria ireki zuten martxoaren 7an.

Aurkezpenean hainbat ordezkari izan ziren; Bernardo Ziriza (Lurralde Kohesiorako kontseilaria) Jose Luis Arasti (Nafarroako Gobernuako ordezkaria), Pedro Lopez (Obra Publikoko eta Azpiegituren zuzendaria), Jesus Polo (Azpiegitura Berrien Zerbitzuen burua), Joseba Otondo, Andres Etxenike eta Leire Ortuoste (Baztan, Bertizarana eta Do-

neztebeko alkateak), Sunbilla Udaleko Jose Francisco Errandonea, Jorge Oteiza (Ornoz-Mugairiko alkate juratua), eta lanak egin dituen enpresako ordezkariak.

425.000 euroko inbertsioa egin dute biribilgunean. 46 metroko diametroa dauka, 6 metroko errepidearekin eta 3

ALMANDOZEKO TARTEAREN LANAK ZAZPI HILABETEZ LUZATUKO DIRA

metroko espaloiarekin, eta argiztapena ere paratu diote.

N-121-Ako lanak

Lanen helburua «errepidearen segurtasuna bermatzea» dela azpimarratu dute. Guztira, 55 milioi euroko inbertsioak egin dira gaur arte 2+1 errepidean, eta horri Belateko tunela bikoizteko 40 milioiko aurrekontua gehitu behar zaio. 2021ean hasi ziren N-121-A errepideko lanak, eta 17 kilometroko tartea bukatu dute, Ezkabatik Lantzera. Baztan eta Sunbilla arteko zatian lanean ari dira, eta azken tartean, Sunbillatik Enderlatsara, proiektua aztertzen ari dira.

Almandoz eta Oronoz-Mugairiko tartea

Aurkezpenaren egunean, Ziriza kontseilariak 14 milioi eurotan iragarri zuen Almandoz eta Oronoz-Mugairi arteko lanen lizitazioa. 5,6 kilometroko tartea hartuko dute, 35+300 kilometrotik hasita (Almandozko tunelaren irteeratik) eta lanak zazpi hilabeteetan egitea aurreikusiko dute.

Errepideak bi errei izanen ditu Irungon noranzkoan tarte gehienetan, eta norabideen arteko bereizketa tartea eta hesia paratuko dituzte, istripu arriskua murrizteko. Gainera, Zozaiako sarbidea eta aterabidea hobetuko dituzte, azelerazio eta dezelerazio tartean handituz, eta pantaila akustikoak paratuko dituzte Zozaiako irteeran.

BRTk Errugbiaren gaupasa antolatu du maiatzaren 13an Larraintzarren

TTIPI-TTAPA

BRT Menditarrak taldeak Errugbiaren Gaupasa antolatu du bertze behin Larraintzarren, aurten maiatzaren 13an. 19. edizioa izanen da eta joan den urtekoaren egitaraua segituko du, baina beritasun batekin: arratsaldean errugbi lehiaketak izanen dira.

Euskal Herriko hainbat talde gonbidatu dituzte adin guzietarako lehiaketan parte hartzera eta partiden ondotik, kontzertuak hasiko dira. Afariari dagokionez, joan den urtean bezala bokatak izanen dira zikiroaren ordeiz.

Zozketa

Horrez gain, gaupasarako zozketa abiatu dute jokalariek eta hainbat sari banatuko dituzte.

Lehenbiziko sarian lau aukeren artean hautatzen ahaliko da: bi lagunendako bidaiaria Senegalera zortzi egunetarako, bizikleta elektriko bat, egurra xehatzeko makina edo Baztango aratze bat. Bigarren sariak, berriz, eskualdeko produktuez osatutako bi saski izanen dira.

Txartelak bi eurotan lor daitezke taldeko edozein kidearekin harremanetan jarrita.

SOLAR TRES60

Eguzki energiaren instalazioan espezialistak gara.


Energia fotovoltaiakoko eta energia eraginkortasuneko lanak egiten ditugu profesional talde kualifikatuarekin

DENA GURE ESKU

- DIRULAGUNTZAK
- FINANTZIAZIAZIOA
- KONPENTSAZIOA
- MONITORIZAZIOA
- GARANTIAK
- ZERBITZU TEKNIKOA

☎ 644 60 18 78 ✉ info@solartres60.com

📍 Poligono industrial La Barrera, C. Canal de Navarra. TUTERA



Baztan eta Urdazubin aurre-aukeratutako kirolariak. BAZTANGO KENPO KAI

Baztango Kenpo kai taldea munduko txapelketara

Irailaren 27tik urriaren 1era Afrikan jokatu da munduko txapelketa eta Euskal Herria ordezkatu dute

TTIPI-TTAPA

Aurten Afrikan jokatu da Munduko Kenpo kai txapelketa, Tunisiako Hammamet hirian. Baztan eta Urdazubiko kenpo kai eskolako hainbat kirolari izan dira aurre-aukeratuak eta gehienak bertan izanen direla jakinarazi digu Mikel Bakero taldekideak. Aitzinetik, Nafarroako txapelketa jokatzekoa da maiatzean Beran eta Berako taldetik ere joanen dira munduko txapelketa.

Adin eta kategoriatan banatuak, Mikel Bakero, Hegoi Bakero, Nerea Sanz, Ibai Ale-

man, Beñat Etxeberria, Aimar Rekarte, Miguel Nuñez, Iñaki Alzuyet, Nahia Alzuyet, Aiora Alzuyet eta Daniel Sanz izan dira Baztan eta Urdazubiko aurre-aukeratuak. Mikel Bakeroen erranetan, «Kenpo kaia gure herrialdean sustrai handiak dituen arte martziala da, praktikante ugari ditu eta 20 urte baino gehiagoko bidea. Gure lehiakideak Euskal Herria ordezkatzera joanen dira txapelketa eta espezialitate honetako kirolari onenekin lehiatzeko aukera izanen dute». Gogor ari dira entrenatzen neska-mutilak.



Anizko frontoian entrenatzen dute ortziraletan. MAITANE MARITORENA

Haur eta kimu mailako Basaburua Herri Kirol taldea martxan hasi da

MAITANE MARITORENA

Aspaldiko partez, haurren eta kimu mailako Basaburua Herri Kirol taldea martxan hasi da. Martxoaren 5ean, igandea, izan zuten lehenbiziko jardunaldia Atarrabian. Kimuak hirugarren gelditu ziren, eta haurren mailan aritzen direnak, berriz, lehenbizikoak.

Martxoko hilabetean igandero izanen dituzte jardunaldiak, eta jardunaldi guztietan denbora hoberena egiten duena arituko da apirilaren 2an Igantzin izanen den finalean. Bitartean, orain artio bezala, ondoko ortziraletan Anizko frontoian segituko dute entrenatu bidenabar, jostetan.

Baztango hegaztiak ezagutzeko ibilaldia antolatu dute apirilaren 23an

TTIPI-TTAPA

Baztango txoriak ezagutzeko bi hitzordu antolatu dituzte Amezti elkarteak eta Talde Ekosozialak martxoan eta apirilean. Lehenbizikoa joan den astean Mikel Olanok aurkeztutako 'Txoriekin solasean' ikastaroa izan zen.

Bigarrena, berriz, apirilaren 23an egingen den 'Baztango hegaztien eta kulturaren arteko loturak: begirada ekologikoa' ibilaldia izanen da. 11:00etan Elizondoko plazatik abiatuko dira, eta Gorka eta Marcos biologoek emanen dituzte azalpenak.



ANZABAL
Inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20804 - Donostia

@oteizaarquitectos

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE

abokatuak

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818

Santiago, 59 2C ELIZONDO





IZASKUN ALMANDOZ

Lekarozko emakumeen bazkaria bikain

Urte luzeetako ohitura berrartuz, emakumeen bazkaria egin zuten martxoaren 8aren bueltan Lekarozko elkartearen, martxoaren 11n. Adin guzietako 36 emakume bildu ziren, 23 urtetik 97 urtera bitartekoak. Giro ederra izan zuten eta bazkalondoan kantuan eta dantzan aritu ziren.

'Trans-formatzen' dokumentala eta informazio saioa martxoaren 30ean

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 30ean, Trans Ikusgarritasunaren Nazioarteko egunean, Baztango Berdintasun Zerbitzuak eta Naizen elkarteak haur eta gazteen transexualitateari buruzko hitzordua antolatu dute Elizondoko Arizkunenea Kultur etxean. 18:30ean *Trans-formatzen* dokumentala proiektatuko dute hitzaldi aretoan, euskaraz. 38 minutukoa izanen da, eta ondotik Naizen elkartearen informazio saioa izanen da. Adingabe transexualen familien elkarteko kideek be-

ren bizipenak partekatuko dituzte, eta galderak egiteko aukera izanen da. Azkenik, ezagutza teorikoan sakontzeko sexologo batek zenbait kontzeptu, lege eta protokolo azalduko ditu.

'Trans-formatzen'

HiKiru taldeakekoiztutako lana da *Trans-formatzen*, eta «transexualitatearen inguruko zailtasunak eta iluntasunak argitzea» du helburu. Testigantzak eta informazioa bilduz, hainbat egoera ezagutzeko eta gogoe-tarako aukera ematen du.



Adierazpenen irakurketak bidenabar, kartel bar margotu zuten. TTIPI-TTAPA

Jendetza Elizondoko plazan martxoaren 8aren ekitaldian

Hainbat baztandar bildu ziren antolakuntza feminista aldarrikatzeko eta zaintza lanen egoera prekarioa salatzen.

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, hainbat baztandar bildu ziren martxoaren 8ko arratsaldean Elizondoko plazan, Baztango Talde Feministak eta Iñarrosi Neska* Gazteen Taldeak deitutako elkarretaratzean. Danbor soinuekin hasi zuten ekitaldia, eta ondotik lau emakumek lau testu leitu zituzten, 'Antolakuntza feministarik gabe eraldaketarik ez' zioen kartela margotzen zuten bitartean. Azkenik, Olaia Inziarteren *Zuei* abestia kantatu zuten.



Talde feministako kideak plazan.

Zaintza erdigunean

Martxoaren 8ko aldarrikapean, zaintza lanen garrantzia nabarmendu zuten: «bizi garen sistema kapitalista eta hetero-patriarkalak ordaindutako nahiz ordaindu gabeko zaintza lanak bigarren

mailako bezala hartzen ditu. Soldata arrakala egundokoa da eta zer erranik ez emakume migratuen inguruan solastatzen bagara». Baztanen, «hala nola, egun eta gau etxeetan lan egiten duten interinena, haur eskolako hezitzaileena, zahar etxeko zaintzaileena, edo Benito Menniko langileena». Horregatik «mugimendu feminista antolatzea eta indartzea beharrezkoa da, bide berriak irekitzeko».

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
SERVICIOS DE CONSTRUCCION

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

MARMOLES SOULE

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com



Sagardotegiaren irekiera eta bertako hiru bazkide-langileak. ONDIKOL



Adin guzietako herritarrak bildu ziren bazkarian. XABIER MARITORENA

Arraioztarrak sagardotegian

Txotx denboraldia giro ezin hobean ireki zuten arraioztarrek. Martxoaren 4an ateraldia egin zuten aspaldiko partez eta giro bikaina izan zuten: «menu ederra, sagardoa nahi adina eta dantzan eta kantuan aritzeko aukera. Heldu den urtean berri!».

Larraldea sagardotegi berriak txotx denboraldia hasi du

30 urte bete dituen sagardotegia hamabortz lagunek osatzen duten Eztibeltza Kooperatibak kudeatuko du

TTIPI-TTAPA

Urtebeteren ondotik, martxoaren 4an ireki zituen ateak Lekarozko Larraldea sagardotegiak. Berrikuntza handiekin dator, orain arte Jesus Angel Garcia lekaroztarrak kudeatzen zuen sagardotegia Eztibeltza Kooperatibaren eskuetara pasa baita.

Eztibeltza Kooperatiba

Hamabortz lagunek osatzen dute Eztibeltza kooperatiba, baina horietako hiruk eginen dituzte sagardotegiko bazkide-langile lanak: Xabi Torresek, Oianko Gardek eta Marijo Indaberek. Eztibeltza izena Baztango sagar-mota batetik hartu dute.

Joan den urtean, Larraldea itxi behar zutela jakitun, Jo ala Jo kultur elkarteko kideek erabaki zuten sagardotegiaren aldeko apustua egitea. Izan ere, hogeitau urte baino gehiago daramate Arizkungo Gamiozarreko dolarearekin lanean, sagardoa eginez eta Kirikoke-ta Eguna antolatzen.

Lan horrekin segitzeko asmoa dute eta Larraldean eskainiko dituzten otorduez gain, sagardoarekin eta sagardotegiekin lotutako bertze kultur proiektuak ere aitzinera eraman nahi dituzte. Joan den abuztuan eskuratu zuten sagardotegia eta auzolanean berrogei bat lagun ibili dira, sagarra biltzen, sagardoa egiten... eta 35.000 litro kupeleratu dituzte.

Etorkizunera begira

Maiatzaren 30era bitarte bazkariak eta afariak eskainiko dituzte asteburuetan eta abuztuan ere irekitzeko asmoa dute. Data horietaz kanpo talderen batek erreserbatuko balu, irekitzeko prest daude. Heldu den urtetik aitzinera, sagardotegi garaian irekiko dute. www.larraldea.eus webgunea ere sortu dute, informazioa emateko eta erreserbak egiteko.

MAIATZAREN 30ERA ARTE ASTEBURUETAN IREKIKO DUTE

ZURE ZERBITZURA:

- Bonaketa-ibiltzaileak
- Enbrogia
- Olita abiltzaileak
- Bilaketa
- Perrenatzeak

KALITATEKO MANTENTZE-LANAK PREZIORIK ONENEAN

Hitzordua telefonoz edo whatsapp bidez:
+34 608 791 971

+34 948 599 236 · www.josenea.es · centroauto@josenea.es

TAILERRAREN ORDUTEGIA Astelehenerdik ortziratera : 08:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00 Gasolindegia ORDUTEGIA : 24ordu/24 Josenea Zone Auto (Dantxarriko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarrieta Nafarroa.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
 Ferretaria · Sukaldeko tresnak
 Mozorroak · Papertegia
 Kiroleko eta mendiko jantziak
 Moda · Oinetakoak
 Laneko arropa · Bitxiak
 Lurrin-denda
 Kosmetika, Elektronika
 Telefonoak · Poltsak eta mailetak
 Etab.

T. 608 016 052
 San Andres, 66 · NARBARTE
 (Sarrera Legasatik)

Baztango energia ordenantza berria errekurritu dute

Redes Eléctricas Inteligentes enpresak urtarrilean indarrean sartu den ordenantzaren kontra errekurtsua aurkeztu du

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko buruilean, Baztango Udalbatzak energia enpresendako ordenantza berriari hasierako onespina eman zion, EH Bilduren, Ezkerraren eta Geroa Bairen babesarekin eta Navarra Sumaren kontrako bozkarekin. Energia elektrikoa, gasa, hidrokarburoa eta uraren goi hornidura garraiatzeko instalazioei eragiten die ordenantzak, eta urtarrilaren 23an sartu zen indarrean.

Udalak martxoaren 9an jakin zuen Iberdrola taldeko Redes Eléctricas Inteligentes enpresak ordenantzaren kontrako errekurtsua aurkeztu duela. Otondo alkateak azaldu duenez, «energia enpresak izaten ari diren irabazi alimaleak onartezinak dira. Ordenantza honek udalaren autonomia eta legea baliatuz enpresa hauek zergapetzeko modua eskaintzen du. Energiarena sektore estrategikoa da herritarrendako eta ekonomiarendako eta osoki publikatu beharko litzateke».

Ordenantzak «udalerriko eremu publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia zergapetzen ditu: kableak, hodiak eta galeriak, argindarra, ura, gasa edo berze edozein fluido eramateko; lineetarako zutoinak; kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistroarako kaxak, transformadoreak, burdin-barrak, baskulak, salmenta automatikorako makinak... baldin eta bide publikoetan edo herriko eremu publikoko lurretan paratzen badira».

Gasaren, elektrizitatearen eta hidrokarburoaren sektoreetako enpresei edo ustiatzaileei ezarriko zaie ordenantza, «eremu publikoa erabiltzen badute beren onurarako. Hau da, energia elektrikoa, hidrokarburoak (gasbideak, oliobidea eta antzekoak) eta ura garraiatzen, banatzen, zerbitzatzen eta merkaturatzen duten enpresei, horretarako erabiltzen edo aprobetxatzen dutenak herriko eremu publikoak badira, beren instalazioekin bertako jabetza publikoari eraginez».

Arizkun Rockek jaialdiaren azken edizioa egingen du ekainaren 23an

TTIPI-TTAPA

Antolatzaileek azaldu dutenez, «10 urte pasatu dira Arizkun Rock sortu zenetik. Eta horrez geroztik, milaka istorio, bizipen eta huts izan ditugu. Ez da bide erraza izan, baina oztupo eta traba ugari eduki arren, esker oneko hitzak bertzerik ez ditugu urte hauetan guztietan lagundu gaituztenendako. Arizkungo jendeari, taldeko kide izan zinetenei, zereginetan laguntzeko prest egon zaretenei, merchandising-a erosi diguzuenei, babesleei, publikoari, langileei, musikariei eta artistei».

«Erabaki hau aspalditik heldu da, ongi hausnartua. Lan-karga arras handia da hain antolakuntza tikiarendako. Urte aunitz dira eta neke-puntua gero eta nabarmenagoa. Jarraipenik ez dagoenez, ziklo



Jaialdiko azken edizioko kamisetak.

hau hestea erabaki dugu. Horrela ulertzen dugu bizitza, dena hasi eta akitzen da, eta horregatik, hemen Arizkun Rocken bukaera».

Azken kamisetak

Aurtengo edizioko kamisetak ere salgai daude dagoeneko, 15 eurotan eta neurri guztietan. Euskal Herrian serigrafatuak dira eta pulterak oparituak dituzte. info@arizkunrock.eus helbidean eskatu daitezke.

Martina Novatskyk 'Itzulera' liburua aurkeztuko du 27an Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Bidelagun elkarteak antolatua, *Itzulera (Volver aquí)* liburua-aren aurkezpena izanen da martxoaren 27an 19:00etan Arizkunenean. Martina Novatsky autoreak aurkeztuko du, eta bere bizipenak kontatuko ditu.

Izan ere, liburuan berak bizitutako esperientzia kontatzen du idazleak: hiru hilabetez koman eta klinikoki hilda egon ondotik, berpiztu egin zen. Bizitzari, heriotzari eta espiritualitateari buruzko hausnarketa bat da liburua.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean




«Aniz herri ttikia baina hagitz parte-hartzailea eta bizia da»

IÑAKI ZELAIETA ERASUN ANIZKO ALKATEA

Hurrengo agintaldirako alkateak berriro dituzte Baztanen, eta hainbat herritan alkate juratu berriak izendatu dituzte. Anizen, alkateak eta etorkizuneko erronkez aritu da Iñaki Zelaieta

R. OSKARIZ ANIZ

Sortzez beratarra bada ere, duela 15 urte Anizen bizi da Iñaki Zelaieta Erasun: «Lehenbiziko Elizondora joan nintzen pisu batean bizitzera bi urtez, eta etxea egin genue-larik Anizera etorri ginen. Aldaketa handia izan zen, baina nahiko erraz moldatu nintzen». Gainerako aniztarrek bezala, herriko kontuetan parte hartzen du, eta aurtengo agintaldian alkate-tza hartu du hurrengo bi urteetarako.

Nola animatu zinen alkate izatera?

Aniz herri ttikia da, baina hagitz parte-hartzailea, eta alkate-tza normalean familiak txandakatzen da. Nire adintsuko gehienek pasatu zuten eta bagenekien gure etxera etorriko zela. Herrian lagundu nahi bada, horretan sartu behar da.

Gogotsu hartu duzu alkate-tza?

Bai, horrelako karguak gogoarekin hartu behar dira beti.

Eta karguak eragin handia du zure egunerokoan?

Egia da gauza aunitzen gainean egon beharra zarela, eta kezka eta ardura aunitz izaten direla buruan. Baina alkate-tza etxeko ardura bezala hartzen dugu, eta pape-retan nire izena agertzen bada ere, bikotekidearen laguntza daukat. Bion artean errazago ateratzen dugu dena aitzi-nera.



Iñaki Zelaieta beratarra da Anizko alkate berria agintaldi honetan. UTZITAKOIA

Zein dira alkatearen betebeharrak?

Erabakiak eta lanak denon artean egiten ditugu, nire ardura aurpegia ematea da, herriaren izenean solastatzea. Ez dugu lantalde zehatzik, baina batzarrak maiz egiten ditugu eta herriaren gehien-goia inplikatzeko da erabakiak hartzerakoan.

Erraza da aurpegia ematea?

Herriaren babesa daukazu-nean eta jendea hain bate-

ratua dagoenean, errazagoa da. Ez zait hainbertze kostatzen. Oraindik ez zait tokatu Batzar Nagusian ibiltzea, baina herria ordezkatzeko dudanez, kontzientzia lasai dut. Badakit erabakiak lehenagotik denon artean adostu ditugula eta errazagoa da zure hitza defendatzea herri oso baten babesa gibelean duzunean.

Anizeri dagokionez, zein hobekuntza egin dira azken urteetan?

«ERABAKIAK ETA LANAK DENON ARTEAN EGITEN DITUGU»

«ANIZEN HAUR, GAZTE ETA ZAHAR, DENAK ELKARTZEN DIRA»

Poliki-poliki pista guziak konpontzen aritu gara. Zuloz beteak zeuden eta zaborra botatzen eta zementatzen ibili gara. Horiek izan dira azken urteetako obra haundienak. Horrez gain, hondakinen arloan, joan den udazkenean Nafarroan egin zen Errefusaren Txapelketan Anizko herria garaile suertatu zen, Basaburuko kuartela izan baitzen biztanleko hondakin guttien sortu zuena. Bertan lortutako sariarekin, panel bat egin dugu eta herriko etxe eta parajeen izenak ageri dira bertan.

Eta zein behar ikusten dituzu gaur egun?

Aurten horretan segituko dugu, pistak moldatzen. Gainera, herriko frontoia aspal-dixko pintatu genuen eta aurrekontua eskatu behar dugu, berriz pintatzeko beharra ikusten baitugu. Honez gain, noizbehinka auzolanak ateratzen dira beharren arabera, eta urarekin ere kezka ditugu ihesak izaten ditugulako.

Herri ttikia baina bizia da Aniz, ez?

Hagitz bizia eta parte-hartzailea da, gozamina da hemen bizitzea. Haurrak, gazteak eta zaharrak harreman estua dute, denak elkartzen dira eta hori du berezitasuna. Kultura aldetik ere jarduera aunitz ditugu; gazteek eta helduek antolatzen dituzte, haurrek parte hartzen dute... denon artean egiteak aunitz laguntzen du.

Nola ikusten duzu herriaren etorkizuna?

Orain geldialdia ikusten dut haurren kopuruan. Duela urte batzuk haur aunitz sortu ziren, baina azken zortzi urteetan bakarria sortu da eta momentuz ez dugu gehiagorik espero. Hala ere, gazteen artean herrian gelditzeko asmoa ikusten dut; etxeak berritzen ari dira, batzuk hemen lana dute... herriak etorkizun ona izatea espero dut.

16.641.350 euroko aitzinkontu orokorra onartu du udalak

EH Bildu eta Ezkerraren aldeko 8 botorekin eta Navarra Sumaren eta Geroa Bairen kontrako 5 botorekin onartu dute

TTIPI-TTAPA

Udalak aurtengo aitzinkontu orokorra onartu zuen martxoaren 14ko ez ohiko osoko bilkuran. 16.641.350 euroko aurrekontuak udalaren, ikastolaren, zahar etxearen eta Lixuraren aitzinkontuak barne hartzen ditu. Zehazki, udalarena 15.756.350 eurokoa da, ikastolarena 839.000koa, zahar etxearena 161.000koa eta Lixurarena 764.112,84koa. Horrez gain, Giltxaurdi enpresa publikoaren aurrekontua dago, 522.329,80 eurokoa. Merkaturako enpresa denez, ez da kontsolidatutako aurrekontu orokorrean sartzen.

Inbertsio aipagarriena zahar etxea berritzeko lehen fasearen kontu-saila da, 6.000.000 eurokoa. Madrildik lortutako 4.000.000 euroko laguntzari bertze bi gehituko dizkio udalak mailegu bidez.

Zaldubiko poligonoko garbigunea da bertze inbertsio aipagarri bat, 696.000 euroko aurrekontuarekin. Udaletxearen ekarpena 22.000 eurokoa izanen da, eta gainerakoa diruz lagundua finantzatu dute.


Bi proiektu hauekin, inbertsioen sailak 7.596.332 euroko kopurua aurrikusi du, horietatik 2.475.670 euro udalaren gain eta gainerakoa dirulaguntzen bidez. Denera 39 proiektu eginen dira, hala nola: Ordokiko ur-horniduraren berritzea (94.500 euro); adimen desgaitasuna duten herritarrendako eskualdeko eguneko zentroa egiteko Zunda parajearen desjabetzea (31.240); eskoletako lanak (76.550); nekazaritzako azpiegiturak (68.350); oihanetako lanak

(162.000); Iriarte pilotalekuan eguzki-panelak energiaren kontsumo partekaturako (53.385) eta bideen hormigoitzeak (55.237).

Honez gain, energiaren karioitzea dela eta, argiteria publikoaren aurreikuspena 366.750 eurokoa da. Iaz 285.000 eurokoa izan zen, eta 2021ean 150.000koa. Udal eraikineta-ko argiaren aurreikuspena 175.684 eurokoa da, (iazkoa 141.500koa izan zen eta 2021ean 85.570 eurokoa).

Zorrei dagokienez, zahar etxea berritzeko 2 milioi euroko mailegua eskatuko duenez, udalaren zorpetze maila %50,85ekoa izanen da, legeak finkatutako %110eko mugatik urrun.

Hasierako onspena emanda, aitzinkontua hamabortz egunez jendearen aitzinean egonen da, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Ondotik, behin betiko onartuko da. Gainera, bilkuran 2023ko udaleko plantilla organikoa onartu zuten, EH Bilduren, Ezkerraren eta Geroa Bairen aldeko 10 botorekin eta Navarra Sumaren kontrako 3rekin.



Zahar etxea berritzeko lehen fasea da inbertsiorik haundiena. BAZTANGO UDALA

Geroa Bai aurrekontuen kontra

Udal taldeak adierazi duenez, «aurrekontuaren kontra bozkatu dugu adinekoen egoitzan proposatzen den inbertsioarengatik. Lanak amaitzeko mailegu berri bat egitearen arriskuei buruz ohartarazten du udalaren interbentzio txostenak, 6 milioi euroko aurrekontu honekin lehen fasea bakarrik burutu baitaiteke. 2021ean zaharberitze proiektua aurkeztu zen eta kostua 8-10 milioi eurokoa zen».

Horren ordean, «egoitza berri bat eraikitzeko aurrekontua eskatu genuen, egoera baloratu eta kontrastatzeko. Alkateak aurrekontu hori aurkezteko konpromisoa hartu zuen baina oraindik ez dugu proposamenik jaso». Hala ere, «patronatutik egindako lan guztietan parte hartu dugu, egoitzaren kudeaketa pertsonak erdian jartzen dituen eredura egokitzeko».

Honez gain, «azken zortzi urteotan EH Bildu eta Baztango Ezkerraren koalizioak ez gaitu aurrekontuen lantzean parte hartzeri gonbidatu ere».





Urdazubitik ateratako taldea, Xabierrera bidean, 1963an. ARTXIBOKOA

60 urte bete dira Xabierrera bidea oinez egin zutenetik

Hiru eguneko bidaia izan zen 1963. urtean egindakoa eta gazteenek hamahiru urte zituzten orduan

ARANTXA ETA IRAIA

Aurten 60 urte bete dira herriko hainbat lagun Ramon Ezkurra irakaslearen eskutik Urdazubiko herritik abiatuta Xabierko bidaia egin zutela. Hiru eguneko bidaia izan zen gaztetxoek 1963. urte hartan egin zutena, gazteenek 13 urte baitzituzten. Egiazko erromesaldia izan zen, beraz.

Argazkian ikusten den gisara, hainbat mutiko izan ziren bidaian abiatu zirenak: Andres Diharassarri, Ramon Mihura, Juan Mari Mihura, Jose Miguel Etchart, Bautista Etxenike, Lorentxo Etxenike, Joxe An-

tonio Etxenike, Joxe Manuel Etxeberria, Miguel Migueltoarena eta Juan Alzualde.

Hurrengo bi urteetan ere Urdazubitik abiatu baziren ere, gerora Xabierraldiko bertze bidaiak egiten jarraitu zuten eta gaur egun ere hala segitzen dute, ahal duenak behintzat. Dena den, gaur egun autobusean edo autoan gehixeago hurbildu eta, egun barrean, azken zatia oinez egitea da ohikoena.

Horrelako abentura ez baita aise ahanzten, zorionak 1963. urteko bidaia luzea egin zuten guztiei!

Karretero ostatu bezala irekiko dute, baina ez jatetxe moduan

ARANTXA ETA IRAIA

Herriko plazan zen Karretero edo Indianobaita ostatua-jatetxea, ostatu moduan irekiko da aurtengo denboraldian. Urte anitzez jatetxe moduan ere lan egin du Indianobaitak, ospakizun, besta, inauteri eta ohiko egunetarako otordu

ederrak eskainiz, baina aurten ez du jatetxea orain arte bezala irekiko.

Hortaz, hemendik aitzinera ostatu modura bakarrik zabalduko ditu ateak herriko eta kanpotik hurbildutako jendearendako. Denborapasarako bertze aukera bat.



ARANTXA ETA IRAIA

Martxoaren 8ko elkarretaratzea

Martxoaren 8an Urdazubin ere elkarretaratzea antolatu zen. Arratsaldean, Xaretako emakume zein gizon andana bildu zen herriko etxe aitzinean emakumeen eskubideak aldarrikatzerat. Aurten, *Arrazoiak soberan ditugulako* izan zen Ugarana emakume elkarteak proposatutako leloa.



ARANTXA ETA IRAIA

Herritarrak Bergarako pastoralera

Martxoaren 25ean, bertze emanaldi bat eskainiko dute *Maddiren trajeria* pastoraleko arizaleek Bergaran. Hilabete batzuetako lanaren ondotik urdazubiarrak ere prest dira emanaldi berri honetan parte hartzeko. Abentura ederra izanen da segur Xaretatik at pastoralera erakustea!





Sara Korrika Trail lasterketaren irteera, joan den urtean. PIERRE EZKURRA

Sara Korrika Trail bezperan, Kilometro bertikala lehen aldiz

Larunbateko proba Elgar Xut erronkarako baliagarria izanen da eta igandeko lasterketak hamaseigarren edizioa beteko du

GANEX

Sara Korrika elkarteak antolatuta, martxoaren 26an Sara Korrika Trail lasterketaren hamaseigarren edizioa iraganen da. Urte hasieran zabaldu zuten izena emateko epea eta bi asteren buruan 650 parte hartzailearen mugara ailegatu ziren. Elkarretaratzea igandean 07:30ean izanen dute plazan eta partitza 09:00etan. 21 kilometro luze eta 1.595 desnibela izanen dute. Bezperan, Sara Korrika Bertikala izanen da. Lau kilometro luze eta 800 metroko desnibel positiboa dituen lasterketa.

Elgar Xut erronka

Horrez gain, eskalatzaille hoberenaren saria ere emanen dute. Martxoaren 25eko kilometro bertikaleko eta martxoaren 26ko 21 kilometroko mendi lasterketako igoen denborak kontuan hartuta, emaitzarik hobereena lortzen duen emakumezkoak eta gizonetzkoak hartuko dute.

Bertzalde, Sarako Kilometro Bertikala Elgar Xut izeneko erronkarako ere puntuagarria izanen da. Erronka apirilaren 29an Azkainen eta maiatzaren 8an Behorlegin jokatu duten probek osatuko dute.

Herriko zentro sozialak 51.000 euroko buxeta onartu du 2023 urterako

Herriko zentro sozialak 2023ko bere butxeta onartu du, 51.000 eurokoa. Bertzalde, joan den urtean bezala, formakuntza bat proposatu du 16 urtetik goiti duten herritarrentzat. Hori da istripu bat delarik, zer egin behar den jakiteko. **Apirilaren 15ean, larunbata: 10**

presuna gehienik. **Urriaren 7an, larunbata: 10** presuna gehienik. Izena ematean, hautatu behar da eguna. Izena emanen duten lehen hamarrak hartuak izanen dira formakuntza bakoitzeko. Izen emateak: ccas.saran@gmail.com ahalez edo herriko etxean.

Sarako Izarrako emakumeak ongi, gizonak orain ez

Sarako Izarra errugbiko gizonak ongi hasi zuten sasoiak euskal ligako lehen mailan eta bigarren izan ziren bere multzoan. Txapelketarako fasean, aldiz, zortzi partidetatik bakar irabazi dute. Emakumeek hirugarren postua eskuratu dute beraien lehen sasoiak.

Eskuen lana taldeak erakusketa egin du igande honetan

Eskuen lana taldeak egin du kukusu eta dendarien erakusketa bat martxoaren 19an, joan den igandean, Lur Berri gelan. Sarrera urrik zen eta gauza ederrak ikusteko eta erosteko. Horrela, jendetza handia elkartu zen, udaberri giroan.

Zangoak Arin Lesakako sagardotegian

Zangoak Arin taldeak martxoaren 9an korrika egin eta Lesakako Linddurren borda sagarnotegian egin dute bazkaria. 25 bat baziren elkarretaratua txuleta on baten aitzinean. Urtero egiten dute ateraldi hori, eta aurten ere dena izigarri ongi pasatu da.



Linddurren borda sagardotegian.

Mugaz gaindiko 'Larhun-E' proiektuan partaide da Sarako Herriko Etxea ere

TTIPI-TTAPA

Larhun-E mugaz gaindiko proiektua aurkeztu zuten martxoaren 14an Beran. Proiektu hori Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eta Nafarroako Gobernuak bultzatzen dute, Bera, Sara, Urruña eta Azkaingo udalekin batera,

azpiegiturak biziberritzeko, hobetzeko, jarduera sortzeko eta Larhun mendiaren inguruaren erabilera arautzeko edo antolatzeko, paraje natural sinboliko hori mugaren bi aldeetako lurralde-garapen iraunkorreko ardatz bihurtzeko.



Berako herriko etxean egin zuten proiektuaren aurkezpena. UTZITAKOIA

Asteburu euritsuak ez ditu Traileko kirolariak gibeleratu

Nagusien lau probez gain, hurrek ere egin zuten bi mailetan, baina oinezkoen ibilaldiak ezeztatu zituzten

JL BESSONART

SPUC Lasterka elkarteak antolatutako lasterkaldiak iragan ziren asteburu euritsuak.

Tontorrez-Tontor lasterketan (82 km), Maxime Castillon izan zen garaile (9.38), bigarren Ander Erice (10.08), eta hirugarren Sylvain Mendez (10.10). Lehen emaztea Nadege Poulain izan zen (12.39), bigarren Kattin Iriberry (12.51) eta hirugarren Severine Duhalde (13.18).

Gotorlekuen Itzulian (42 km), lehena Goar Lopetegi (4.09), bigarren Jonathan Jules (4.17) eta hirugarren Quentin Camou-Juncas (4.18). Lehen emaztea Anne Bidalun izan zen (5.20), Emilie Laboyrie bigarren (5.30) eta Fani Iru-betagoiena hirugarren (5.32).

Senpereko Trail proban (21 km) lehena Yves Heloury izan



Senpereko Trailen abiatzea.

zen (1.40) bigarren Jerome Camacho (1.42) eta hirugarren Guillaume Levoy (1.48). Lehen emaztea Sarah Dinclaux izan zen (2.04), Pantxika Ouret bigarren (2.15) eta Maud Combarieu hirugarren (2.16).

Ibarrun Trailen (10 km), gizonetan Valentin Lamolere garaile, Chris Mate eta Hugues Lacroixen aitzinetik eta emakumeetan, Raphaële Souavin, Laurie Mariani eta Nina Iri-goien izan ziren hiru lehenak.

Giles Parent adituaren mintzaldi interesgarria

Espeleologia eta arkeologian aditua denak ikusmin handia sortu du entzuleen artean, Inharria baserrian. Baigorri ibarrean eta Nafarroako mugako haranetan, aspalditik izan diren meategi eta metalurgiako aktibitateak aipagai zituen. Erromanoen aitzineko aztarnak erakusten dute kobrea, burdina, brontzea, zilarra edo urrearen bilatze eta lantzeak, gizakiaren historia-ri lotuak direla. Hor dira leku-ko Bankan, Orbaizetan, Lar-lako mendian aurkitzen diren labe eta fabriken oinarriak.

'Bleu Nuit' antzerkia larunbatean emanen dute Larrekon

Ninak eta Clairek elkar maite dute. Nina afroamerikarra, blueswoman, aktibista, esklabotasunaren aurka dabilena. Claire aldiz euskaldun frantsesa, etno musikologoa, bere bidaian Estatu Batuetako hegoaldean topo egiten du Ninarekin. Amodio horren giblean, injustizia, arrazakeria, beltzen kontrako hilketak, egoera mingarria nabaritu da kantuarren bidez. Martxoaren 25ean, larunbatean 20:30ean, Bleu Nuit antzerkia frantsesez, Herriko Etxeak antolaturik. Prezioa: 16 euro.



Txapelketa nagusiko zortzi finalistak aritu ziren kantari. JL BESSONART

Herri Urratsen aldeko bertso saioaren ondotik kantua eta bideoklipa aurkeztuak

Larreko gela jendetsuan aurkitu ditugun zortzi bertsolari distiratsuak, goi-mailetan ibili dira. Bertsuzale xumeek, askotan zailtasun batzuk baiditugu ulermenaren aldetik. Oraingoan gaiek umorea eta gogoeta anitz pizten zutelakoan, eta bertsolariak publikoaren arabera moldatzen di-

relako, bertsoak errexago barneratu ditu. Zortzi artista handi horien entzuteak, lorietan ezarri du publikoa. Heldu den urteak ere, ekar lezake bertze emanaldi eder bat, Herri Urratsen mesedetan. Egungutira, Sutagar taldeak egindako aurtengo kantua eta bideoklipa aurteztu dituzte.



'Besteen kalea' antzerki emanaldiko aktoreak. JL BESSONART

Musika eta euskaraz egindako antzerki emanaldi gustagarriak izan dira

Aunitz izan baitira, merezi dute beha kolpe bat. Martxoaren 5ean iragan den *Besteen Kalea* euskarazko antzerkian, bi aktoreek kaleko mundu nahasi batera eramanez gaituzte. Aitortzekoa da biziki ikusle guti hurbildu zela, horrelako euskarazko ekitaldiek merezi lukete harrera hobea.

Biharamunean, aldiz, jendea ernatu da The Six Toys senperter musikariaren deskubritzera. Eta zer erran ondotik aritu den Albosax taldeari buruz. Mixel Ducau sortzaileak ezin hobeki kudeatu ditu lau albokari eta alu saxofoilariak, zinez gozatzeko ikusgarria eskainiz.

Berriz ere munduko sokatira txapeldun da Beti Gazte

Lesakako taldea lehiatu zen bortz kategorietako finaletan sartu zen Ipar Irlandan eta 560 kiloko gizonek irabazi zuten urrea

AITOR AROTZENA LESAKA
Duela hemeretzi urte Glasgown (Eskozia) izan zen azken aldiz munduko txapeldun Beti Gazteko sokatira taldea. Hemeretzi urte beranduago, bertze horrenbertze egin du Ipar Irlandako munduko txapelketan eta urrezko domina lortu zuen martxoaren 9an, oraingoan gizonezkoen 560 kiloko kategorian. Urre horrek klub arteko bikaina borobildu du. Izan ere, bortz kategoriatan lehiatu da Lesakako kluba eta bortzetan finalean sartzea lortu du. Bigarren izan da emakumezkoen bi kategoriatan (500 eta 540 kilo), gizonezkoen 600 kilokoan eta txapelketa mistoan. Beraz, urrezko domina batekin eta zilarrezko laurekin bueltatu da klub arteko txapelketatik.

Lautik lau finaletan sartu eta lauretan zilarra lortu zuen Beti Gazte eta bosgarren finalera ere sartzea lortu zuen gizonezkoen 560 kiloko taldeak, lehen fasean tiraldi guztiak irabazita eta finalerdian Irlandako Cuan Rithe taldea menperatuta. Baina bosgarren finalean urrearen jabe egitea lortu zuen Lesakako taldeak. Finalean, arerio, bertze talde euskalduna, Bizkaiko Laukizko Gaztedi taldea izan zuen. Hain zuzen, Euskal Herriko txapelketan, kategoria honetan bizkaitarrak izan ziren txapeldun, Beti Gazteri irabazita. Baina munduko txapelketaren finalean ez zen horrelakorik gertatu eta bi tiraldiak ongi eraman zituen Beti Gazte, berriz ere munduko txapeldun izateko eta urrea janzteko. Munduko txapeldun izan den

Beti Gazteko zortzikotean Karmelo Mitxelena eta Ander Mitxelena aita- semeak, Joxe Angel Mitxelena (lehenengoaren anaia eta bigarrenaren osaba), Oskar Telletxea, Beñat Ordoki, Beñardo Iantzi, Iñigo Altzugarai eta Gerardo Telletxea aritu ziren, Paxkual Taberna entrenatzaile eta Ainhoa Ubiria laguntzaile zutela.

Gisa honetara, munduko txapelketan bosgarren urrezko domina lortu du Beti Gazteko mutilen taldeak. Lehenbizikoa Irlandan lortu zuen 1999an (560 kilo). Urtebete beranduago bi lortu zituen Herbeheretan (560 eta 600 kilo) eta 2004an Eskozian (600 kilo). Baina denera, Ipar Irlandan lortu dituen bortz dominekin, hemezortzi aldiz igo da Beti Gazte munduko txapelketako podiumera eta munduko klub bakarra da, hiru modalitatetan (gizonezkoetan, emakumezkoetan eta mistoan) munduko txapelketako domina duena. Bigarrenez lortu du gainera.

Nazioartean kolore guztietako lau domina

Euskal Herriko ia txapelketa guztiak irabazita, nazioarteko txapelketan Basque Country ordezkatzeko eskubidea irabazia zuen Beti Gazte eta lau domina lortu zituen Euskal Herriarentzat. Aipagarriena, talde mistoak lortu zuen urrezko domina, Euskal Herriak lortzen duen lehena. Gainera, zilarrezko domina lortu zuten emakumeen 500 kiloko eta gizonezkoen 600 kiloko kategorietan eta brontzezkoak gizonezkoen 640 kilokoan.



Beti Gazteko emakumeek zilarra lortu zuten bi kategorietan.



19 urte eta gero, Beti Gazte berriz ere munduko txapeldun. ANA ERRANDONEA



Beti Gazteren izenean aritu ziren tiralariak kontent, nola ez. ANA ERRANDONEA



Euskal Herriko talde mistoa, munduko txapeldun lehen aldiz. ANA ERRANDONEA



Lujanbio, Adan eta Alberdi, gizonezkoen podiumean. A. AROTZENA



Amilibia, Ordoñez eta Etxebeste, emakumeen podiumean. A. AROTZENA

Adan eta Ordoñez garaile Lesakako IV. mendi lasterketan

Martxoaren 12an egindako proban 182 korrikalarik hartu zuten parte eta bigarren izan zen Hodei Lujanbio goizuetarra

AITOR AROTZENA LESAKA
Lesakako Beti Gazte elkarteak antolatutako laugarren mendi lasterketa egin zen martxoaren 12an. 182 korrikalarik parte hartu zuten eta goizeko euri langarrak 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela zuen ibilbidea lohitu eta gogortu baldin bazuen ere,

ondoko eguzkiak berotu zituen kirolariak. Horien artean, Kaparrosoko Ruben Adan eta Iruñean bizi den Maria Ordoñez izan ziren bizkorrenak.

Ruben Adanek ordubete, 12 minutu eta 57 segundo behar izan zituen ibilbidea burutzeko, lehiarik estuena bigarren izan zen Soronea taldeko Ho-

dei Lujanbio goizuetarrarekin izan zuen (1.13.24) eta Agiro taldeko Jon Alberdi zestoarra hirugarren (1.14.18).

Emakumeen artean, Txurregi taldeko Maria Ordoñez izan zen bizkorrena (1.26.52), Herrikrosa taldeko Nerea Amilibia zarauztarra bigarren (1.31.33) eta Soronea taldeko Larraitz Etxebeste oiartzuarra hirugarren (1.32.12). Itxaro Zabaleta leitzarra laugarren izan zen (1.33.02) eta Ane Eltzaurdia beraterra bosgarren (1.36.14).

Beteranoetan, gizezkoetan Alkozko Mikel Beunza izan zen bizkorrena (1.17.07), Iker Irastorza pasaitarra bigarren (1.22.20) eta Berako Joseba Lasarte hirugarren (1.23.20).

Emakume beteroetan Nerea Amilibia zarauztarra nagusitu zen, Enderizko Ines Aguado izan zen bigarren (1.50.15) eta Iruñeko Beatriz Martinez hirugarren (1.52.51).

Gazteen mailan, Beintza-Labaiengo Beñat Albisu izan zen bizkorrena (1.18.14) eta sailkapen orokorrean meritu handiko zortzigarren postua eskuratu zuen. Josu Etxepeleku lesakarra izan zen bigarren (1.39.13) eta Oihan Urroz lesakarra hirugarren (1.44.07).

Lehenbiziko lesakarrei dagokienez, Mattin Gonzalez (1.20.31) eta Loli Pardal (2.06.50) izan ziren eta taldeka Txurregi gailendu zen.

Sailkapen osoa: erran.eus



UTZITAKOA

Laxoa Elkarteko bikotea txapeldunorde

Euskal Herriko paxaka txapelketako bigarren mailako finala Urruñako Dongaitz trinketeen jokatu zuten eta bertan, Laxoa Elkarteko Juan Mari Maiak eta Manu Irigoienek 5-13 galdu zuten Endaiarrak taldeko Benjamin Peryjean eta Mathias Samoraren kontra. Halere, txapelketa bikaina egin dute.



UTZITAKOA

Koldo Herrerak lehen garaipena

Martxoaren 5ean Rural Kutxak urtero antolatzen duen BTT irekia hasi zen. Fiteron izan zuten lehen lasterketa, hainbat kategoriatan banatuak. Koldo Herrera Urroz sunbildarrak 23 urtez beheitiko kategorian parte hartu eta irabazi ere egin zuen. Denboraldia hasteko modu ezin hobea.

AGENDA

MARTXOAK 23 - APIRILAK 6

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



SUNBILLA Asteburu kulturala

Sunbillako Udalak, Ulibeltzak elkarteak, Guraso elkarteak eta Antrotoki herriko gazte taldeak antolatua. Martxoaren 24tik 26ra.

SOLASALDIAK

ARESO

'Hitz egin zutaz' tailerra

Udaletxean, martxoaren 24an, 18:00etatik 20:00etara.

LEITZA

Haurrentzako masaje tailerra

Udaletxean, martxoaren 24an, 29an, 30ean eta 31n, 10:00etatik 11:00etara.

BERA

'En la sangre' liburuaren aurkezpena

Susana Rodriguez Lezaunekin. Liburutegian, martxoaren 24an, 18:00etan.

ELIZONDO

'Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada baizik'

Arizkunenean, martxoaren 30ean, 18:30ean.

Ipuinaren ordua

Liburutegian, apirilaren 5ean, 18:00etan.

DONEZTEBE

'3 Mariak' liburuaren aurkezpena

Arantxa Urretabizkaiarekin. Liburutegian, martxoaren 30ean, 19:00etan.

GOIZUETA

Erdiz Bizirik taldearen hitzaldia

Udaletxeko ganbaran, martxoaren 31n, 18:30ean.

ARANTZA

Jakoba Errekondoren hitzaldia

Liburutegian, apirilaren 1ean, 17:00etan.

LESAKA

'Nola iruzkindu liburu bat'

Arrano elkartean, apirilaren 1ean, 10:00etan.

IKUSKIZUNAK

LEITZA

'Kasumitarrak' antzerki musikatua

Aralar Musika Eskolaren eskutik. Herri Aretoan, martxoaren 25ean, 11:30ean.

Zinema

Herri Aretoan, apirilaren 1ean eta 2an. 16:30ean 'Maridos' eta 19:00etan 'Los reyes del mundo'.

SENERE

Bleu Nuit antzerkia

Larrekon, martxoaren 25ean, 20:30ean.

DONEZTEBE

Mendi Tiki eta Elizondoko Koro Ttikiren kontzertua

Elizan, martxoaren 26an, 18:00etan.

'Terapia' antzezlan

Zineman, martxoaren 26an, 19:30ean.

LESAKA

Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen dantza ikuskizuna

Harriondoan, martxoaren 25ean.

'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' antzerkia

Harriondoan, martxoaren 26an, 18:30ean.

Haur kantarien topaketa

Harriondoan, apirilaren 1ean, 18:30ean.

Leskako Musika Eskolaren udaberriko kontzertua

Harriondoan, apirilaren 5ean.

BERA

'Guda eta bakea' kontzertua

Oiasso Kamerata orkestrarekin. Kultur etxean, martxoaren 25ean, 19:00etan.

Willis Drummond

Katakun, martxoaren 30ean, 20:00etan.

ERRATZU

'Baztan 15 kantari' kantaldia

Plazan, apirilaren 2an, 17:00etan.

AZOKAK

LESAKA

Merkatu ttikia

Beheko Plazan, martxoaren 25ean, 10:00etatik aitzinera.

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Nekazariak

Plazan, martxoaren 25ean eta apirilaren 1ean, goizez.

KIROLAK

ETXALAR

Usategietako XIII. igoera

Martxoaren 25ean, 14:30ean.

SARA

Sara Korrika

Plazatik, martxoaren 26an, 09:00etan.

ARANTZA

Gorapeko Pilota Txapelketa

Herriko etxeko gorapean, apirilaren 1ean, 16:00etan.

«Oso serio hartzen dugu udaletik ateratzen den edozein informazio»

SAIOA SAGASTIBELTZA LEITZAKO UDAL KOMUNIKAZIO ARDURADUNA



«Egunerokoa ahal duen guztia eginez, bizitzaz disfrutatzen ahalegintzen den emakume leitzarra» da Saioa Sagastibeltza Ganboa, «tarteka frenoa jartzea ahazten zaion horietakoa». Lagunartea, festa, bidaiatzea, kirola, musika... zaletasun ugari ditu; «ez dut sekula aspertzeko betarik izan. Orain, familiak, lanak eta udalak okupatzen dizkirate egunaren orduak». Izan ere, Leitzako Udaleko komunikazio arduraduna da, eta irakasle lanekin uztartzen ditu bere udaletxeko eginbeharrak.

Herria aldatu nahian

2019an sartu zen alkatezta taldean, «Mikel alkateak eta Nahikari zinegotzi eta lagunak xaxatuta». Argi du «herria hobetzekotan, lanari ekin behar zaiola. Askok uste dugu jendarteko arlo askotan gauzak

beste modu batera egin behar-ko lirakekeela, baina kexak alde batera utzi eta saiatzen ez bagara, lehengo lepotik izanen dugu burua».

Bertan, komunikazioaz arduratzen da: «batzuetan egiten dudanak ezer gutxirako balio duela iruditzen zait; beste batzuetan, aldiz, sekulako itolarria sartzen zait esku artean ditugun gai guztiekin. Sare sozialak, web orria, hedabideak, herritarrei zabalduak-eko ekimen bereziak... alderdi asko landu behar izaten ditugu!». Izan ere, «talde osoaren ahaleginekin lortutako fruitua herritarrei gerturatzea dugu helburu, eta horrek dedikazio dezente eskatzen du».

Komunikazioa hobetzen
Karrape irratia online eskaintzea, *leitza.eus* webgunea berritzea eta whatsapp bidez-

ko InfoLeitza hedapen zerrenda «izan dira egin ditugun aurrerapaso handienak agintaldian. Gainera, InfoLeitzan dagoeneko 1.000 herritar gaude». Hala ere, komunikazioa hobetzen segitzeko, «hurrengo agintaldirako lanik ez dela falta» aitortu du.

Udalaren erabakiak eta jardunak ezagutzera ematean, «herritarrekin argiak izaten saiatzen gara. Udal taldeko kideek asko hausnartzen dugu edozein mezu argitaratzekoan eta oso serio hartzen dugu udaletik ateratzen den edozein informazio, herritarren gehien- goa ordezkatzeko dugula kontuan hartuz. Bestalde, mezuak esanguratsuak, laburrak eta zehatzak izatea, euskara txukunean idatzita egotea, kontu berarekin behin eta berriz inor ez aspertzeara... halako irizpideak izaten ditugu buruan».

Lau urte hauetan «erronka ugari» izan dituzte, «baina pandemia garaia izan da zailena; (des)informazioa, informazio kontraesankorren bonbardaketa, ezjakintasuna... denetik bizi izan genuen eta zer komunikatu eta zer ez erabakitzean nahiko buruhauste izan genuen taldean. Asmatu ala ez, gure ardura ahal genuen hobekien betetzen saiatu ginen». Horrez gain, «Herri Aretoaren irekiera eta lehen denboraldia prestatzeko lan karga handia ekarri zuen. Eskerrak orain kultur teknika-ria daukagun».

Hezkuntzarekin uztartuz
Komunikazioaz gain, hezkuntzako lantaldean ere sartuta da Sagastibeltza; «Iñigo Aldun-

tzin eta biak joaten gara herri-ko hiru ikastetxeetako eskola kontseiluen bileretara. Bertan planteatzen dituzten gaiei herritarren interesetik begiratzeko diegu eta dagokionean esku hartu. Adibidez, Hezkuntza Sailak institutuko jangela zerbitzua murriztu du eta nahiko lan eman digu horrek».

Baina udaletik kanpo ere irakaskuntza aritzen da, Lehen Hezkuntzako tutorea baita duela hamar urte Gipuzkoako eskola txiki batean. «Izugarri gustura aritzen naiz, umeekin egunero sorpresa bat delako. Ingelesa irakatsiz hasi banintzen ere, azken aldia matematika eta hezkidetzaren arloetan murgilduta nabil».

Hala ere, ez da erraza dena bateratzea; «lehendik familia eta eskola uztartzea zaila bazen, horri udaleko ardurak gehitzen zaizkio orain. Lehen-tasunak oso argi izatea eta antolaketa on bat edukitzea ezinbestekoa da. Familiaren babes eta laguntzarik gabe, kaosa izango litzateke etxean».

Etorkizunera begira

«Unean unekoari ahalik eta modu eraginkorrenean erantzutea» du asmo nagusia, «nire bikotekidearekin eta bi umeekin egunerokoa disfrutatzea, eskolan ditugun proiektu ederrarekin ikasten eta gozatzen jarraitzea eta udaleko agintaldi intentso baina aberats hau ahalik eta hobekien ixtea».

Azkenik, «herria hobetzeko ilusioa duen edonor udalera gonbidatu nahi nuke, lan erraza ez den arren, alternatibak sortzeko aukera paregabea baita. Gure kasuan, Herri Aretoa martxan utziko dugu, EBK lehen pausoetan, Mimukai irekitzean, hileta zibilak bidea hasita... baina asko dago oraindik egiteko. Ziur datorren etaparen ere ideia eta behar berriak sortuko direla; ongi gauzatzen asmatzea izanen da erronka».

«HERRIA HOBETU NAHI BADUGU, LANARI EGIN BEHAR ZAIO»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LEITZA. Pisua salgai, Uhartre Gotzaia kaleko 6. zenbakian. Lehenbiziko solairuan eta altzariz hornitua. Igo-gailuarekin. Dena berritua eta isolatua. ☎696 37 88 84.



OIZ. 300m²ko bi bizitzako etxea salgai, 342m²ko partzelarekin. 5 logela eta 44,8m²ko garajea. Bizitzeko prest. Aukera polita. Prezioa 325.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli)

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Herri sarreran pisu bat errentan emateko prest. Hiru logela, sukaldaria egongela eta komuna. ☎670 42 37 70.



LESAKA. Logela alokairuan. Komuna, sukaldaria eta baratzea erabiltzeko aukera. ☎646 67 51 70.


ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN, BERTIZARANA edo MALLERREKAN epe luzerako errentan hartzeko apartamentu bila. ☎650 72 96 39.

ELIZONDO. Bikote bat pisu bila dabil. ☎624 09 14 80.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI



ELIZONDO. Akullegi karrikan 150 m²ko garajea salgai edo errentan

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

emateko. Altura handia du eta zati batean tarteko solairua ere badu. Inguru lasaia eta eguzkitsua. ☎649 44 67 32.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Eitzetako plazan lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎629 48 06 24.

LANAK

ESKAINITZAK

LESAKA. Lindurrenbordea sagardotegian zerbitzari euskalduna behar dute asteburuetan aritzeko. ☎948 63 72 12.

SUNBILLA. Ariztigain kanpinean oinarritzeko sukaldaritza dakien sukaldari euskalduna behar dute lanaldi osoan aritzeko. Berehala lanean hasteko. ☎948 45 05 40.

BERA. Ibardingo Benta Gorrian sukaldari laguntzaile bat behar dute asteburuetan eguerdiko zerbitzuan lan egiteko. Interesatuak bidali curriculum *bentagorria@hotmail.com* helbidera edo deitu. ☎618 00 27 31.

ETXALAR. Etxalarko Bentan lanaldi osoan aritzeko esperientzia duen sukaldaria behar dute. Interesatuak bidali curriculum *info@etxalar.com* helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

ETXALAR. Etxalarko Bentan lanaldi osoan aritzeko garbitzailea behar dute. Interesatuak bidali curriculum *info@etxalar.com* helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

BERA. Ibardingo gasolindegian langile bat behar dute. Interesatuak idatzi *imerira@hotmail.com* helbidera edo deitu. ☎638 02 53 48.

BERA. Botxo ostatuan astelehenetik ortziralerara lanaldi osoan aritzeko

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,31 €
- 1.koa 5,19 €
- 2.koa 5,07 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,42 €
- 1.koa 5,28 €
- 2.koa 5,17 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,20/5,30 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/8,80 €
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,50 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 104 €

Zerri gizona 1,967 €

Zerramak 1,230€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (martxoaren 3tik 10era bitarteko prezioak).

sukaldari laguntzaile bat behar dute. Interestuak deitu. ☎617 72 34 75 .

ARITZU. Behi granja batean lan egiteko pertsona bat behar dute. ☎630 98 42 45.

ASTIGARRRAGA-OIARTZUN. Lize-lan-en baso lanetarako langilea bila. Zuhaitzak moztu edo kimatu, eta sasiak garbitu, linea elektrikoan mantentze lanak. Bezeroarekin lanen jarraipena. Lan gehienak Lapurdin eta Landetan mugatik 150 km baino guttiagora. Frantsesa jakitea beharrezkoa. Lan baldintza eta lansari interesgarriak. Kontratu mugagabea. Erregimen orokorra. ☎677 33 34 51. Edo idatzi: *tecnico@lizelan.com* (gaztelerez).

ELIZONDO. Esarte harategiko obradorean langilea behar dute haragiarekin lan egiteko. Ikasteko gogoia duena. Gida baimena edukitzea kontuan hartuko da. ☎948 58 01 28 (Javier) edo 948 58 19 07 (Pili).

IGANTZI. Irrisarri Landen gaueko atezaina eta mantentze lanetarako langilea behar dute, 40 ordu astean, 2 gau 00:00etatik 08:00etara eta 3 egun 8 orduko txandetan 08:00etik 00:00etara. Bidali curriculum *rrhh@irrisariland.com* helbidera.

IGANTZI. Irrisarri Landen mantentze lanetarako langilea behar dute, 40 ordu astean, 5 egun 8 orduko txandetan, 08:00etatik 00:00etara. Bidali curriculum *rrhh@irrisariland.com* helbidera.

IGANTZI. Irrisarri Landen zerbitzaria behar dute, 32 ordu astean, 8 orduko txandak jarraian 08:00etatik 00:00etara bitarte. Bidali curriculum *rrhh@irrisariland.com* helbidera.

ESKARIAK

Emakume bat adinekoak eta haurrak zaintzen aritzeko. ☎603 43 41 11.

BERA. Esperientzia eta formakuntza duen emakumea adineko jendea zaintzeko lan bila ari da Beran. Goizez edo 16:00ak arte. Interesatuak deitu. ☎642 46 44 05.

Neska gaztea Beran edo Lesakan goiz eta arratsalde haurrak zaintzeko prest. ☎ 643 41 37 02.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA

ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisirik gabe

Jose Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Look 695 karreterako bizikleta salgai. 2017 urtekoa, sram red (2020. urtekoa 500km-rekin) talde elektronikorekin. Taila 53. Aurreko desbiatzailea 200km-rekin. Ibiltzen ez delako saltzen da. Egoera ezin hobean. ☎661 84 50 53.


Egoera onean dagoen logela bat salgai. 2 ohe, mesanotxea, armairua eta komoda bat bere ispiluekin. ☎659 76 43 75 (Deitu arratsalde).

GALDU-AURKITUAK

LESAKA. Bereau Hotelaren inguruan, zubi parean, trenbidean, giltza bat aurkitu dute. Berako Zelaieta estankoa dago.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



ETXALAR. Txakurkumeak oparitzeko. Ama Labrador eta Border Collie arrazen nahasketa da eta aita Border Collie arrazakoa. ☎662 20 25 35.




SUNBILLA. 9 hilabeteko artzain zakur alemana oparitzeko. ☎686 38 11 47.

Border Collie arrazako bi zakurkume oparitzeko. ☎609 48 60 52.

SALGAI

Hiru txerri eder saltzeko. Txerriak etxean jaioak eta haziak dira, kanpoan jaio eta kanpoan ibiltzen dira, naturak bere garaian ematen dietenarekin bizi dira. Deitu lasai. ☎636 02 23 11.

Zakurkumeak salgai. Atta eta ama Border Collie arrazakoa. Ama lanean ona. ☎678 33 53 01.



Siberiar husky zakur arra salgai. Arraza garbiaren ziurtagiria, osasun txartela eta pasaportea dauka. Prezio negoziagarria. Interesatuak WhatsApp bidali. ☎646 50 62 49.

DENAK


BERTIZARANA. Katakume ar baten bila. Norbaitek oparitzeko edukiz gero, gustura hartuko luke. ☎696 17 85 29.

MOTORRAK

TAILERRAK



URTEBETETZEAK



Urkizuko **Xuban Arregi Mutuberriak** 8 urte bete ditu martxoaren 19an. Zorionak Leitzako eta Goizuetako familiaren partetik, bereziki bere anaia Oian eta Oinatz eta Zuhaitz lehengusuen partetik.



Lesakako **Unax Maia Larralde** 5 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak eta besarkada handi bat familiaren partetik!



Aritz Portu Iraizozek 6 urte bete ditu martxoaren 21ean. Aunitz urtez eta muxu pila bat Artazkozko familiaren eta Lesakako amatxiren partetik.



Pagoa Iribarren Elizalde urroztarrak 2 urte bete ditu martxoaren 22an. Muxu aunitz gure printzesa ttikiari, familiaren eta bereziki Intza ahizparen partetik!



Lesakako **Maren Maia Larralde** gure sorgin ttikiak 2 urte beteko ditu apirilaren 11n. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partez.



Elizondoko **Eider Ormart Larratxea** eta **Enara Larratxea Retegi** gure etxeko bi sorginek 7 eta 2 urte beteko dituzte apirilaren 8an eta 10ean. Muxu handi-haundi bat familia guztiaren partetik.



Elgorriagako **Ekain Juanena Irurutak** 8 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak! Egun polit bat pasa! Segi zaren bezalakoa izaten! Muxu handi bat!

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAREN bitartez!

Hainbat bide dituzu horretarako:

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz TTIPI-TTAPAREN bulegora etorrita edo argazkia eta testua gutun-azal

batean bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Whatsapp 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: Bulegoan dirutan (5 edo 10 €) edo [ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA](http://ERRAN.EUS/TPV/) webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia ginez edo Bizum bidez.



Etiketak eta pegatinak
Paperean edo biniloan
(opakua edo gardena)
Bebinan edo soltean,
formarekin moztuak...

URTEURRENA

**Felix
ALDAZABAL ANAUT**

Beran, 2022ko martxoaren 17an
I. URTEURRENA

*Urtebete gaineko begirale argitsua
bilakatu zinela,
Urtebete haizeak gure pausuen
zaindari zarela, xuxurlatzen gaituela,
urtebete eguzki izpiek zure irriaren
goxotasuna sentiarazten digutela.*

Maite zaitugu aita.

ZURE FAMILIA



OROIGARRIA

**Josetxo
ARBURUA MIGUELENA**

Igantzín, 2023ko otsailaren 17an
83 urte zituela

*Atta, atabi... beti iribarrea zenuen lagunmin
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziakin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun familiarekin.*

ZURE FAMILIA



OROIGARRIA

**Luis
Agirre Irazoki
'Legarre'**

1935/02/14 | 2023/02/17

*Legarreko
harrick
betirako
gordeko dute
zure goxotasuna.*



OROIGARRIA

**Maria
PERURENA ONSALO**

Migel Mari Zabaleta Zestauren alarguna

Leitzan hil zen 2023ko otsailaren 27an,
92 urte zituela

*Eskerrik asko
eman diguzun maitasunagatik.
Betiko gure bihotzetan.*



OROIGARRIA

**Jose Luis
BARBERIA VILLABONA**
Zili

*Une latz hauetan
bat egiten dugu familiaren saminarekin.*



OROIGARRIA

**Jose Luis
BARBERIA VILLABONA**
Zili

Familiaren minarekin bat egiten dugu.



IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

BB
BAZTAN
BIDASOA
Onaketa Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

KONTATU KONTUAK



Martxoaren 8a Aranon. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, aranoarrak ere kalera atera ziren martxoaren 8an. *Gora borroka feminista. Atzerapausorik ez!* lelopean kalejira eta elkarretaratztea egin zituzten.



Bortzirietako Emakumeen XIII. Mendi Marxa Arantzan. Dagoeneko ohitura bihurtu da Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan bortz herrietan egiten den emakumeen mendi itzulia. Aurten Arantzan egin dute, martxoaren 12an, zehazki, eta giro ederrean 55 lagun bildu ziren. Heldu den urtean Etxalarren eginen dute itzulia.

HILBERRIAK

- **Domingo Jaimerena Urrutia**, Zigakoa, martxoaren 1ean, 90 urte zituela.
- **Victor Duce Alba**, Leitzakoa, martxoaren 1ean, 81 urte zituela.
- **Miguel Telletxea Sarratea**, Donamariakoa, martxoaren 1ean, 76 urte zituela.
- **Jose Mari Ormart Irigoien**, Gartzaingoa, martxoaren 2an, 88 urte zituela.
- **Soledad Zubiri Mitxelena**, Igantzikoa, martxoaren 2an, 90 urte zituela.
- **Justo Eskudero Zubeldia**, Berakoa, martxoaren 2an, 75 urte zituela.
- **Josefina Zubieta Lujanbio**, Goizuetakoa, martxoaren 3an, 94 urte zituela.
- **M^a Josefa Etxandi Amorena**, Elbetekoa, martxoaren 5ean, 89 urte zituela.
- **Nazario Goñi Arrijurria**, Elizondokoa, martxoaren 8an, 80 urte zituela.
- **Antonio Ezeiza Urruzmendi**, Aranokoa, martxoaren 10ean, 86 urte zituela.
- **Jose Celestino Agerrebere Subizar**, Almandozkoa, martxoaren 12an.
- **Jose Luis Barberia Villabona Zili**, Leitzakoa, martxoaren 13an, 41 urte zituela.
- **Juan Bautista Idoate Iribarren**, Elizondokoa, martxoaren 13an, 82 urte zituela.
- **Joxe Erregerena Mortalena**, Erratzukoa, martxoaren 14an.



Emakumearen egunaren bueltan Mendi abesbatzaren emanaldia. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, emanaldi ederra egin zuen Mendi abesbatzak martxoaren 11n Doneztebeko eliz atarian. Entzule aunitz hurbildu ziren saiora.



Zaria korua Sunbillan. Martxoaren 12an Zaria koru eskolako gazteen eta helduen abesbatzek kontzertu gustagarria egin zuten Sunbillako elizan. Jende andana hurbildu zen kontzertuaz gozatzen.



Doneztebeko slaloma. Malerreka MotorSportek antolatuta, martxoaren 11n Doneztebeko VI. Slaloma egin zuten. *Car cross* modalitatean, Unai Iparragirrek, Imanol Vicentek eta Unai Arretzek osatu zuten podiuma eta turismoetan Inhar Amenabarrek, Iker Oteizak eta Joseba Lekuonak. Antolatzaileak kontent gelditu dira.

IZARRA
HEMEL, SURE ONDOKO
ARBEA ETXELAN

Gure barra,
gure jendea,
gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

PLAZAN BAZAN

ZORIONAK!
Ainhize Suhaz Etchart!
825. aleko Irabazlea zara!



ALDEA DAGO!

Aurki itzazu bi inudien artean dauden aldeak. 13 dira guztira.



Ez deitu niri TITTO TTIKI!
SEAN TAYLOR KATE HINDLEY

Laguntzailea:

ibaizabal



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

Plazan bazan egiteak SARIA BADU!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin martxoaren 28a baino lehenago.

Ttapi-Ttapako Whatsapera: (0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita.

Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

ENPRESA BERDEEN GARAIA DA

Zure enpresaren eraginkortasun energetikoan inbertitzeko garaia da.
Aurreztu eta klima-aldaketa geldiarazten lagunduko duzu.
Abenduaren 31ra arte, gure laguntza izango duzu.



TURISMO-SEKTOREA

% 85erainoko zuzeneko laguntza eraginkortasuneko eta ekonomia zirkularreko proiektuetan.



INDUSTRIA-SEKTOREA

% 65erainoko zuzeneko laguntza ETEen eta enpresen eraginkortasun energetikorako.



NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK

% 30erainoko zuzeneko laguntza jarduketak egiteko.



FISKALTASUNA

% 30erainoko kenkari fiskala egindako inbertsioaren gainean, sozietateen gaineko zergaren bidez.

LAGUNTZAK 2023KO ABENDUAREN 31RA ARTE INDARREAN. INFORMA ZAITEZ GAUR



navarragreen.es

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



AGENDA 2030



nafarroagreen.eus

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 63 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

825 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
M^a Angeles Lazkano Zabaleta | LEITZA
Buatxabal - Poltsa bat
Ana Indaburu Azkarraga | ZUGARRAMURDI
Martiko - Lote bat
Kontxi Irigoien Almandoz | LESAKA
Ezkeza - Kamiseta bat
Francisco Azkarate Etxarte | GARTZAIN
Arkupe - Lote bat
Jose M^a Iriarte Arretxea | NARBARTE
Kukuka - Haurrendako lote bat
Juan Bautista Goikoetxea | EZKURRA
Izar Park - Sarrera bat
Pablo Taberna Sein | BERA
Erein - Bi liburu
Xole Itzauspe Barreneche | ERRATZU

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com



Bi sarrera

ONDOO TA PUNTO
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

EZKEZA
www.ezkeza.com



Kamiseta bat

BKZ ABENTURA
www.navantaventura.com




Sarrera bat

LESAKA
www.lesakakoudelkiraldegia.com



Bi sarrera

MENDUKILO
www.mendukilo.com



Bi sarrera

MUGARKI
www.mugarki.com/ea



Sarrera bikoitza

ANIKOTE
©Anikotel.eziza



Bi sarrera spinning birtualerako

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttapi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Hiru liburu



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

ibaizabal
www.ibaizabal.com